



Banku-Zerbitzuen Eskuliburua

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

INDUSTRIA, MERKATARITZA
ETA TURISMO SAILA

DEPARTAMENTO DE INDUSTRIA,
COMERCIO Y TURISMO

Vitoria-Gasteiz, 2004

Argitaraldia:	1.a, 2004ko azaroa
Ale-kopurua:	2.000
©	Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa Industria, Merkataritza eta Turismo Saila
Internet:	www.kontsumo.net
Argitaratzailea:	Industria, Merkataritza eta Turismo Saila Donostia-San Sebastián 1 – 01010 Vitoria-Gasteiz
Fotokonposizioa eta inprimaketa:	Impresión, S.C. Gamarrako Ataria, 9- Pabiloi 11 – 01013 Vitoria-Gasteiz
Lege-gordailua:	VI-549/04

Eskuliburu hau jendea informatzeko baino ez da, eta bertan esaten denak ez du inolako balio juridiko loteslerik.

Eskuliburu honetako datuak 2004ko irailaren 30era arte eguneratu dira. Gogoan izan datu horietariko batzuk alda daitezkeela, baldin eta indarreko araudia aldatzen bada.

AURKEZPENA

Kontsumo Zuzendaritzaren helburu nagusia herritarrei kontsumoari buruzko informazioa ematea da. Ildo horretatik, abenduaren 22ko 6/2003 Legeak, Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Estatutua arautzekoak, informazioa jasotzeko eskubide horren alderdi nagusietako bat zebazten du: kontsumo ekintzei buruzko liburuxka eta eskuliburu monografikoak argitaratzea.

Gaur egun ia herritar guztiok erabiltzen ditugu banku-zerbitzuak: aurrezki-libretak, kontu korronteak, txartelak, maileguak, pentsio-planak, etab. Zerbitzuok maiz erabiltzen ditugun arren, askotan ez ditugu argi izaten horiei buruzko oinarritzko zenbait kontzeptu.

Oinarritzko kontzeptu horiek argitu nahian, “Banku-zerbitzuen erabiltzailearen eskuliburua” argitaratu genuen 1994an, eta, haren atzetik, bigarren edizioa 1997an. “Banku-zerbitzuen eskuliburu” hau helburu beraz eta gaur egungo egoera aintzat hartuta egin dugu; hau da, finantza-zerbitzu berriei eta araudi aldaketei erreparatuta.

Eskuetan duzun eskuliburu honek informazio erabilgarria jasotzen du, eta bankuetako ohiko eragiketak errazago egiteko tresna baliagarria izango zaizula espero dut.

Vitoria-Gasteizen, 2004ko azaroaren 2an

Rodrigo García Azurmendi
Merkataritza eta Kontsumo sailburuordea

AURKIBIDEA

I. BANKU-ZERBITZUAK: SARRERA	9
1.1. Banku-zerbitzuak eta erabiltzaileak	11
1.2. Banka eta banku-negozioa	13
2. GORDAILU-ERAGIKETAK EDO PASIBOKOAK	17
2.1. “Ageriko” banku-gordailuak	20
2.2. Eperako gordailuak / eperako ezarpenak	29
2.3. Pentsio-planak	32
2.4. Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundeak (BGAE)	39
2.5. Inbertsio-funtsak	46
2.6. Banku-bitartekaritzako zerbitzuak	53
3. KREDITU-ERAGIKETAK EDO AKTIBOKOAK	55
3.1. Hipoteka-mailegua	60
3.2. Kontsumorako mailegua	85
3.3. Kontsumorako kreditua	94
3.4. Kontsumo-kontratuei lotutako maileguak: finantziatiodun salmentak	102
3.5. <i>Leasinga</i>	103
3.6. <i>Rentiga</i>	103
4. BESTE BANKU-ERAGIKETA BATZUK: KOBRANTZA- ETA ORDAINKETA-ERAGIKETAK	105
4.1. Txekea	107
4.2. Ordaindukua edo zor-agiria	111
4.3. Banku-transferentzia	114
4.4. Banku-ordainagiria/helbideratzea	117
4.5. Banku-txartela	119
4.6. Diru-zorro elektronikoa	126
5. BANKUEK EMANDAKO BESTE ZERBITZU BATZUK	129
5.1. Asegurua	131
5.2. Segurtasun-kutxa	134
5.3. Zerga-bilketa, zerga-itzulpenak, eta herritarren eta erakunde publikoen arteko bitartekaritza	135
5.4. Dibisen salmenta-erosketa	136
5.5. Postontzi-zerbitzu iraunkorra	136

6. ZORPETZEA	137
6.1. Zorpetzea, etxeko ekonomian	139
6.2. Gainzorpetzeari aurre egiteko gomendioak	143
6.3. Familien gainzorpetzearen bilakaera	144
7. BANKU-GARDENTASUNA	147
7.1. Finantza-eragiketen publizitatea	149
7.2. Komisioak. Tarifen liburuxka	151
7.3. Balorazio-baldintzak	152
7.4. Iragarki-taula	156
7.5. Kontratu-agiriak	158
7.6. Eragiketen likidazio-agiriak	163
7.7. Urteko tasa baliokidea (UTB)	170
8. ERREKLAMAZIOAK	173
7.1. Aurretiko erreklamazioa, erakundeari egindakoa	175
7.2. Kontsumitzaileen eta erabiltzaileen defentsa orokorrerako erakundeak	175
7.3. Finantza-zerbitzu gaietarako berariazko defentsa-erakundeak	176
I ERANSKINA: BANKU-LEGEDIA	193

1 - BANKU-ZERBITZUAK: SARRERA

1- BANKU-ZERBITZUAK: SARRERA

1.1. Banku-zerbitzuak eta erabiltzaileak

1.2. Banka eta banku-negozia

1.1. BANKU-ZERBITZUAK ETA ERABILTZAILEAK

Azken urteetan, banku-erakundeek, banketxeek, aurrezki-kutxek eta kreditu-kooperatibek nabarmen handitu dute herritarren eguneroko bizitzan duten eragina.

Aldaketa hori agerikoa da: aurreko belaunaldietako jendeak –eta ez aspaldi-aspaldikoak gainera– eskudirutan ordain zitzakeen ondasunak soilik erosten zituen. Gaur egun, ordea, **jende ugari zorpetuta eta “hipotekatuta” bizi da**, zorrak gerora ordaintzeko konpromisoa beren gain hartuta.

“Zordunen” gizarte irudia, gaur egun, ez da garai batekoa: “zorretan egotea” “kreditua izatearen” baliokide da; hau da, banketxeak zuregan konfiantza duela adierazten du. Eta jakin badakigu guztiek ez dutela “pribilegio” hori.

Horrenbestez, **herrialdeen garapen ekonomikoa, teknikoa eta produktiboa lortzea pentsaezina da banku-sektore indartsua izan ezean, sektore horrek erantzun behar baitie enpresaburu- eta inbertsiogileen finantzazio-premiei.**

Azken urteetan, herritarrek gero eta harreman gehiago dituzte banketxeekin, batik bat, **aurrezkiak gordetzeko eta kredituak eskatzeko.**

Izan ere, banku-sektoreak gero eta eragin handiagoa du ekonomian bitartekari lanetan; nahiz eta, hasiera-hasieratik, **botere publikoek sektorean esku-hartzeko politika zorrotzak ezarri dituzten.**

Herralde garatu guztietan, **kreditu-erakundeen funtzionamenduari eta horien jarduera zaintzeari buruzko araudi zorrotz horien azken helburua dirua bankuetan uzten duten pertsonen (aurreztaileen) interesak babestea da.**

Ildo horretatik, bada estatuan banku-sektorea ikuskatzeko eta bitartekari-lanak egiteko ardura duen erakunde bat: Espainiako Bankua.

Halaber, ez dugu ahaztu behar azken urteetan banku-sektoreak –gizartean eta ekonomian gero eta eragin handiagoa izateak bultzaturik– izan duen aldaketa handia: **finantza- eta kreditu-erakunde berri ugari sortu dira** –horietako batzuen jatorria, gainera, ez da banku- edo finantza-sektorea–, eta **“banku-produktuak” oso konplexuak bilakatu dira, batzuetan jende arruntarentzat ulergaitzak izateraino.**

Ildo horretatik, “banku-zerbitzuen” inguruan erabilitako kontzeptu nagusiak argitu nahi ditugu gida honetan:

- **“Pasiboko eragiketak”** edo bankuek “dirua eskuratzea”. Gordailu-eragiketa ere esaten zaie. Hona hemen zer-nolako eragiketa den: pertsona fisikoek, enpresek edo bestelako entitate batzuek aurreztutako dirua gordetzea banketxeetan, aurrezki-kutxetan edo kreditu kooperatibetan, diru horri etekina ateratzeko.
- **“Aktiboko eragiketak”** edo bankuek “dirua jartzea”. Kreditu-eragiketa ere esaten zaie. Hona hemen zer-nolako eragiketa den: banku-erakundeetan dirua lortzea herritarrek, enpresek edo bestelako entitate batzuek, kontsumo- edo inbertsio-egitasmoak aurrera eramanez izateko.

«Gordailu-eragiketen» bidez, aurreztaileek diruzko etekinak lortu nahi dituzte aurrezkietatik.

Bestalde, “kreditu-eragiketen” bidez, bankuek bideragarri egiten dituzte kontsumoko edo inbertsio-eraketak, interesatuek horiek aurrera eramateko nahikoa diru ez daukatenean.

1.2. BANKA ETA BANKU-NEGOZIOA


Espainiako finantza-sistemako **kreditu-erakunde** nagusiak **bankuak, aurrezki-kutzak** eta **kreditu-kooperatibak** dira.

Horien jarduera eta negozioa **diru-soberakinak dituzten pertsonengandik** (aurreztaileengandik) **dirua eskuratu, eta hura behar dutenei** (kontsumitzaileei/inbertsiogileei) **mailegatzea da.**

Beraz, **persona batzuen diru soberakinak kudeatzen dituzte, beste pertsona batzuen diru premiak asetzeko.** Kreditu-erakundeak aurrezkiaren eta inbertsioaren edo kontsumoaren arteko bitartekariak dira.

Bi motatako eragiketak egiten dituzte:


- **Dirua eskuratzeko eragiketak:** bezeroek beren aurrezkiak kreditu-erakundeetan gordetzea (banku-hizkeran, eragiketa pasiboak edo gordailu-eragiketak esaten zaie).
- **Dirua jartzeko eragiketak:** kreditu-erakundeek bezeroei dirua lagatzea da, kontsumo- edo inbertsio-egitasmoei aurre egin diezaieten (banku-hizkeran, eragiketa aktiboak edo kreditu-eragiketak esaten zaie).



Banku-negozia bitartekaritza-negozia da. **Negozio horren etekina elementu hauen arteko diferentziatik lortzen da:**

- pasiboko edo dirua eskuratzeko eragiketen **kostuaren** (bankuek gordailu-egileei edo aurreztaileei ematen dizkieten interesak),
- eta bankuek aktiboko edo dirua eskuratzeko eragiketengatik lortzen dituzten **sarreren** (inbertsiogileek edota kontsumitzaileek bankuei ordaindu behar dizkieten interesak) diferentziatik.

Kreditu-erakundeek bi elementu horien (sarreren eta gastuen) arteko diferentziatik ateratzen dute etekina; hau da, diru-eskatzaile edo -jasotzaileei aktiboko eragiketa edo KREDITU-ERAGIKETENGATIK **kobratzen dizkieten interesen** eta diru-aurreztaileei pasiboko eragiketa edo GORDAILU-ERAGIKETENGATIK **ordaintzen dizkieten interesen** arteko diferentziatik. Hori da **banku-negozioaren** ardatza.



BANKU-NEGOZIOAREN ERRENTAGARRITASUNA

Etekina	2. interes-tasa SARRERA	ken	1. interes-tasa KOSTUA
	KREDITU- ERAGIKETAK (Aktibokoak)		GORDAILU- ERAGIKETAK (Pasibokoak)

Hurrengo kapituluetan banku-zerbitzuak aztertuko ditugu, banan-banan:

- **Gordailu-eragiketak edo pasibokoak.**
- **Kreditu-eragiketak edo aktibokoak.**
- **Beste banku-eragiketa batzuk: kobrantza- eta ordainketa-eragiketak.**
- **Beste banku-zerbitzu batzuk.**

2. kapitulua.
GORDAILU-ERAGIKETAK

Dirua dutenentzat eta aurreztaileentzat

NON
JARRI

- 2.1. Ageriko gordailuak
- 2.2. Eperako gordail.
- 2.3. Pentsio-planak
- 2.4. BGAE
- 2.5. Inbertsio-funtsak
- 2.6. Banku-bitartekaritza: burtsa, errenta finkoa, etab.

KONTRATUA

BANKUA



PARTIKULARRAK

Aurreztu (dirua dute), eta horren etekinak lortzen dituzte

3. kapitulua. **KREDITU ERAGIKETAK**

Gastuak edo inbertsioak egiteko, dirua behar dutenentzat

NON
LORTU

- 3.1. Hipoteka-maileguak
- 3.2. Kontsumorako maileguak
- 3.3. Kontsumorako kredituak
- 3.4. Finantziaziodun salmentak
- 3.5. *Leasinga*
- 3.6. *Rentinga*

KONTRATUA

BANKUA



PARTIKULARRAK

Dirua behar dute inbertsioak eta gastuak egiteko

4. kapitulua. **KOBRANTZA- ETA ORDAINKETA-ERAGIKETAK**

Gordailu-kontuen saldoko mugimenduak dituzte oinarrian (2. kap.)

- 4.1. Txekeak
- 4.2. Ordaindukoak
- 4.3. Banku-transferentziak
- 4.4. Banku-erreziboak/helbideratzeak
- 4.5. Banku-txartelak
- 4.6. Diru-poltsa elektronikoa

5. kapitulua. **BANKUEK EMANDAKO BESTE ZERBITZU BATZUK**

- 5.1. Aseguruak
- 5.2. Segurtasun kutzak
- 5.3. Zerga-bilketa, zerga-itzulpenak, eta herritarren eta erakunde publikoen arteko bitartekaritza
- 5.4. Dibisen salmenta-erosketa
- 5.5. Postontzi-zerbitzu iraunkorra

2 - GORDAILU-ERAGIKETAK EDO PASIBOKOAK

2. GORDAILU-ERAGIKETAK EDO PASIBOKOAK

- 2.1. “Ageriko” banku-gordailuak
- 2.2. Eperako gordailuak / eperako ezarpenak
- 2.3. Pentsio-planak
- 2.4. Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundeak (BGAE)
- 2.5. Inbertsio-funtsak
- 2.6. Banku-bitartekaritzako zerbitzuak

Familien diru-soberakina edo eguneroko bizitzako ekonomiatik haragoko soberakina da aurrezkia; hau da, kontsumoari edota inbertsioari dagozkion gastuak estali eta gero soberan dagoen dirua.

Aurreztaileek finantza bitartekari baten esku uzten dute, aldi baterako, diru soberakin edo “soberako” diru hori, **errentagarritasun** jakin baten truke.

Hauek dira aurreztaileek diru-soberakinak nonbait “JARTZEKO” edo gordailuak egiteko aintzat hartu behar dituzten elementuak:

- **Errentagarritasuna**, hau da, dirua “uzteagatik”, eta, ondorioz, aldi baterako hari uko egiteagatik jasoko duten interesa.
- **Likidezia edota dirua edozein unetan berreskuratzeko izango duten aukera;** bestela esanda, hura berehala eskudirutan jasotzeko izango dituzten aukerak.
- Aurreko elementuari dagokionez, **gordailuaren epeari edo epemugari** begiratu beharko zaio; hau da, dirua berreskuratzeko beharko den denbora.
- Gordailuen **zerga-erregimena**. Oso gogoan izan behar da elementu hau, dirua “jarri izanaren” azken errentagarritasunari eragingo baitio; hau da, dirua uzteagatik jasoko den etekinari.

Aurreztaileen ikuspegitik, egokiena errentagarritasun handiko “gordailuak” topatzea da, berehalako likidezia edo likidezia osokoak, epe muga laburrekoak eta zerga-erregimen onuragarrikoak.

Horrelako produktuak aurkitzea, ordea, ezinezkoa da, errentagarritasun handienak, oro har, likidezia txikieneko eta epemuga luzeeneko gordailuek ematen baitituzte.

Oro har, kreditu-erakundeen **pasiboko eragiketak** (aurreztaileen gordailuak jasotzen dituztenak) bost kategoriatan banatzen dira:

- “Ageriko” banku-gordailuak.
- “Eperako” banku-gordailuak. Eperako ezarpenak.
- “Pentsio-planak”.
- Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundeak (BGAE-EPSV).
- “Inbertsio-funtsak”.

2.1. “AGERIKO” BANKU-GORDAILUAK

Ageriko banku-gordailuek berehalako eskuragarritasuna ematen diete aurrezkiei. Erantsita dituzten zerbitzuen bidez –esaterako, erreziiboak helbideratzea, zor- eta kreditu-txartelak, taloitegiak, etab.–, erraztasun handia ematen dute saldoan mugimenduak egiteko. Alabaina, errentagarritasun txikikoak edo errentagarritasungabeak izaten dira, eta horrek ia ezinezko egiten du aurrezkietatik etekin handiak lortzea.

Gaur egun, kreditu-erakundeak lehia gogorrean dabilta bezeroen ageriko gordailuak eskuratzeko. Ildo horretatik, produktu aukera zabal bat eskaintzen ari dira; besteak beste, errentagarritasun handiagoa eta berehalako likidezia duten produktuak. Alabaina, prestazio hobeak ematearekin batera, murriztu egiten dituzte gordailu mota horiek atxikita izaten dituzten zenbait zerbitzu.

Hauek dira ageriko gordailu nagusiak (BEREHALAKO LIKIDEZIADUNAK):

⇒ Kontu korrontea.

⇒ Aurrezki-libreta.

⇒ Errentagarritasun handiko kontuak, kontu korronte edota libreta moduan

⇒ Etxebizitza-kontua.

2.1.1. KONTU KORRONTEAK

Kontu korrante **kontratu-mota** bat da, eta horren bidez, kontuen titularrek dirua gordailatzen dute bankuetan; ordainetan, diru hori berehala eta eskudirutan itzultzeko konpromisoa hartzen dute bankuek, baita adostutako interesa ordaintzekoa ere. **Kontu horietako titularrek edozein unetan sartu eta atera dezakete kontuko dirua.** Hortaz, ageriko gordailuek eskatu ahala ematen diete dirua aurreztaileei, eskudirutan.

Bankuek kontuen laburpena jakinarazi behar diete horien titularrei, gutxienez sei hilean behin. Hala eta guztiz ere, banku gehienek hilero bidaltzen dizkiete kontuen likidazioak titularrei. Likidazio horietan, kontuan izandako mugimenduak, azken saldoa eta kontuaren interesa zehazten dira.

Ezaugarriak

- Eragiketak egiteko erraztasun handiak ematen dituzenez, kontu korranteetako gordailua erabili ohi dute enpresek ordainketak eta kobrantzak (kontu korranteetako irteerak eta sarrerak) egiteko: transferentziak, txekuek, erreziiboak, helbideratzeak, akzioen salmenta eta erosketa, etab.
- Kreditu-erakundeek, beren kabuz edo kontratuzko xedapenak betez, kontuko saldoa baino handiagoko ordainketak edo diru-ateratzeak egitea onar dezakete, titularra “zorpeko” egoeran utziz. Lehena “adierazi gabeko zorpekoa” da, eta bigarrena, berriz, “kontratuz baimendutako zorpekoa”. Bankuek, oro har, interes eta komisio handiak (kontsumitzaileen kontu korranteetako zorpekoen Urteko Tasa Baliokideak ezin du diruaren legezko interes-tasa baino 2,5 aldiz handiagoa izan) aplikatzen dituzte kasu horietan.
- Kontu korrante bat irekitzeko baldintzak kontratu mugagabe bat izenpetzea eta lehen diru-kopurua ematea dira (kontuan abonua egitea). Kontratuan hainbat baldintza partikular zehaztuko dira: komisioak eta gastuak, interesak, funtsen eskuragarritasuna, etab.
- Ez da gutxienerako diru-kopururik eskatzen kontua irekitzeko.

2.1.2. AURREZKI-LIBRETA (aurrezki-kontua)

Ageriko aurrezki-libreta edo -kontuaren ezaugarriak, oro har, bat datoz kontu korronteen ezaugarriekin. Egindako eragiketa guztiak titularrari emandako libretan jasotzen dira; eta, hauxe da, ezbairik gabe, herritarrek gehien erabiltzen duten gordailu-sistema (“kartila” ezaguna).

Libretaren bidez, berehala eskura daiteke eskudirua leihatilan, kutxazainetan edo libretari atxikitako ordainketa tresnak erabiliz. Libreta bera (kartila) titularrak izaten du, eta noiznahi egunera dezake haren saldoa berariaz prestatutako kutxazainetan edo edozein banku-sukurtsaletan.

Orain gutxi arte, hauek ziren kontu korronteen eta aurrezki-libreten arteko alde nagusiak: aurrezki-libreten bidez ezin ziren txekeak egin, libretak ez zituzten leihatilako zenbait zerbitzu ematen eta ez zituzten zorpekoak onartzen. Gaur egun, ordea, egoera aldatu egin da, eta, adostuz gero, libretak kontu korronteen antzeko baliabideak eta zerbitzuak izan ditzakete.

Aurrezki-libreta eta kontu korrontea dira banku-produktu zaharrenak, eta biek antzeko erabilera eta ezaugarriak dituzte.

Ezaugarriak

- Aurrezki-libreta edo -kontuek, gaur egun, kontu korronteez adina eragiketa egiteko aukera ematen dute.
- Zorpekoak eginez gero, komisio bat aplikatzen zaio saldotik gora gastatutakoari.
- Aurrezki-libreta edo -kontu bat irekitzeko baldintzak kontratu mugagabe bat izenpetzea eta banketxeari edo aurrezki-kutxari diru-kopuru bat ematea dira. Kontratuan hainbat baldintza partikular zehaztuko dira: komisioak eta gastuak, interesak, funtsen eskuragarritasuna, etab.
- Oro har, ez da gutxieneko diru-kopururik eskatzen aurrezki libreta edo kontua irekitzeko.

1.- Aurreztaileen profila

Kontu korronteez eta aurrezki-libreta edo -kontuek interes-tasa txikia eman ohi dutenez, gordailu horiek ez dira errentagarritasuna lortzeko erabiltzen; aitzitik, **familiaren eguneroko bizitzako ordainketak eta kobrantzak egiteko erabiltzen dira.**

Batik bat, etxeko ekonomiaren ohiko eragiketak egiteko erabiltzen dira (ordainketak, kobrantzak, nominak, erreziboen helbideratzea, etab.).

2.- Kontu korronteen eta aurrezki-libreten ezaugarri komunak

- Errentagarritasun txikia.
- Errentagarritasunari ez ezik, atxikitako zerbitzuei eta komisioei ere erreparatu behar diete titularrek.
- Oro har, mantentze-komisioa eta administrazio-komisioa (edo idazpen-komisioa) ezartzen dira. Hala badagokio, zorpekoen gaineko komisio bat ere ezarri ohi da.

Kontu korronteen eta aurrezki-libreten *mantentze-komisioa* kontua irekita izateagatik kobratzen da. Kobrantza hori 12,02 euro ingurukoa izaten da urteko, baina alde handiak daude finantza-erakunde batzuetatik beste batzuetara (komisio hori urteko 9 eurotik 144 euro artekoa izan daiteke, bankuaren, kontu-motaren eta urteko batez besteko saldoaren arabera).

Administrazio-komisioa/ idazpen-komisioa egindako mugimendu bakoitzarengatik kobratutako komisioa da. Kontu gehienek doako idazpen kopuru bat ematen dizkiete titularrei hilean. Zer banku edo aurrezki-kutxa den, doaneko idazpen-kopurua aldatu egiten da, eta, zenbaitetan –aurrezki-libretetan, batez ere–, guztiak doakoak izaten dira. Kobratutako komisioa ez da beti bera izatean, baina, oro har, 0,15 eta 0,18 euro artekoa izaten da, idazpen bakoitzeko. Zenbait zerbitzurengatik ez dago komisorik ordaindu beharrik, kontuak berezkoak dituen zerbitzuak izaten baitira; esaterako, eskudirutan egindako diru-sarrerak edo abonua, eta interesen zordunketa.

Beharrezkoa da kontu-mota horien titularrek komisioei erreparatzea: kontuok errentagarritasun txikia ematen dute, eta, komisioak oso handiak izanez gero, kontua irekita izateak dirua galtzea ekar lezake.

- Banku-gordailuen errentagarritasuna, bai agerikoena, bai eperakoena, kapital higigarrien etekintzat jotzen da PFEZan. Etekin horiek zerga-oinarri orokorrera gehitzen dira, zergadunak jasotzen dituen gainerako errentekin batera. 2003ko urtarrilaren 1ean Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga aldatu zen, eta, ondorioz, kapital etekinek %15eko atxikipena dute.
- Ez da gutxieneko diru ekarpenik egitea eskatzen kontuak irekitzeko.


3.- Kontu korronteen eta aurrezki-libreten arteko diferentziak

- Kontu korronteen euskarria, oro har, kontu-laburpena izaten da, eta aldiro jasotzen da kontu titularren etxean. Aitzitik, aurrezki-libreten euskarria libreta bera izaten da.
- Kontu korronteetan beti erabil daitezke txekeak, eta aurrezki-libretetan ez.
- Aurrezki-libreten errentagarritasuna kontu korronteena baino apur bat handiagoa izaten da, internetez kontratatutako kontuetan izan ezik.
- Aurrezki-libretek ez dute beti ematen zorpekoak egiteko aukera, bai, ordea, kontu korronteek.

4.- Kontu korronteen eta aurrezki-libreten kodifikazioa

Kontu korronteak eta aurrezki-libretak zenbaki propioa eta errepika ezin batez identifikatzen dira. Zenbaki hori lau ataletan banatutako 20 digituz osatzen da:

Kontu-zenbakiaren ADIBIDEA:



- Lehenbiziko lau digituak bankuaren kodeari dagozkio.
- Hurrengo laurak sukurtsalaren banku-kodeari dagozkio.
- Ondorengo biak kontrol digituak dira; lehena sukurtsalarena, eta bigarrena kontuarena.
- Azken hamar digituak dira, berez, kontuaren zenbakia; lehen biek kontu-mota identifikatzen dute, eta bi azkenak kontrol-digituak dira.

5.- Errentagarritasuna

	Interes-tasa pasiboak. BANKUAK		Interes-tasa pasiboak. KUTXAK	
	Urteko Tasa Baliokidea (UTB)		Urteko Tasa Baliokidea (UTB)	
	Kontu korronteak	Aurrezki-kontuak	Kontu korronteak	Aurrezki-kontua
97	3,23	2,56	2,86	1,72
98	2,50	1,67	2,21	1,37
99	1,55	0,99	1,65	0,94
00	2,07	1,06	2,10	0,96
01	2,42	2,03	2,33	0,95
02	1,99	1,67	1,87	0,81

Iturria: Espainiako Bankua

OHARRA: kontu korronteen interes-tasak, taulan adierazitako kasuetan, aurrezki-kontuenak baino handiagoak dira, baina hori lehenak "errentagarritasun handiko kontuak" direlako da.

6.- Internetez egindako gordailuak

Internet bidezko bankuek errentagarritasun handiagoko ageriko gordailuak eskaintzen dituzte. Produktu horiek internetez kontrata daitezke soilik, eta, errentagarritasun handiagoa dute. Dena den, horietan ezin da ordainketa eta kobrantzarik egin; hau da, horietan ezin da transakziorik egin. Hortaz, internet bidezko bankuak ohiko bankuen alternatiba interesgarria dira, errentagarritasun handiagoa ematen baitute; alabaina, badituzte zenbait eragozpen; esaterako, banku horietan produktu jakin batzuk soilik kontrata daitezke, eta eragiketak egiteko, batzuetan, interneteko bankuen sukurtsal fisikoetara edo horien laguntzaile diren bankuetara joan behar izaten da.

7.- Titular bat baino gehiagoko banku-kontuak

- *Bereizigabeak (edo solidarioak):* kontu horien saldoa titular orok erabil dezake.
- *Baterakoak (edo mankomunatuak):* titular guztien sinadura behar da kontu horien saldoa erabiltzeko.

Kreditu-erakundeek saldoak konpentsatzeko klausulak ezarri ohi dituzte, eta, ondorioz, kontu batzuetako zorrak edo saldo zordunak beste kontu batzuetako saldo hartzekodunekin konpentsatzen dira; betiere, kontu horietako titularra pertsona bera bada. Horri dagokionez, ez da aintzat hartzen kontuak titular bat baino gehiagokoak izatea.

Hala eta guztiz ere, Espainiako Bankuaren Erreklamazio Zerbitzuaren arabera, bi baldintza bete behar dira kontuen arteko zorrak konpentsatzeko: alde batetik, konpentsatutako kontuen edo gordailuen titular guztiek berak izan behar dute; eta, bestetik, kontratuko klausuletan berariaz adierazi behar da konpentsazioak egiteko aukera.

Saldoen konpentsazioa kontuen kontratuetan jasota egon, baina konpentsatu nahi diren kontuen titularrak berak ez badira, Espainiako Bankuko Erreklamazio Zerbitzuaren ustez, konpentsazioa egiteko oinarritzko baldintzetako bat faltako litzateke. Gainera, jurisprudentziak adierazi duenez, kontu guztietan titularrak berak ez badira, ez legoke konpentsazioa egiteko aukerarik, ezinbestean kaltetuko bailirateke saldo zorduna duen kontu edo eragiketarekin zerikusirik ez duten pertsonak.

Ageriko banku-gordailuei buruzko oharrak (Kontu korronteak eta aurrezki-libretak):

Oro har, eragiketak egiteko erabiltzen dira, eta ez aurrezteko.

Hauek dira horien abantaila nagusiak:

1. Dirua berehala eskura daiteke.
2. Oso seguruak dira.
3. Erabilerrazak dira.

Alabaina, produktuok errentagarritasun txikikoak dira. Oro har, errentagarritasun polit bat lortzeko, bankuek eta aurrezki-kutxek gutxieneko saldo bat izatea edo gordailuak gutxieneko epe baterako ezartzea eskatzen dute.

Alde nabariak daude finantza-erakunde batzuek eta beste batzuek ezartzen dituzten komisio eta gastuen artean, baita ematen duten interes-tasaren artean ere. Alderdi horiek, sarritan, negoziagarriak izaten dira.

Bankuek eta aurrezki-kutxek etengabe ateratzen dituzte kontu eta libreta berriak; izen bereziak izaten dituzte, eta bezero jakin batzuentzat izan ohi dira (gazteentzat, ikasleentzat, erretiratuentzat, denda-jabeentzat, eta abarrentzat).

Finantza-erakundeek zenbait abantaila ematen dizkiete bezeroei nominak beren kontu edo libretetan helbideratzeagatik. “Nominakontuak” izenekoak dira, eta, horien bidez, gordailu egileek zenbait abantaila eskuratzen dituzte: doako istripu-asegurua; lehentasunezko tasan egindako finantzazio automatikoak eskuratzeko aukera; nominen

aurrerakinak izatea; eta kreditu-txartelak doan eskuratu, eta lehen urtean mantentze-kuotarik ez ordaintzea.

Banku eta aurrezki-kutxek gordailuak kanpo-dibisetan egiteko aukera eman ohi dute. Eragiketa horiek estatuko moneta (€) adierazitako gordailuen antzeko ezaugarriak dituzte; diferentzia bakarra kotizazio ofiziala duen dibisa batean eginak direla da. AEBko dolarrak eta libera esterlinak dira gehien erabiltzen diren dibisak. Produktu horiek kontratatzean aintzat hartu behar da, interes-tasez gain, kanbio-tasek ere aldaketak izan ditzaketela; esaterako, produktua $0,94 \text{ €}/\$$ kanbio-tasan kontratatu badugu, eta epemuga iristean haren kanbio-tasa $1,1 \text{ €}/\$$ bada, produktuaren errentagarritasunak ezingo lituzke tasa-aldaketak eragindako galerak estali, eta, ondorioz, hasierako kapitala baina kopuru txikiagoa berreskuratuko genuke.

2.1.3. ERRENTAGARRITASUN HANDIKO KONTUAK, KONTU KORRONTE EDO LIBRETA MODUAN

Errentagarritasun handiko gordailuak ohikoa baino errentagarritasun handiagoa ematen duten kontu korronte edo aurrezki-libreta mota bereziak dira; eta, horregatik, maiz esaten zaie “superkontuak”. Horien errentagarritasuna, normalean, ez da alde zuzenetik bermatuta egoten, eta titularrak kontuan duen batez besteko saldoaren arabera izaten dira.

Aukera onak dira dirua aurreztuta izan, baina inbertsio-aukera baten zain dauden pertsonentzat; baita epe laburrean diru horren premia izango duten pertsonentzat ere. Halaber, produktu egokiak dira arriskurik hartu nahi ez duten aurreztaileentzat.

“Superkontuak” bankuen gordailu ikurrak izan ziren 90eko hamarkadaren hasieran, eta %12 arteko interes-tasak ematera iritsi ziren. Gaur egun, ordea, produktuak telefonoz edo internetez saltzen dituzten finantza-erakundeetara jo behar izaten da produktu horiek kontratatzeko.

Egun, “online” bankuak gailendu dira superkontuen merkatuan.

Ezaugarriak

- Inbertsio-funtsen eta eperako ezarpenen aldean, abantaila nabarmen bat dute: malgutasuna.
- Errentagarritasun eta eskuragarritasun handikoak dira, eta horietako batzuk transferentziak, txartel bidezko ordainketak eta antzeko eragiketak egiteko aukera ematen dute.
- Inbertsioak egiteko mugak izan ditzakete, direla gutxienekoak, direla gehienekoak.
- Komenigarria da jakitea zer dibisatan egiten dituen eragiketak, zer eragiketa egiteko aukera ematen duen (helbideratzeak, txartelak, etab.) eta zer gaitasun duen beste erakunde batzuekin lan egiteko.

Aurreztaileen profila

Produktu-mota hau arriskurik nahi ez duten aurreztaileentzat pentsatua dago; hau da, ageriko gordailuena (kontu korronteak eta aurrezki-libretak) baino errentagarritasun handiagoa lortzeko asmoa izan, eta aurrezkiak epe motzean berreskuratzeko aukerari garrantzia ematen diotenentzat.

2.1.4. ETXEBIZITZA-KONTUA

Etxebizitza-kontua aurrezki-sistema berezi bat da: horren bidez gordailu egileak gehieneko epe batean (Euskadin, 6 urte) etxebizitza bat erosteko konpromisoa hartzen du. Kontu hauen xede bakarra dirua aurreztu, eta aurrezki horiek ohiko etxebizitza erosteko erabiltzea da.

6 urteko epe horretan etxebizitzarik erosi ez bada, kontuaren titularrak itzuli egin beharko du urte horietan PFEZan izandako kenkaria.

Ezaugarriak

- Etxebizitza-kontuetan egindako diru-sarrerek, oro har, %15eko kenkaria dute PFEZan, eta kenkari horren gehienezko oinarria 9.015,18 eurokoa da.
- Beraz, hau da lor daitekeen gehienezko kenkaria: $\%15 \times 9.015,18 = 1.352,28$ euro (225.000 pezeta).
- Euskal Autonomia Erkidegoan, etxebizitza-kontuaren kenkariak ezin du, urteko, zerga oinarriaren %60 baino handiagoa izan.
- Etxebizitza-kontu bakarra ireki daiteke zergaduneko.
- Kontua aldatzeko aukera ematen da, bai finantza-erakunde bereko beste batera, bai beste finantza-erakunde batera. Horrela eginez gero, saldo osoa eraman beharko da kontu berrira, eta epea jatorrizko kontua ireki zenetik kontatuko da.

Aurreztaileen profila

Produktu hau ohiko etxebizitza eskuratzeko asmoa duten aurreztaileentzat pentsatuta dago.

2.2. EPERAKO GORDAILUAK / EPERAKO EZARPENAK

Eperako banku-gordailuen bidez, aurreztaileak diru-kopuru bat gordailatzen du finantza-erakundean, eta epe jakin batean bertan uzteko konpromisoa hartzen du. Epe hori amaitzean, utzitako dirua eta hitzartutako interesak itzuli beharko dizkio bankuak edo aurrezki-kutxak.

Produktu hauek ez dute aukerarik ematen txekerik egiteko edo ordaintzeko agindurik emateko, ezta gordailuan ezarpen berriak egiteko ere; alabaina, nahi adina gordailu kontrata daitezke. Ageriko gordailuen aldean, produktu hauen likidezia oso murriztuta dago.

Ezaugarriak

Produktu hauen titularrek ezin dute dirua berreskuratu hitzartutako epea agortu arte. Konpromiso horren truke, titularrek errentagarritasun handia eskuratzen dute. Errentagarritasuna gordailuan jarritako diruaren araberakoa izaten da.

Gordailu egileak dirua ezarpenaren epea agortu baino lehen berreskuratu nahiko balu, zehapena izango du: hitzartutako interes-tasa murriztu egingo zaio, eta, batzuetan, ez zaio interesik ordainduko. Dena den, zehapen-komisioa ezingo da sortutako interesak baino handiagoa izan.

Gordailu-mota hauek egiteko, bankuek gutxieneko ezarpen bat egitea eskatzen dute; oro har, 6.000 eta 30.000 euro artekoa. Dena den, alderdi hori beti negoziatu daiteke bankuarekin, aukera sorta zabala izaten baitute bezeroen beharrei erantzuteko.

Orobat, aurrezkia “jartzeko” epeak hilabete eta 10 urte artekoak izaten dira.

Eperako gordailuen arrakasta segurtasunean datza; interes-tasen aldaketak aldaketa, beti jasotzen baita aurrez hitzartutako errentagarritasuna.

Segurtasun horren ordainetan, produktuek ez dute berehalako likidezirik, eta zergei dagokionez ere ez dira oso onuragarriak.

Eperako gordailuak aurrezki-produktu klasikoak dira, eta titularrek ageriko gordailuetan inoiz lortuko ez luketen errentagarritasuna ematen dute.

Errentagarritasuna interes-tasa finkora edo interes-tasa aldagarria (indize jakin batzuei lotutakoak dira, esaterako, EURIBOR izenekoari) hitzar daiteke, eta gordailuaren titularraren kontu korrontean edo libretan ordainduko da.

Finantza-erakundeek ez dute, oro har, irekitze, mantentze- edo eragiketa-komisiorik kobratzen, eta gordailuen mugaegunaren aurretik kitatzeak soilik sortzen ditu gastuak edo komisioak. Zehapen

horiek ez dira berdinak banku-erakunde guztietan, baina, gehienez, kitatze-egunera arte sortutako interesak gal daitezke.

Horrenbestez, hiruhileko likidazioak egiten dituen urtebeterako gordailua badugu, eta, dirua behar dugulako, hura azken hiruhilekoan erreskatatzen badugu, interesen hiruhileko likidazio bati dagokion kitatze-komisioa ezarriko digute, gehienez.

Eperako ezarpenak mugaeguna baino lehen kitatzeagatik jarritako zehapena gordailuaren epearen araberakoa izaten da: epe luzea, zigor handia; epe motza, zigor txikia.

Eperako ezarpenetan ez da komisorik edo gasturik kobratzen, baina zigor handiak jartzen dira gordailuak kontratuan hitzartutako mugaeguna baino lehen erreskatatzen badira.

Aurreztaileen profila

Dirua leku seguruan jarri, baldintza argietan kudeatu eta errentagarritasun handia lortu nahi dutenek aukeratzen dituzte eperako gordailuak. Oso gomendagarriak dira aldizkako errentak jaso nahi dituzten aurreztaileentzat; interesak hileroko, hiru hilean behin edo urtero jaso baitaitezke.

Zerga-erregimena

Eperako gordailuen etekinek ageriko gordailuen etekinen zerga-erregimen bera dute, eta, ondorioz, atxikipena dute PFEZan.

Bi urtetik gorako gordailuetan sortutako interesek %40ko kenkaria dute, eta atxikipena gainerako %60ari egiten zaio.

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOA					
Sortzapen- epea	Interes gordinak	Murrizpenaren ehunekoa	Interes zergagarria(A)	Atxikipenaren ehunekoa(B)	Interes gordinen atxikipena(A*B)
2 urte edo gutxiago	%100	%0	%100	%15	%15
2 urte baino gehiago eta 5 baino gutxiago	%100	%40	%60	%15	%9
5 urte baino gehiago	%100	%50	%50	%15	%7,5

Iturria: www.bbk.es

Eperako banku-gordailuei buruzko oharrak

- Eperako gordailuak oso egokiak dira dirua bankuak eskaintako epea baino lehenago beharko ez dutenentzat.
- Sarritan, eperako gordailuak automatikoki berritzen dira mugaeguna iristean. Eperik berritu nahi ez badugu, bankuari jakinarazi beharko diogu horretarako jarritako epean.

2.3. PENTSIO-PLANAK


Pentsio-plan pribatuak Gizarte Segurantzako sistema publikoaren osagarri izateko sortu ziren; hau da, langabezia-egoeren, osasun-prestazioen eta pentsioen (erretirokoak, alarguntasunekoak, zurtzasunekoak, etab.) osagarri izateko.

Gizarte Segurantzako erretiro-pentsioen zenbatekoak jendeak lanean diharduenean irabazten duen errenta baino txikiagoak izan ohi dira, eta horrek bizitzaren kalitatea kaltetu egiten du, neurri batean. Langileek badakite erretiroa hartzean jasoko duten pentsioa erretiratu aurretik jasotzen duten soldata baino dezente txikiagoa izango dela.

Hori ikusita, pentsio-planak egiteko gero eta joera handiagoa dute herritarrek. Langileek, aldizkako ekarpenen bidez, funts bat eratzen

dute, eta horri ekarpenek berek eragindako etekinak gehitzen zaizkio. Horrenbestez, aurreztutako kapital hori guztia erretiroa hartzean jasoko dute, eta diru-sarreraren murrizketari aurre egiteko moduan egongo dira.

Pentsio-planen sistema, beraz, Gizarte Segurantzaren osagarria da, eta ez haren ordezkoa. Pentsio-planak kontratatzen dituztenek diru-funts bat eratzen dute pixkanaka-pixkanaka, eta erretiratutakoan berreskuratuko dute aldizkako errenta bat jasoz, edo diru kapital bat jasoz.




Pentsio-planen eta pentsio-funtsen egitura

1. **Pentsio-planen sustatzaileak.** Pentsio-planak sortzeko ekimena hartzen edo horiek aurrera eramaten parte hartzen duten entitate, korporazio, sozietate, enpresa, elkarte, sindikatu edo kolektiboak dira. Halaber, **pentsio-funtsen sustatzaileak** horiek sortzeko ekimena hartzen, edo, hala badagokio, horien eraketan parte hartzen duten pertsona juridikoak dira.
2. **Pentsio-planaren kontrol-batzordea.** Planaren funtzionamendua ikuskatzen du. Pentsio-planaren sustatzaileen eta partaideen ordezkari osatuta dago. Planaren kontrol-batzordeak, halaber, hura **funtsaren kontrol batzordean** ordezkatzeko duten pertsonak izendatu behar ditu.
3. **Pentsio-planaren partaideak.** Pentsio-planaren helburuko pertsona fisikoak dira.
4. **Pentsio-planaren onuradunak.** Partaideak berak izango dira, planaren prestazioak jasotzen hasten direnean; baita, pentsio-plana eratzean partaide ez zirenak ere, planaren prestazioak jasotzeko (funtsera egindako ekarpenak berreskuratzeko) eskubidea badute.
5. **Pentsio-funtsaren erakunde kudeatzailea.** Erakunde honen egitekoa pentsio-funtsa kudeatzea da. Erakunde kudeatzaile izateko aukera izango dute legez araututako baldintzak betetzen dituzten aseguru-etxeak eta sozietate anonimoak. Bere lanaren ordainetan, kudeaketa-komisio bat jasoko du, funtsaren funtzionamendu arauekin bat etorritz.
6. **Pentsio-funtsaren erakunde gordailuzaina.** Erakunde honek zaindu eta gordeko ditu pentsio-funtseko balore higigarriak eta finantza-aktiboak. Gainera, erakunde kudeatzailea kontrolatuko du, sustatzailearen, partaideen eta onuradunen aurrean. Egindako lanaren truk, erakunde kudeatzailearekin hitzartutako ordainsariak jasoko ditu; betiere, funtsaren kontrol-batzordearen aurretiazko oniritzia jasotzen badu.

Erakunde kudeatzaileek eta gordailuzainek kudeatzen edo zaintzen dituzten funtsen alde jardun beharko dute. Ildo horretatik, bi

erakunde horiek beren obligazioak ez betetzeagatik sustatzaileei, partaideei eta onuradunei sortutako kalteen erantzule izango dira.



- "Pentsio-funtsa" pilotutako ondarea da, eta ez du izaera juridiko propiorik. Ondare hori partaide multzo batena da, eta pentsio-plan baten edo batzuen ekarpenez osatuta dago.
- Partaideek "kontsolidatutako eskubideak" dituzte. Eskubide horiek egindako ekarpenetatik eta jasotako etekinetatik dagozkien funtsaren kuota edo zatia dira. Eskubide horiek inbertitutako partaidetzen balioa direla esan dezakegu.
- Pentsio-planen bat kontratatu aurretik, beharrezkoa da norberaren egoerari erreparatzea. Honako alderdi hauei begiratzea komeni da:
 - Planaren arriskua (ikusi hurrengo kapitulua "Pentsio-funtsak, ondarearen osaeraren arabera").
 - Erretiratzeko geratzen zaigun denbora.
 - Zer-nolako egoera fiskalean gauden.

- Pentsio-planean egindako inbertsioaren eta aurrezki edota inbertsioko gainerako produktuetan egindako inbertsioaren arteko proportzioa.

Pentsio-planen titularrek/partaideek eta horien ezkontideek soilik egin ditzakete ekarpenak (legeak ezarritako mugak betez). Halaber, ekarpenak egiteko aukera izango dute titularren senideek –lerro zuzenean edo alboko lerroan, hirugarren mailaraino–, %65eko edo handiagoko ezintasuna aitortua badute.

Planen partaideek edozein izenda dezakete onuradun, mugarik gabe eta senidetasunari erreparatu gabe (herentzien zati xedaezina izan ezik).

Ezaugarriak

- Honako arrisku hauek estal ditzakete:
 - o **Erretiroa.** Erretiroa hartzeko aukerarik ez badago, prestazioak hirurogei urtetik aurrera jasoko dira.
 - o Ohiko lana egiteko **ezintasun iraunkor osoa**, edo edozein lan egiteko **baliaezintasun absolutua**.
 - o Partaidearen **heriotza**, legezko ondorengoan aldeko eskubideak sorrarazten baditu.

Honako egoera hauek ere estal ditzakete:

- **Epe luzeko langabezia.** Zenbait pentsio-planek langabeziagatiko estaldurak dituzte. Plan horien titularrek, denbora jakin bat ematen badute langabezian, hileko errenta bat jasotzea eska dezakete. Errenta horiek titularrek planean pilatutako kapitaletik hartuko dira, eta, gerora, itzuli egin beharko dituzte.
- **Gaixotasun larria.**
- Hortaz, erretiroa hartzean (edo ezinduta geratzean) sarrera handiagoak izateko aukera ematen dute pentsio-planek, eta Gizarte Segurantzatik jasotako prestazioak osatzeko.
- Epe luzean aurrezteko tresnak dira.

- Planek ez dute likidezirik; hau da, ezin da horietan egindako inbertsioa berreskuratu erretiratu arte edo horri parekatutako egoeran izan arte. Honako hau da parekatutako egoera: partaideak lan-harremana etetea gutxienez 52 urte izanda, eta, ondorioz, langabezian geratzea; betiere, langabezia-egoera Enpleguko Institutu Nazionalan inskribatzen bada, edo adin hori betetzerako jada inskribatuta badago.
- Planen errentagarritasuna ez dago bermatuta; ondorioz, gerta liteke horien titularrek ekarpenengatiko errentagarritasunik ez jasotzea, edo errentagarritasun negatiboak izatea.
- Produktu oso seguruak dira, zorrotz ikuskatzen baitira. Funts horien kontrola beste finantza-produktu batzuen baino zorrotzagoa da, horien helburua partaideei etorkizunerako prestazio jakin batzuk bermatzea baita.
- Pentsio-planetan jarritako dirua (ekarpenak + eskuratutako errentagarritasuna = kapital kontsolidatua) beste batera eraman daiteke, errentagarriagoa dela uste bada.
- Ekarpenak egiteko aldiak, oro har, titularren beharretara egokitzen dira.
- Eragiketa-mota horiek epe oso luzerakoak izaten direnez, ekarpenak urtero handitzeko klausula bat jartzen da kontratuan, inflazioaren eraginari aurre egiteko.
- Planek, indarrean dauden bitartean, ekarpenak doitzeko eta “erabiltzeko” aukera ematen dute, premiazko egoeretan. Honako hauek dira ohikoenak:
 - a) Titularrek edozein unetan utz diezaiokete ekarpenak egiteari, eta ordura arte pilatutako kapitalak errentagarritasuna izaten jarraituko du, erretiratzeko garaia iritsi arte.
 - b) Planak maileguak eskatzeko aukera eman dezake. Mailegu horiek pilatutako kapitalaren konturakoak izaten dira, eta merkatuko maileguak baino baldintza hobek izaten dituzte.
- Pentsio-planen artean, **pentsio-plan bermatuak** kontrata ditzakegu. Pentsio-planen zerga-erregimen bera dute, baina bertako

erakundeek interes-tasa jakin bat bermatu behar diete partaideei. Halaber, plan horiek ez dituzte zenbait arrisku estaltzen; esaterako, partaidearen heriotza edo lanerako ezintasuna.

Pentsio-planak, sustatzailearen arabera.

- a) *Indibidualak*: Legezko gaitasuna duten pertsona orok egin ditzakete. Partaideek (ekarpen-egileek), sustatzaileak, eta finantza-erakunde batek edo aseguru etxe batek osatutakoak dira.
- b) *Elkartuak*: Elkarte edo kolektiboek (esaterako, elkargo profesionalek) sustatzen dituzte, eta talde horietako kide guztiek izaten dute hori egiteko aukera. Horien finantzazioa partaideek egiten dute.
- c) *Enpleguak*: Enpresek sustatzen dituzte, langileentzat. Enpresek egiten dituzte ekarpenak, baina langileek ekarpenak egitea ere hitzar dezakete.

Pentsio-funtsak, ondarearen osaeraren arabera

- a) *Errenta finkokoak*: Errenta finkoan inbertitzen dute soil-soilik. Oso egokiak erretirorako aurrezkiak arriskuan jarri nahi ez dituzten pertsonentzat. Plan KONTSERBADOREAK dira.
Ziurrenak izan arren, funts hauetan ere ez da errentagarritasuna bermatzen, errentagarritasun negatiboa ere izan baitezakete.
- b) *Errenta finko mistokoak I*: Ondarearen %15 arte inbertitzen dute errenta aldakorrean, eta gainerakoa errenta finkoan. Egokiak dira aurreztaile ZUHURRENTZAT.
- c) *Errenta finko mistokoak II*: %15 eta %30 artean inbertitzen dute errenta aldakorrean, eta gainerakoa errenta finkoan. Egokiak arrisku ERTAINA nahi duten aurreztaileentzat.
- d) *Errenta misto aldakorrekoak*: %30 eta %75 artean inbertitzen dute errenta aldakorrean, eta gainerakoa errenta finkoan. Egokiak dira aurreztaile AUSARTENTZAT.

e) *Errenta aldakorrekoak*: Gutxienez %75 inbertitzen dute errenta aldakorrean, eta gainerakoa errenta finkoan. Akzioek berez dakarten arriskua beren gain hartzeko prest daudenentzat izan daitezke egokiak, baita erretiroa hartzeko urte ugari falta dituztenentzat ere. ARRISKU HANDIKO planak dira.

Horrenbestez, aurreztaileek beti aurkituko dute beren errentagarritasun- eta arrisku-asmoei egokitzen zaien pentsio-funtsa.

Komisioak

Pentsio-planek bi komisio mota izaten dituzte: kudeaketa-komisioa eta gordailu-komisioa. Funtsen erakunde kudeatzaileek eta gordailuzainek ezin dute edozein komisio kobratu beren lana egiteagatik, araudiak gehienezko mugak ezartzen baititu. Muga hori %2koa da kudeaketa-komisioetarako, eta 0,5ekoa gordailu-komisioetarako. Errekargu horiek pentsio-funtsen ondarearen kontura egin ohi dira.

2.4. BORONDATEZKO GIZARTE AURREIKUSPENENKO ERAKUNDEAK (BGAE)

Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundeak, BGAEak, irabazi asmorik gabeko aurreikuspen-erakunde pribatuak dira, eta izaera juridiko propioa dute. Horien helburua bazkideak babestea da, eta, horretarako, “**aurreikuspen-planak**” eskaintzen dizkiete bazkideei. Plan horiek erabat malguak dira, eta Euskal Autonomia Erkidegoan bizi direnek soilik eskura ditzakete.

Pentsio-planek bezala, ongizate mailari eusteko aukera ematen dute, eta Gizarte Segurantzako erretiro-pentsioaren osagarriak dira.

PENTSIO-PLANAK BAZKIDEAK/SOZIOAK

- 1.- Partikularrak = bazkide ARRUNTAK (BGAEaren etekinak jasotzen dituzte). Pertsona fisikoak.
- 2.- Erakunde bazkide BABESLE/ SUSTATZAILEAK (zuzendaritza organoetan parte hartzen dute). Ekarpinak egin, eta, hala badagokio, itzuli egiten zaizkie.
 - Elkartek
 - Enpresak
 - Instituzioak

BGAE

- Izaera juridiko propioa
- Irabazi asmorik gabekoa
- Egitekoa: bazkideei gizarte babesa ematea

BGAEren GOBERNU- ORGANOAK

BATZAR OROKORRA

- Bazkide guztiak.
 - Ohiko batzarrak.
 - Ez ohiko batzarrak
- Egitekoak:
 - Estatutuak aldatzea.
 - Gobernu Batzordeko kideak izendatzea, eta kargutik kentzea.
 - Urteko kontuak onartzea.
 - Bategitea, federatzea edo desegitea erabakitzea.

GOBERNU-BATZORDEA

- Batzar Orokorrak izendatzen ditu
- Egitekoak: zuzendaritza/ordezkaritza.
- Batzar Orokorrari berariaz eman gabeko funtzioak ditu.
- Gutxienez 3 kide ditu, denak ere, bazkideak (presidentea eta idazkaria izan behar dute).
- 2-6 urterako osatzen dira Egitekoak eta ahalmenak ZUZENDARITZA baten ESKU ditzake

Ezaugarriak

Hau da BGAEek eskainitako aurreikuspen-planen berezitasuna: lehen ekarpena egin zenetik 10 urte igaro ondoren, ekarpen guztiek likidezia osoa izango dute.

Aipatutako epea aintzat hartu gabe, BGAEek estalitako gertakari hauetakoren bat jazotzean, titularrek edozein unetan berreskura

ditzakete aurrezkiak, kapital bat jasoz, errenta bat jasoz edo bien arteko konbinazio bat jasoz. Hona hemen gertakariak:

a) **Erretiroa** edo hari parekatutako egoera (52 urte baino gehiago dituzten pertsonak langabezian geratzea parekatutako egoeratzat jotzen da).

b) **Baliaezintasun iraunkor osoa edo absolutua.**

c) **Heriotza.**

Salbuespenez, eta estatutuetan hala jasotzen bada, kapital osoa eskuratzeko aukera izango da, honako egoera hauetan:

a) **Gaixotasun larria.** Gaixotasun hori partaide/bazkideak edo haren ezkontideak izan beharko du. Aukera bera izango da gaixotasun hori duena partaide edo bazkidearen lehen graduko aurrekoren edo ondorengoren bat bada; edo, harekin bizi eta haren mende dagoen pertsonaren bat izan eta haren tutoretzapean badago.

b) **Epe luzeko langabezia,** planaren partaideak pentsio kontributiborik jasotzen ez badu, gutxienez, hamabi hilabetez jarraian.

Ildo horretatik, Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundeek prestazio-aukera hauek ematen dituzte:

1. Bazkideari aldi baterako edo bizitza osorako pentsioa ematea, zahartzaroagatik edo lanerako baliaezintasun iraunkorra izateagatik.
2. Onuradunei aldi baterako edo bizitza osorako pentsioak ematea, aurreko atalean adierazitako bazkidearen edo pentsio jasotzailearen heriotzagatik.
3. Hala badagokio, bazkideei edo onuradunei aldizkako edo ordainketa bakarreko ekarpenak egin edo laguntzak ematea, honako kasu hauetan:
 - a) Jaiotza edo ezkontza.
 - b) Langabezia.
 - c) Zahartzaroa.
 - d) Aldi baterako ezintasuna edo ezintasun iraunkorra.

e) Heriotza.

f) Ebakuntza kirurgikoak edo kliniketako egonaldiak.

4. Osasun-laguntza, mugarik gabe.

5. Bazkideen ondasun batzuetan izandako kalteak ordaintzeko laguntza ekonomikoa ematea. Honako hauek dira ondasun horiek: etxebizitzak, etxeko altzariak, lan tresnak, aziendak, uztak, edo horien mutualisten bestelako ondasunak, bazkidearen jarduera profesionalarekin lotuta badaude.

Komisioak (administrazio-gastuak).

Administrazio-gastuen zenbatekoa estatutuetan adieraziko da, eta, jaso beharreko prestazioen arabera, ezingo dira behean zehaztuko ditugunak baino handiagoak izan.

1. 1. eta 2. ataleko prestazioak ematen badira, bazkideek egindako kuoten eta ekarpenen gaineko %5.

2. 3. ataleko prestazioak ematen badira, %15.

3. 4. eta 5. ataleko prestazioak ematen badira, %20.

Atal bat baino gehiagoko prestazioak jasoz gero, horietatik portzentaje handiena duena kobratzea onartuko da.

PENTSIO-PLANEN ETA BGAEEN ZERGA-ERREGIMENA

2004ko PFEZ

PENTSIO-PLANETARA ETA BORONDATEZKO GIZARTE AURREIKUSPENEKO ERAKUNDEETARA EGINDAKO EKARPENEN ZERGA-ERREGIMENA

	ARABA	GIPUZKOA	BIZKAIA
- Partaideek edo bazkideek egindako ekarpenak - Partaide edo bazkideei egotzitako errenta	Zerga oinarriaren murrizpenaren mugak, Pentsio-planetara eta Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundeetara egindako ekarpenei dagokionez (eurotan)		
Muga orokorrak			
52 urte baino gehiagokoak	8.000	8.000	8.000
Adina			
53	9.250	9.250	9.250
54	10.500	10.500	10.500
55	11.750	11.750	11.750
56	13.000	13.000	13.000
57	14.250	14.250	14.250
58	15.500	15.500	15.500
59	16.750	16.750	16.750
60	18.000	18.000	18.000
61	19.250	19.250	19.250
62	20.500	20.500	20.500
63	21.750	21.750	21.750
64	23.000	23.000	23.000
65 baino gehiago	24.250	24.250	24.250

	ARABA	GIPUZKOA	BIZKAIA
Ezkontidearen edo izatezko bikotearen aldeko ekarpenak (8.000 euro baino gutxiagoko sarrerak badituzte)	Zerga oinarriaren murrizpenaren mugak, Pentsio-planetara eta Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundeetara egindako ekarpenei dagokionez (eurotan)		
	2.000	2.000	2.404,05

	ARABA	GIPUZKOA	BIZKAIA
Ezintasunak dituzten pertsonen aldeko ekarpenak: - %65eko edo handiagoko ezintasun maila izatea. - Ehuneko horiek izan ez arren, epaileak edo epai batek hala adierazten badu. Ekarpen egileak: - Ezintasunak dituzten pertsonak. - Lerro zuzeneko edo alboko senideak, hirugarren graduraino. - Ezkontidea eta zaintzapean edo harreran hartuta daudenak.	Zerga oinarriaren murrizpenaren mugak, Pentsio-planetara eta Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundeetara egindako ekarpenei dagokionez (eurotan)		
	Ekarpenak, pertsonako (ezintasunik ez dutenena)		
	8.000	8.000	8.000
	Ekarpenak, guztira (ezindua dagoen pertsonak egindakoak barne)		
	24.250	24.250	24.250

PENSIO-PLANEN ETA BORONDATEZKO GIZARTE AURREIKUSPENEN ERAKUNDEEN PRESTAZIOEN ZERGA-ERREGIMENA

Zerga-erregimena	PFEZaren zerga oinarriko atal honetan jasotzen dira: lanaren etekinetan	
Prestazioa jasotzeko modua		
Kapitala	%60 (2 urte eta egun bat igaro badira lehen ekarpena egin zenetik. Baliaezintasunagatik prestazioek ez dute eperik eskatzen).	
Errenta	100%	
Mistoa (kapitala eta errenta)	Kapitala: %60	Errenta: %100

Iturria: Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundearen Federazioa. Geuk moldatua.

OHARRAK:

- Zerga-oinarriari egindako murrizpenen mugak pentsio-planetara eta Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundeetara egindako ekarpenen baturari aplikatuko zaizkio.
- Zerga-oinarria murrizteko erabili ezin izan diren zenbatekoak hurrengo bost zerga-ekitaldietako zerga-oinarriak murrizteko erabili ahalko dira.

Pentsio-planetak eta BGAEetako inbertsiogileen profila

Gizarte Segurantzako erretiro-prestazioak osatzeko asmoa duten pertsonak.

Halaber, egokiak izan daitezke PFEZan desgrabatzeko premia duten pertsonentzat.

Pentsio-planen alde onak eta alde txarrak

ALDE ONAK

1. Langileek (edo enpresek langileen alde) egindako ekarpenek errenta-aitorpenean aitortu beharreko diru-sarrerak murrizten dituzte.
2. Murrizpenaren gehienezko muga 8.000 eurokoa da zergaduneko eta urteko, eta, lehen adierazi dugunez, muga hori handitu egiten da urtez urte, 65 urte bete arte.

ALDE TXARRAK

1. Ekarpinak ezin dira berreskuratu titularra erretiratu, baliaezintasun-egoeran geratu edo hil arte; honako kasu honetan izan ezik: gaixotasun larriren bat badu edo epe luzeko langabezia badago. Beraz, produktu horietan epe motzean edo ertainean behar ez den dirua inbertitu behar da.
2. Pentsio-planek ez dute ogasunari ordaintzea ekiditen; aitzitik, ordainketa geroratzen dute: planei dagozkien prestazioak jasotzean, horiek laneko etekin moduan aitortu beharko dira PFEZan, baita horiek herentzia baten bidez jasotakoak badira ere.
3. Ezarritako mugetatik haragoko ekarpenak eginez gero, muga gainditzen duen zatia ezingo da urte horretako errenta-aitorpenean murriztu (bai, ordea, hurrengo bost urteetan).

2.5. INBERTSIO-FUNTSAK

Inbertsio-funtsak pertsona partikularren aurrezkiak bildu, eta balore-zorro handiak osatzeko egiten dira. Finantza-arloko profesionalak kudeatzen dituzte, eta horien helburua funtseko partaideei likidezia eskaintzea da, baita baloreak normalean pertsona partikularren eskura izaten ez diren prezioetan erostea eta saltzea ere.

Funts horietan sartzeko, partaidetzak erosi behar dira. Horien bidez, aurreztaileak funtseko bazkide egiten dira. Partaidetzen balioa igo eta jaitsi egiten da, eta, ondorioz, irabaziak edo galerak –aldi baterako– izan daitezke, jasotako errentagarritasunaren eta egindako ekarpenen arabera. Zeharkako inbertsioak direnez, inbertsio-funtsetako etekinak aldagarriak dira, inbertitutako finantza-aktiboen bilakaeraren arabera.

Ezaugarriak

- Antzeko inbertsio- eta arrisku-profileko pertsonak biltzen dituzte.
- Likidezia handiko produktuak dira, harpidedunek edozein unetan sal baititzakete partaidetza batzuk edo guztiak.
- Horien emaitzak inbertitutako finantza-merkatuen bilakaeraren arabera dira.

Inbertsio-funtsen elementuak

1. **Sozietate kudeatzailea:** “Inbertsio Kolektiboetako Erakunde Sozietate Kudeatzaileak” dira, eta Balore Merkatuko Komisio Nazionalaren (CNMV) berariazko erregistroan inskribatuta egon behar dute. Sozietate kudeatzaileak inbertsio-funtsaren ondarea kudeatzen du, eta horren egoeraren erantzule da partaideen aurrean.
2. **Erakunde gordailuzaina:** funtseko baloreak zaintzen ditu, haren altxortegia gordailatzen du, eta sozietate kudeatzaileak egindako eragiketak ikuskatzen ditu. Bankuek bete ohi dute funtzio hori.

3. **Partaideak:** funtsera ekarpenak egiten dituzten pertsona fisiko edo juridikoak dira. Horien jabetza-eskubidea partaidetza-ziurtagiri baten bidez adierazten da. Inbertsioei buruzko erabakiak hartzeko eskumena sozietate kudeatzaileko profesional talde baten esku uzten dute.

Inbertsio-funtsen motak

Funts aukera zabala dago merkatuan, eta, ondorioz, erraza da inbertsiogileen nahiak asetzea, inbertsioen epeari eta arriskuari dagokionez, batik bat.

• **FIAMM. Diru Merkatuko Inbertsio Funtsak.**

Diru-merkatuaren epe motzeko finantza-aktiboetan inbertitzen dute; esaterako: altxorren letretan, berrerosketa hitzarmendun eragiketetan (repo deitu ohi zaie), eta enpresa ordaindukoetan.

FIAMM funtsak arrisku txikikoak dira, horietan eragiketa gutxi egiten baitira; baina, ordainetan, errentagarritasun txikia ematen dute. Funtsmota horiek egokiak dira arriskurik hartu nahi ez duten aurreztaileentzat, eta saldoak errentagarri epe motzean egin nahi dituztenentzat.

• **FIM. Balore Higarrietako Inbertsio Funtsak.**

FIAMM funtsek baino balore gehiagotan inbertitzen dute. Fondo horien ondarearen %80k gutxienez errenta finko edo aldakorreko baloreez osatuta egon behar du. Balore horiek merkatu arautuetan¹ onartutakoak izan behar dute, bai Espainiakoak, bai ELGako (Ekonomiako eta Lankidetzaren eta Garapenerako Antolakundea) merkatuetakoak.

FIM funtsak zenbait azpitaldetan sailkatzen dira, inbertsioak egiteko erabiltzen dituzten finantza-aktibo mota zein den aintzat hartuta:

¹ Gobernuek baimendu eta araututakoak.

- **Errenta finkoko FIM funtsak**: errenta finkoko tituluetan inbertitzen dute guztia, epe motz, ertain eta luzera. FIAMM funtsek baino arrisku handiagokoak dira, baina, aldi berean, haiek baino errentagarritasun handiagokoak.
- **Errenta finko mistoko FIM funtsak**: inbertsio-zorroaren %70 gutxienez inbertitzen dute errenta finkoan, eta gainerakoa arrisku handiagoko finantza-aktiboetan inberti dezakete.
- **Errenta aldakor mistoko FIM funtsak**: inbertsio-zorroaren %30 eta %70 artean inbertitzen dute errenta aldakorrean. Aurrekoen antzeko funtsak dira, baina tituluaren proportzio handiagoa inbertitzen dute arrisku handiagoko finantza-aktiboetan.
- **Errenta aldakorreko FIM funtsak**: inbertsio-zorroaren %75 baino gehiago inbertitzen dute errenta aldakorrean. Funtsek hauetan, oro har, arriskua bestelakoetan baino handiagoa da, baina errentagarritasun handiagoa eman ohi dute. Burtsan inbertitzen duten pertsonen begira egindakoak dira, eta epe luzerako pentsatuta daude.
- **Nazioarteko FIM funtsak**: aurreko funts multzoen ildoari jarraituz, nazioarteko inbertsio azpitaldeak osatzen dira. Funtsek aktibo eta proportzio beretan inbertitzen dute, baina inbertsio horiek atzerriko baloreetan egiten dituzte. Nolako finantza-aktiboetan eta -merkatuetan inbertitu, halakoa izango da funts horien errentagarritasuna eta arriskua, ez baita gauza bera inbertsioa AEBn egitea edo Tailandian egitea. Gainera, funts horiek badute errentagarritasun-arrisku bikoan eragiten duen beste faktore bat: kanbio-tasa.
- **FIM funts bermatuak**: arriskuak estaltzeko finantza-tresnak erabiltzen dituzte, eta, ondorioz, horien partaideek ez dute arriskurik hartzen beren gain. Kapitala eta errentagarritasuna bermatzen dute, hitzartutako epean. Funtsek berariaz aukeratzen dituzte inbertsioak, bermatutako elementuak (kapitala eta errentagarritasuna) ziurtatzeko. Epe ertain eta luzerako produktuak dira, eta inbertsio-gile kontserbadoreentzat pentsatuta daude. Funtsek horien eragozpen nagusia komisio garestiak dira, batik bat funtsak harpidetza epea igarotakoan eskuratzen badira. Funtsek harpidetza epetik kanpora eskuratuz gero, %5 arteko komisioak ere aplikatu ditzakie harpidedunei.

- **Fondtesoro funtsak.**

Zor publikoaren baloreetan (Altxortegiko Letrak, eta Estatuko Bono eta Obligazioak) inbertitzen dute aktiboen %95 gutxienez. Bi motatako Fondtesoro funtsak daude:

- **Fondtesoro FIAMM funtsak:** oro har, EPE MOTZERAKO inbertsioak egiten dituzte.
- **Fondtesoro FIM funtsak:** oro har, EPE LUZERAKO inbertsioak egiten dituzte (gutxienez, ondarearen %50).

- **Beste funts-mota batzuk.**

- **Balore higiezinetakoko inbertsio-funtsak:** inbertsio-funts berriak dira, eta, horien bidez, kudeatzaileek higiezinak (etxebizitzak, merkataritzarako lokalak, etab.) erosten inbertitzen dute, horiek hirugarren pertsona batzuei alokatzeko.

Funts horiek ezin dute higiezinaren sustapenik egin, baina higiezinaren salmenta kontrolatuak egin ditzakete, eta egindako ekarpenen itzulketa eska dezakete horien partaideek.

Balore higiezinetakoko funtsak epe luzerako inbertsioak dira, oso seguruak, baina balore higigarrietako funtsek baino likidezia txikiagoa dute.

Balore higiezinaren hiru funts-mota daude:

- a) Etxebizitza-funtsak: higiezinaren aktibo guztiak (gehienez, aktiboen %90 izan daitezke) etxebizitzetan inbertitzen dituzte.
 - b) Funts mistoak: higiezinaren aktibo guztien, gutxienez, %50 etxebizitzetan inbertitzen dituzte.
 - c) Funts libreak: funtsaren aktibo guztien, gutxienez, %50 etxebizitzetan inbertitzen dituzte.
- **Hipoteka titulizazioko funtsak:** “titularizazioaren” bidez, banku eta aurrezki-kutxek hipoteka multzoak (bezeroei emandako hipoteka-maileguak) egiten dituzte, eta funtseko partaideei “saltzen” dizkiete. Inbertsiogileek jasotako errentagarritasuna hipoteka-maileguen batez besteko tasari dagokiona da (bankuaren komisioa kenduta), eta horien arriskua hipotekak ez ordaintzearena da.

Komisioak

Oro har, inbertsio-funtsek lau komisio mota hauek izan ditzakete:

1. Harpidetze-komisioa. Gordailuan jarritako kapitalari aplikatzen zaio, partaidetzak erosten diren bakoitzean. Fondtesoro funtsetan ezin da komisio mota hau aplikatu; gainerako funtsetan %5eko komisioa aplikatu daiteke, gehienez. Komisio hau funts bermatuetan aplikatzen da.
2. Errenbolto-komisioa. Itzultako kapitalari aplikatzen zaio, partaidetzak saltzen diren bakoitzean. Funts bermatuetan izan ezik, funts gehienek kentzen dute komisio hau urtebete igaro ondoren. Komisio honen helburua epe motzeko inbertsioak zigortzea da. Errenbolto-komisioa ezingo da partaidetzen prezioaren %5 baino handiagoa izan. Komisio hau oso gutxitan aplikatzen da Espainian.
3. Kudeaketa-komisioa eta gordailu-komisioa. Erakunde kudeatzaileek eta gordailuzainek jasotzen dituzte emandako zerbitzuen ordainetan. Likidazio balioan adierazita daude, egunero aplikatzen baitzaizkie funtsen ondareei. Funttsaren kudeatzaileak kobratzen du kudeaketa-komisioa, inbertitutako kapitala kudeatzeagatik, eta, gordailu-komisioa, berriz, erakunde gordailuzainak kobratzen du- inbertsio-funtsak eskuratutako aktiboak zaintzeagatik.

Honako hauek dira funtsei aplikagarri zaizkien komisioen gehienezko mugak:

	Harpidetze-komisioa	Errenbolto-komisioa	Kudeaketa-komisioa	Gordailu-komisioa
FIM funtsak	%5	%5	%2,25	%0,2
FIAMM funtsak	%1	%1	%1,0	%0,15
Fondtesoro FIAMM funtsak	%0	%0	%1,5	(1)
Fondtesoro FIM funtsak	%0	%2 (*)	%1,75	(2)

Iturria: www.basefinanciera.com

(*) Fondtesoro FIM funtsen gehienezko errenbolto-komisioa %2koa da, lehen bi urteetan. Gero, %0koa izango da.

- (1) Urtean kobratutako komisio eta gastuen batura ezingo da %1,50 baino handiagoa izan.
- (2) Urtean kobratutako komisio eta gastuen (besteak beste, kudeaketa komisioa, gordailu komisioa, auditoriak, eta administrazio gastuak) batura ezingo da %1,75 baino handiagoa izan

Zerga-erregimena

Aurrezkiak funtsetan inbertitzearen alde onetako bat produktu horien zerga-erregimen onuragarria da; izan ere, beste produktu batzuek baino erregimen fiskal hobea dute. Ildo horretatik, ondarezko etekintzat jotzen direla aipatu behar da; eta, ondorioz, plusbalioak (irabaziak) minusbalioekin (galerekin) konpentsa daitezkeela.

Inbertsio-funts bateko edo batzuetako partaidetzak eskuratuz gero, horiek saltzean soilik ordaindu beharko dira zergak; betiere, irabaziak lortu badira. Beraz, inbertsio-funtsek ez dute zerga-ondoriorik partaidetzak eskuratzean; eta, horren harian, ez da zergarik ordaindu behar funtsen arteko intsuldaketa edo aldaketetan izandako irabaziengatik.

Partaidetzak saltzean ordaindu beharreko zergak horien antzinatasunaren arabekoak izango dira:

- a) Urtebete baino gehiagoko partaidetzak: izandako irabazien %15 ordaindu beharko zaizkio ogasunari.
- b) Urtebete baino gutxiagoko partaidetzak: izandako irabazi guztiengatik ordaindu beharko dira zergak (osorik jasotzen dira PFEZaren zerga oinarrian).

Inbertsio-funtsetako partaidetzak saltzean, irabazien %15eko atxikipena egiteko obligazioa dute entitate kudeatzaileek, partaidetzen antzinatasuna aintzat hartu gabe. Atxikipen hori ogasunari aurretiaz ordaintzeko modua da, lehen adierazi dugunez, partaidetzak saldu eta hurrengo urteko errenta aitorpenean azaldu beharko baitira izandako irabaziak.

Inbertsio-funts bereko partaidetzak egun desberdinetan erosiz gero, argitu egin behar da zein den saldutako partaidetzen antzinatasuna. Egoera horretan, ogasunak FIFO (First In First Out) sistema aplikatzen du; hau da, erositako lehen partaidetzak dira, zerga-ondorioetarako, saldutako lehenak.

Inbertsiogileen profila

Inbertsiogile profil guztietarako aurrezki-produktuak dira. Horien bidez, aurreztaile partikularrek aurrezki kolektiboaren onurak jasotzen dituzte, eta beren kabuz eskuraezinak lituzketen merkatuetan negozioak egiteko aukera dute.

Inbertsio-funtsen alde onak eta alde txarrak

ALDE ONAK

- **Likidezia**. Partaidetzek likidezia osoa dute (balore higiezinetakoa inbertsio-funtsetako partaidetzak izan ezik). Edozein unetan sal daitezke, eta errenboltsorako epe bermatuak izaten dituzte, egun bat baino txikiagokoa FIAMM funtsetan, eta hiru egunekoa FIM funtsetan. Horri aurre egiteko, funtsek ondarearen %3 likidezia egoeran edo finantza-aktibo likidotan izateko obligazioa dute.
- **Malgutasuna**. Partaidetzak edozein une eta kopurutan eros daitezke.
- **Dibertsifikazioa**. Inbertsio-funtsen partaidetzak erosiz gero, finantza-aktibo ugariaren zati proportzional bat eskuratzen da. Horrenbestez, inbertsiogile partikularrek zabaldu egin ditzakete inbertsioak, eta, ondorioz, errazago kudea dezakete arriskua.
- **Eskalako ekonomiak**. Ondare txiki ugari biltzen dira funtsetan, eta, ondorioz, komisioak aurrezten dira, eta ondare txiki horiek beren kabuz nekez eskura zitzaketen titulu edo baloreak eskuratzeko aukera sortzen da.
- **Gardentasuna**. Egunero argitaratzen dira inbertsio-funtsen likidazio-balioak. Horrez gain, erakunde kudeatzaileek kudeaketa-txosten zehatz bat bidali behar diete funtsen partaide guztiei.
- **Zerga-erregimena**. Inbertsio-funtsetan inbertitzeak onura fiskal handiak ditu.

2.6. BANKU-BITARTEKARITZAKO ZERBITZUAK

Bankuen egiteko bakarra ez da bezeroei aurrezki-produktuak eskaintzea. Horrez gain, bezeroen eta beste erakunde batzuen arteko **bitartekariak** dira, finantza-aktiboen salmentak eta erosketak egiten baitituzte.

- **Burtsa.** “Burtsa merkatuetan” biltzen eta antolatzen dira enpresa handien akzioen eskaintza eta eskaria. Burtsak errenta aldakorreko tituluak (akzioak) erosteko aukera ematen die aurreztaileei. Titulu horiek berme juridikoa eta ekonomikoa duten enpresa handiek jaulkitzen dituzte, eragiketa-mota horiek negoziatzeko eta likidatzeko ezarritako arauak bete behar baitituzte.
- **Errenta finkoa.** Erakunde publikoek eta enpresek jaulkitako tituluak dira, eta aurrez ezarritako errentagarritasuna dute (interestasa).

OBLIGAZIOEN ETA AKZIOEN ARTEKO DIFERENTZIAK

OBLIGAZIOAK (errenta finkoa)	AKZIOAK (errenta aldakorra)
Diru-premiei aurre egiteko, “sozietate jaulkitzaile” batek obligazio kopuru jakin bat jaulkitzen du.	Sozietateren batek “burtsara ateratzen” du haren kapitalaren zati bat.
Titulu amortizagarriak dira.	Ez dira amortizatzeko sortzen, erosleak akziodun egiteko baizik.
Obligaziodunak sozietate jaulkitzailearen hartzekodun dira.	Akziodunak sozietate jaulkitzailearen jabekide dira.
Obligazioak sozietate jaulkitzailearen “jesapen” baten zati alikuotak dira.	Akzioak sozietatearen kapitalaren zati alikuotak dira.
Errenta finkokoak dira, eta interestasa jakin bat ematen dute, sozietatearen emaitzak edozein izanda ere.	Errenta aldakorrekoak dira, beraz, horien errentagarritasuna sozietatearen emaitzei lotuta dago.
Erakunde publikoek eta merkataritza-erakundeek jaulki ditzakete obligazioak.	Sozietate anonimoek soilik jaulki ditzakete.

- **Deribatuak (nazionalak eta nazioartekoak)**

ETORKIZUNEKOAK: araututako burtsa edo merkaturen batekin hitzartutako akordioak dira. Akordio horiek etorkizunean ondasun-edo balore-kopuru bat erosteko edo saltzeko obligazioa ezartzen die kontratugileei. Horien prezioa aurretik ezarritakoa izango da.

AUKERAK: bi aldeko kontratuak dira, eta, horien bidez, alde batek aktibo edo balore baten kopuru jakin bat erosteko edo saltzeko eskubidea (ez, ordea, obligazioa) eskuratzen du bestearengandik. Erosketa edo salmenta hori etorkizuneko epe jakin batean egin beharko da, eta prezio jakin batean.

3 - KREDITU-ERAGIKETAK EDO AKTIBOKOAK

3. KREDITU-ERAGIKETAK EDO AKTIBOKOAK

- 3.1. Hipoteka-mailegua
- 3.2. Kontsumorako mailegua
- 3.3. Kontsumorako kreditua
- 3.4. Kontsumo-kontratuei lotutako maileguak:
finantziaziodun salmentak
- 3.5. *Leasinga*
- 3.6. *Rentiga*

Hona hemen zer den kreditu-eragiketa bat: banku-erakunde batek (**mailegu-emailea**) pertsona fisiko edo juridiko bati (**mailegu-hartzailea**) **diru-kopuru bat ematea** (edo diru-kopuru bat eskuragarri izateko aukera), komisio eta interes jakin batzuen truke, epe baterako (epe hori igarotakoan, itzuli egin beharko da jasotako dirua).

Oro har, kreditu-eragiketak bi motatakoak dira:

- **Maileguak**: aurrez erabakitako diru-kopuru jakin bat eskuragarri izatea da horien ezaugarri nagusia.
- **Kredituak**: gehienezko diru-muga bat eskuragarri izatea da horien ezaugarri nagusia.

Halaber, **maileguak**, bi motatakoak izan daitezke: **hipoteka-maileguak** eta **kontsumorako maileguak**.

Horrenbestez, hiru “banku-kreditu” mota defini daitezke:


- **HIPOTEKA-MAILEGUA**: zordunaren erantzukizun pertsonalaz gain, higiezin baten HIPOTEKA da kreditu-erakundeari ematen zaion bermea, hark mailegu bat eman diezagun. Normalean, mailegu hori hipotekatutako higiezin erosteko erabiltzen da.
- **KONTSUMORAKO MAILEGUA**: mailegu horien eskatzaileek berriazko finantziazio-premiak izaten dituzte, eta diru-kopuru jakin bat (kapitala) eskatzen diete kreditu-erakundeei. Diru-premia hori zehatza da: auto bat erosteko behar dute, oporretara joateko, ikasketak egiteko, etab. Etxebizitza bat erosteko ere erabil daiteke,

higiezinik hipotekatu nahi ez bada. Kontsumorako mailegutan hipoteka-mailegutan baino interes-tasa handiagoak aplikatu ohi dira.

- **KONTSUMORAKO KREDITUA**: hura eskatzeko interesa duenak aldi batean diru-premia jakin bat izango duela aurreikusten du, baita, diru-premia hori, uneren batean, gehienezko kopuru batekoa izan daitekeela. Gehienezko kopuru hori eskatutako kredituaren gehienezko muga izango da.

Egia da finantza-erakundeari gastu edota inbertsioen aurreikuspena aurkeztu beharko zaiola, baina, edonola ere, diru-funts horien aplikazioa mailegutan baino askoz malguagoa izaten da.

Kontsumorako kredituetako eragiketak egitea maileguetakoak egitea baino errazagoa da, bankuek horien eskatzaileengan duten konfiantzan oinarritzen baitira.



BANKU-KREDITUAK
lanbidezkoak ez diren erabileretarako

HORIEI ARTEKO DIFERENTZIA NAGUSIAK

<p align="center">HIPOTEKA- MAILEGUA</p>	<ul style="list-style-type: none"> * Interes-tasa txikiagoak * Baldintza zurrunagoak (negoziatzeko aukera txikiagoak) * Normalean, hipotekatutako higiezin erosteko; baina, berez, edozertarako * Formalizazioa: notario aurrean egindako eskritura
<p align="center">KONTSUMORAKO MAILEGUA</p>	<ul style="list-style-type: none"> * Interes-tasa ertainak * Helburu zehatza dute: ondasun edota zerbitzu bat erostea (saltzaileek beraiek ere eman ohi dituzte finantziatio-aukerak) * Formalizazioa: banku-erakundeak emandako poliza. Diru-kopuru handia bada, merkataritzako fedemaile batek parte har dezake
<p align="center">KONTSUMORAKO KREDITUA</p>	<ul style="list-style-type: none"> * Interes-tasa handiagoak * Baldintza malguagoak (negoziatzea eta banku-erakundearekin harreman ona izatea aurreko kasuetan baino garrantzitsuagoa da); * Formalizazioa: banku-erakundeak emandako poliza. Diru-kopuru handia bada, merkataritzako fedemaile batek parte har dezake

Hiru kreditu-mota horiei dagokionez, bada horien arteko alde nabarmen bat: hipoteka-maileguak ESKRITURA PUBLIKOAN jaso behar dira. Horrek esan nahi du notarioaren parte-hartzea behar dela horiek egiteko, eta Jabetza Erregistroan inskribatu behar direla.

Aldiz, kontsumorako maileguak eta kredituak MAILEGU- EDOTA KREDITU-POLIZAK harpidetuz formalizatzen dira. Kasu horietan ere, posible da merkataritzako fedemaile baten parte-hartzea behar izatea.

Eskritura edo poliza izan, kreditu-erakundeak aldeztu aurretik izan behar ditu prest horiei dagozkien kontratu-ereduak. Ildo horretatik, “atxikimendu-kontratuak” dira, eta bezeroek onartu behar dituzte bankuek aurretiaz ezarritako baldintza horiek.

• **BESTE MAILEGU-MOTA BATZUK**

“Oinarrizko” modalitate horiez gain, banku-erakundeek eskaintzen dituzte beste finantzazio mota batzuk ere:

- Finantziatiodun salmentak.
- *Leasinga*
- *Rentinga*
- Kreditu-txartelak (ikusita Beste Banku Eragiketa Batzuk: banku-txartelak).

Kreditua, beraz, kontsumitzaileek dirua lortzeko erabiltzen duten eragiketa nagusietako bat da gaur egun.

Kreditu-erakundeek “kanpo-finantziazioa” lortzen laguntzen diete herritarrei, eta, gaur egun, geroz eta familia gehiagok jotzen dute finantziario-bide horretara. Hori ikusita, zenbait erakunde publikok eta elkartek familien gehiegizko zorpetzearen arriskuaz ohartarazi dute.

Hori dela eta, gehiegizko zorpetzeari buruz arituko gara gida honetako VI. kapituluan. Kapitulu horren helburua hau izango da: familien gehiegizko zorpetzea kontrolatu beharra dagoela adieraztea gizarteari.

3.1. **HIPOTEKA-MAILEGUA**

Hipoteka-mailegua: eskatu aurretik aintzat hartu beharreko alderdiak, eta tramiteen segida kronologikoa

HIPOTEKA-MAILEGUA mailegu-mota berezia da, eta haren hartzaileak, erantzukizun pertsonalaz gain, HIPOTEKA-BERME bat ematen dio mailegu-emaleari (bankuari).


Alderdi juridikoari dagokionez, honela definitzen da HIPOTEKA: *obligazio bat beteko dela bermatzen duen eskubide erreala, ondasun jakin baten gainekoa*. Hortaz, hipoteka-maileguaren hartzaileak ez badu hura itzultzeko obligazioa betetzen, hipotekatutako ondasunaren balioaz egin beharko dio aurre ordainketari.

Horrenbestez, mailegu-hartzaileak ez badu kapitala edo/eta interesak itzultzeko konpromisoa betetzen, HIPOTEKAK betearazpen bereziko epaiketa bati ekiteko aukera emango dio bankuari, eta, ondorioz, hipotekatutako ondasunaren balioaz kobratu ahal izango du mailegu-zorra.

Hipotekek, oro har, ondasun higiezinak lotzen dituzte; eta hipoteka bermedun maileguak, normalean, hipotekatutako higiezinaren erosteko erabiltzen dira (higiezin horiek, gehienetan, etxebizitzak izaten dira).

Hala ere, hipoteka-maileguak izan dezakete higiezin bat erosteaz besteko helbururik. Zenbait pertsonak, jada etxebizitza baten jabe izanda, epe luzearako mailegua edo kreditu bat behar izaten dute beste helburu batzuetarako. Hori lortzeko bide azkar bat etxebizitza edo beste ondasun higiezin baten hipoteka egitea da.

HIPOTEKA da bankuek maileguetan lor dezaketen berme handiena, mailegua itzultzeko konpromisoa betetzen ez bada, hipotekatutako ondasunaren balioaz erantzun beharko baitu zordunak. Bankuaren arriskuak berme handiagoa duenez, hipoteka-maileguak beste mailegu batzuk baino merkeagoak izaten dira. Mailegu horiei aplikatzen zaizkien interes-tasak askoz txikiagoak dira.



Horrenbestez, HIPOTEKA-MAILEGU eskatzaileak, normalean, higiezin bat erosteko asmoa izaten du. Orobat, higiezin hori bera izaten da hark bankuari ematen dion bermea, mailegua eman diezaion.

Hipoteka-maileguak **notario aurrean egindako eskritura publikoan** formalizatu behar da, eta, ondoren, **Jabetza Erregistroan** inskribatu. Tramite horiek guztiak nahiko garestiak dira, eta mailegu-hartzaileak ordaindu behar ditu.

Etxebizitza berrien sustatzaileek edo eraikitzaileek finantzazio-bideak bilatu ohi dituzte, inbertitzaileei eskaintzeko. Gainerako kasuetan, interesatuak berak bildu beharko du merkatuak eskaintzen dituen finantzazio-bideei buruzko informazioa, eta hark kontratatu beharko du bere inbertsio-egitasmoari hobekien egokitzen zaion mailegua.

Hipoteka-mailegua eskatzea herritar arruntek bizitzan har dezaketen erabaki garrantzitsuenetakoa da, diru-kopuru handiko eta epe luzerako eragiketak izaten baitira. Mailegu-eskatzaileak egungo eta etorkizuneko finantza-egoeraz hausnartu behar du; hau da, bi alderdi hauei erreparatu behar die: pilatutako aurrezkiei, eta etorkizunean diru-sarrerak eskuratzeko izango duen gaitasunari. Bestela esanda, ZORPETZEAREN GEHIENEZKO MUGA zehaztu behar du.

Finantza-erakundeek, oro har, oinarrizko bi faktore hauei begiratzen diete hipoteka eragiketei buruzko erabakiak hartzeko:

- 1.- Etxebizitzaren tasazio-balioa.
- 2.- Mailegu eskatzailearen zorpetze-ahalmena.

Aintzat hartu behar ditugu erreferentzia hauek, baliagarriak izango baitzaizkigu:

- Normalean, hipoteka-maileguk ez dute etxebizitzaren prezio osoa estaltzen; aitzitik, tasazio-balioaren gaineko portzentaje bat ematen dute (oro har, %70-80). Hortaz, mailegu eskatzaileak tasazio balioaren %20-30 izan beharko du aurreztuta. Kalkulu horretan sartu beharko dira mailegu- eskaerak berak sortzen dituen gastuak ere.

- Zenbait ikerketek hau aholkatzen dute: maileguan eskatu beharreko kapitala kalkulatzeko, diru-sarrerei erreparatzea. Ildo horretatik, hipoteka-maileguaren kuotek (mailegua amortizatzeko/ itzultzeko eta interesak ordaintzeko jarritakoa) ez lukete eskatzailearen diru-sarreraren %35ari edo %40ari dagozkionak baino handiagoak izan behar.
- Maileguaren epea da aintzat hartu beharreko beste alderdi bat. Epea zenbat eta luzeagoa izan (hogeita hamar urtekoa ere izan daiteke), orduan eta txikiagoa izango da kuota. Alabaina, diru gehiago ordaindu beharko da maileguagatik (interesak).

HIPOTEKA-MAILEGUEN TRAMITEEI EKIN BAINO LEHEN, beraz, bada aurretiazko fase bat, garrantzi handikoa eta korapilotsua, arreta handiz prestatu beharrekoa: maileguaren printzipala, epea eta kuota zehaztearena.

Lehen urratsa kreditu-erakunde bat baino gehiagotan galdetzea da, hipoteka-mailegu onenak nork eskaintzen dituen jakiteko.

Hipoteka-mailegua itzultzeko ahaleginak baldintzatuko du mailegu-hartzailearen etorkizuna, zenbait urtetan. Beraz, beharrezkoa da alderdi hauek lasai eta sakon aztertzea: eskura ditugun baliabide ekonomikoak, izango ditugun gastuak, aurrezteko ahalmena, eta gure egoerari hobekien egokitzen zaizkion kreditu-baldintzak.

HIPOTEKA-MAILEGUA ESKATU AURRETIK AINTZAT HARTU BEHARREKO ALDERDIAK



Kreditu-erakundeek informazioa eman behar diote hipoteka-mailegua eskatzeko interesa duenari; horretarako, horri buruzko “INFORMAZIO-LIBURUXKA” eman behar diote, ezinbestean.

Kreditu-erakunde orok doan eman beharreko «**INFORMAZIO-LIBURUXKA**» horrek, kreditu-erakundeak eskainitako hipoteka-maileguei buruzko informazio hau jaso behar du, gutxienez:

1. *Maileguaren izena:*

Izen komertziala. Maileguan ematen den gehienezko diru-kopurua, hipotekatutako higiezinaren tasazio-balioarekiko. Mailegua zer monetan emango den (eurotan ez bada soilik).

2. *Amortizazio-epea:*

- Epe osoa. Printzipala amortizatu gabe (interesak ordainduko ditugu soilik) igaro daitekeen gehienezko epea.

Mailegua itzultzeko ezarritako epea da. Diru-kopuru handiko eragiketak izaten direnez, epeak oso luzeak izaten dira –hogeita hamar urte artekoak izan daitezke–. Epe hori zenbait irizpideren arabera finkatzen da; besteak beste, kreditu-erakundearen merkataritza-politika eta eskatzailearen adina. Beste titular baten edo abal-emaile baten laguntzarekin ez bada, hirurogei urteko pertsona batek nekez lor dezake 25 urterako mailegua.

- Kuoten aldizkakotasuna eta amortizazio-sistema.

3. *Interes-tasa:*

Interes-tasa mota: finkoa ala aldakorra

Interes-tasa aplikagarria:

- ➔ Tasa finkoa: beti interes-tasa bera ordainduko da.
- ➔ Tasa aldakorra: interes-tasa aldatu egingo da, erreferentziatzko indize edo tasa baten aldaketari egokituz. Alderdi hauek zehaztu beharko dira:

- Erreferentziazko indizea edo tasa (gutxienez, azken bi urte naturaleran izan duen bilakaera, eta egungo balioa).
- Tasaren eta erreferentziazko indizearen arteko aldea.
- Interes-tasa berrikusteko epea (lehen berrikuspena noiz egingo den, eta ondorengo berrikuspenen aldizkakotasuna).

“Urteko Tasa Baliokidea - UTB” (Maileguaren kostu erreala). Tasa horrek izan ditzakeen aldaketak adierazi beharko dira, gutxi gorabehera. Tasa aldakorreko mailegutan hau adierazi beharko da: *“interes-tasaren berrikuspenarekin batera aldatuko da”*.

4. *Aplika daitezkeen komisioak:*

Bi komisio aplikatu ohi dira, nagusiki: “irekitze-komisioa” eta “kitapen edo amortizazio aurreratuagatiko komisioa”. Bi komisio horiek gehienezko mugak dituzte, eta aurrerago aipatuko ditugu.

5. *Mailegu-bartzaileak ordaindu beharreko gastuak:*

Berariaz adierazi behar dira mailegu-eskatzailak ordaindu beharko dituen gastuak (esaterako, higiezinaren tasazio-gastuak); nahiz eta, azkenean, mailegua formalizatu ez.

Azaldu beharrekoa da, halaber, bezeroak duela higiezinaren tasazioa, kudeaketa eta bertako aseguruia egingo dituen enpresa nor izango den proposatzeko eta aukeratzeko eskubidea. Hala ere, erabakia bankuarekin adostu beharko da.

6. *Aldizkako kuoten zenbatekoa.*

Liburuxkak aldizkako kuoten taula jaso beharko du. Taula hori bankuak eskaintako amortizazio-epeen eta interes-tasen arabera zehaztu beharko da.

Kuotaren zenbatekoa ez da bera izango mailegua amortizatzeke sistema bat aukeratu, ala beste sistema bat aukeratu.

- **Kuota konstanteen sistema:** kuota bera ordainduko da (hiler, hiru hilean behin, urtero) maileguaren mugaeguna iritsi arte. Hau da finantza-erakundeek gehien erabiltzen

duten sistema. Sistema honen bidez, mailegua ordaindu ahala, amortizatutako kapitala handitu egiten da, eta interesengatik ordaindu beharreko kopurua murriztu.

- **Kuota aldakorreko sistema.** Ordaindu beharreko kuotaren zenbatekoa aldatu egiten da:
 - *Kapital aldaezineko kuotak.* Kuota guztiek mailegu zati bera amortizatzen dute, eta, bien bitartean, interesak murriztu egiten dira. Hau da, kuotak ordaindu ahala, horien zenbatekoa txikitu egiten da. “Kuota beherakorren sistema da”.
 - *Kapital gorakorreko kuotak.* Ordainketa progresiboko sistema da, ordaindu beharreko kuota handitu egiten baita. Maileguaren hasierako urteetan gutxiago amortizatzen da mailegua, eta urtez urte kuota handiagoa ordaindu behar da. “Kuota gorakorren” sistema da.

“Informazio-liburuxketako” eskaintzak konparatu ondoren, bat aukeratu beharko dugu, eta orduan egin beharko dugu hipoteka-maileguaren “behin betiko eskaera”.

Eskaera egin bezain laster, bankuek zenbait berme eskatuko dizkigute, bai pertsonalak, bai higiezinari dagozkionak. Horiek guztiak agirien bidez justifikatu beharko dira.

Eskaera aztertzean, bankuak hipotekatu beharreko higiezinaren “tasazioa” eskatuko du, emandako bermearen balioespena izateko. Lehen esan dugun moduan, bankuak berak eskatzen dio enpresa bati tasazioa egitea, baina horren kostua eskatzaileak ordaindu behar du.

Horrela adieraz dezakegu hori guztia, eskema bidez:

HIPOTEKA-MAILEGUAREN TRAMITEEN SEGIDA KRONOLOGIKOA											
AURRE-TRAMITAZIOA		AKORDIOA		MAILEGUAREN ONARPENA	MAILEGUAREN ITZUIKETA						
1	<p>BEHIN BETIKO ESKAERA →</p> <ul style="list-style-type: none"> -Errenta-aitorpena -Azken nominak (-Ondarearen gaineko zerga) -Saleroketa-kontratu pribatua 	2	<p>ESKAERAREN AZTERKETA →</p> <p>(besteak beste, HIGIEZINAREN TASAZIOA egingo da)</p>	3	<p>MAILEGU-ESKAINZA LOTESLEA →</p> <p>(datuzko eskaintza. Hamar eguneko balioa)</p>	4	<p>MAILEGU-KONTRATUA →</p> <p>(NOTARIO AURREAN EGINDAKO ESKRITURA PUBLIKOA)</p>	5	<p>KAPITAL/PRINTZIPALA ENTREGATzea →</p>	6	<p>AMORTIZAZIO-KUOTAK</p> <ul style="list-style-type: none"> * KAPITALA * INTERESAK * BERANDUTZA-INT. * AMORTIZAZIO AURRERATUAGATIKO KOMISIOA
<p>PARTIKULARRAK:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Arrazoi - Kapitala - Epea - Kuota-mota - Emandako bermea: HIPOTEKATU BEHARREKO HIGIEZINA 		<p>KREDITU-ERAKUNDEAK:</p> <p>BALDINTZAK</p> <ul style="list-style-type: none"> * ESKAERAN JASOTAKOAK - Kapitala - Epea * BANKUAREN ERABAKIZ - Interes-tasa - Irekitze-komisioa - Erregistroko egiaztapen- edota tramitazio-gastuak - Etebizitza-asegunea eta bizitza-asegunea, - Beste eskaera batzuk; nomina helbideratzea. - Amortizazio aurreratuagatikoko komisioa - Ez ordaintzeagatikoko komisioa eta berandutza-interesak 		<p>PARTIKULARRAK/ KREDITU-ERAKUNDEAK:</p> <p>KONTRATUAREN KLAUSULAK</p> <ul style="list-style-type: none"> - Kapitala - Epea - Kuota-mota - Interes-tasa - Irekitze-komisioa - Erregistroko egiaztapen- edota tramitazio-gastuak - Aseguruak - Beste eskaera batzuk - Amortizazio aurreratuagatikoko komisioa - Ez ordaintzeagatikoko komisioa eta berandutza-interesak 		<p>KREDITU-ERAKUNDEAK:</p> <p>kapitala edo printzipala ematea</p> <p>PARTIKULARRAK:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Irekitze-komisioa ordaintzea - Hipoteka-bermea (maileguaren notaritza-eskirituran jaso behariko da) - Bankuak eskutako baldintzak betetzea 		<p>PARTIKULARRAK:</p> <p>Kapitala itzultzea eta interesak ordaintzea</p>			

Hipoteka-maileguak eskatzean aintzat hartu beharreko kostuak

- 1.- Kontratua formalizatu aurreko gastuak.
- 2.- Kontratua formalizatzearen kostua.
- 3.- Mailegu-eragiketen kostua.

1. KONTRATUA FORMALIZATU AURREKO GASTUAK, MAILEGU-ESKAERA egin ondorengoak.

- Higiezinaren tasazioa: kreditu-erakundeak mailegua bermatuko duen higiezinaren balioespena edo tasazioa egitea eskatuko du.

Mailegu-eskatzaileak proposatuko du tasazio hori nork egingo duen. Azken erabakia kreditu-erakundearekin adostu beharko da.

KONTRATUAREN FORMALIZATZEAREN KOSTUA, MAILEGUA ONARTZEAN sortutakoa.

- Irekitze-komisioa: mailegua emateak sortutako azterketa-, kudeaketa- edo tramitazio-gastuek osatzen dute. Maileguaren zenbatekoaren portzentaje batez adierazten da. Komisio hau, normalean, behin bakarrik kobratzen da, kontratua izenpetutakoan. Hala ere, hura maileguarekin batera ordaintzea ere hitzar dezakegu.
- Hipotekatutako etxebizitzaren balizko kalteak estaltzeko aseguru: derrigorrezkoa da aseguru hau kontratatzea. Aseguratutako kapitala tasazio-balioaren adinakoa izan behar du, gutxienez.

Ezbeharririk gertatuz gero, aseguru-etxeak kalte-ordainaren zati bat emango dio mailegu-emaileari, ezbeharra gertatzean indarrean zegoen mailegu-zorra kitatzeko.

Bankuak berak eskaini ohi ditu aseguru-polizak, eta, normalean, bankuaren finantza-talde bereko aseguru-etxearenak edo bankuarekin hitzarmena duen aseguru-etxearenak izaten dira. Halaber, ohikoa izaten da poliza handiagoak eskaintzea, hau da, estaldura handiagokoak (esaterako, higiezina beraz gain, higiezinako ondasunak ere estaltzen dituztenak). Eskatzaileak aseguru-etxea proposatu eta aukeratzeko eskubidea duela adierazi

behar da Informazio-liburuxkan; nahiz eta, azken erabakia mailegu-emailearekin adostu beharko duen.

- Bizitza-asegurua: kontratu honen bidez, aseguru-polizako titularra den pertsona hil edo ezintasun egoeran geratuz gero, aseguru-etxeak maileguan ordaintzeko falta den kapitala ordainduko dio mailegu-emaileari.
- Notaritza-gastuak: (notarioak funts-hornidura bat egitea eskatuko du). Bertan sartuko dira:

i) Notarioak jasoko duen ordainsaria eskritura publikoa egiteagatik. Gastu hori zehazteko zenbait faktore hartzen dira kontuan: hipotekaren balioa, eta eskrituraren orri-kopurua eta kopia-kopurua. Normalean, mailegu-hartzaileak hiru kopia eskatzen ditu; horietako bana ogasunera eta Jabetza Erregistroa eramaten ditu bankuak edo notarioak berak, eta hirugarren kopia mailegu-hartzailearen esku geratzen da.

Ordainsari horretan eskrituren kudeaketa- edota tramitazio-gastuak ere kobratuko dizkigute, lan horiek notaritzak berak egin baditu.

ii) Jabetza Erregistroari dagozkion zenbatekoak, hipoteka inskribatzeagatik.

iii) Eskriturari berari aplikatutako zerga; hau da, *Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zerga*. Zerga horrek notarioaren aurrean egindako egintza juridikoak zergapetzen ditu, besteak beste. Horren zerga-oinarria “hipoteka-erantzukizuna” deritzona da, eta maileguaren kapitala halako bi da, gutxi gorabehera. Euskal Autonomia Erkidegoan aplikatzen den zerga-tasa %0,1 da; alabaina, agiria ohiko etxebizitzarena bada, zergaren ordainketa salbuetsi egiten da Bizkaian eta Araban. Gipuzkoan, zerga-salbuespen hori lortu ahal izateko, ohiko etxebizitza horrek 120 metro koadro edo gutxiago (eraikitakoak) izan behar ditu, eta titularrak Gipuzkoan duen etxebizitza bakarra izan behar du.

Ez dira hain ohikoak, baina honako gastu hauek ere ezar daitezke:

- Erregistroko egiaztapen-gastuak: bankuek eta aurrezki-kutxek higiezinak Jabetza Erregistroan duen egoera egiaztatzen dute, aurretik kargarik ez duela ziurtatzeko; hau da, bermetzat emandako higiezinaz jada hipotekatuta ez dagoela egiaztatzeko.
- Eskrituren kudeaketa- edo/eta tramitazio-gastuak (lan horiek egin dituen notarioa izan beharrez, kreditu-erakunde bera edo gestoria bat izan bada): mailegu-eskritura ogasunean tramitatzeko gastuak, eta hura Jabetza Erregistroan inskribatzeko gastuak dira.

Mailegu-hartzaileak ezin du eskrituraren tramitazio edo gestiorik egin higiezinaren gaineko hipoteka eratu arte, hau da, erregistroan inskribatu arte; izan ere, inskribapena hirugarren batek egitea eskatzen dute bankuek.

HIPOTEKA-MAILEGUA FORMALIZATU AURREKO GASTUAK ETA HURA FORMALIZATZEAREN KOSTUA	
= "DERRIGORREZKO" GASTUAK (beti sortzen direnak)	
•	TASAZIOA
•	HIGIEZINAREN BALIZKO KALTEAK ESTALTZEKO ASEGURUA
•	NOTARITZA-GASTUAK * Notarioaren ordainsariak (eskritura tramitatzeko gastuak jasoko ditu, horiek notaritzak egin baditu; hala ez bada, bankuak berak edo gestoria batek egiten dituzte tramiteok) * Jabetza Erregistroko gastuak * Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zerga (ohiko etxebizitza salbuetsita dago)
•	ESKRITUREN TRAMITAZIO- EDO/ETA GESTIO-GASTUAK (notaritzak egin beharrez, kreditu-erakundeak edo gestoria batek egiten baditu)
= "IA DERRIGORREZKO" GASTUAK (kreditu-erakundeek ia beti eskatzen dituztenak)	
•	IREKITZE-KOMISIOA
•	MAILEGU-HARTZAILEAREN BIZITZA-ASEGURUA
= "BALIZKO" GASTUAK (kreditu-erakundeek inoiz eskatzen dituztenak)	
•	ERREGISTROKO EGIAZTAPENA (logikoena tramite hori higiezinaz erosteko interesa duen pertsonak egitea da; hau da, Jabetza Erregistrora joatea eta "titularitate eta karga ziurtagiria" edo "oharpena" eskatzea)

Hipoteka-maileguaren «FORMALIZAZIO-GASTU» batzuk eskatzaileak ordaindu beharko ditu; nahiz eta, azkenean, kontratua bera formalizatu ez. Bestela esanda, mailegua onartzen ez badu ere, kreditu-erakundeak zenbait gastu kobratuko dizkio eskatzaileari.

Normalean, tasazio-gastuak izaten dira, eta, salbuespenez, erregistroko egiaztapen-gastuak ere kobra daitezke. Gastu horiek guztiak “informazio-liburuxkan” adierazi behar dira.

Hipoteka-maileguak eskatzean, badira eskatzaileek derrigorrez ordaindu beharreko FORMALIZAZIO-GASTU batzuk. Honako hauek dira:

- higiezinaren tasazioa,
- higiezinaren balizko kalteak estaltzeko aseguria,
- notaritza-gastuak (notarioaren ordainsariak, hipoteka Jabetza Erregistroan inskribatzea, eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zerga).

Bizitza-asegurua egitea, legez, ez da derrigorrezkoa; hala ere, banku gehienek eskatzen dute baldintza hori.

Bankuek ezin dute poliza aseguru-etxe jakin batekin egitera derrigortu eskatzailea.

Eskritura izenpetzearekin batera, mailegu-eskatzaileak FUNTS-HORNIKETA bat egin behar du notaritzan.

Diru-kopuru jakin bat (gutxi gorabehera kalkulaturakoa) gordailatzen da notaritza-gastuak, Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zerga eta Jabetza Erregistroko inskribapena ordaintzeko.

3. MAILEGU-ERAGIKETEN KOSTUA

- A. Maileguaren interes-tasa nominala.
- B. Berandutza-interesak edo/eta ez ordaintzeagatiko komisioa.
- C. Amortizazio edo kitapen aurreratugatik komisioa.
- D. Baldintzak aldatzeagatik komisioa.

A.- **Hipoteka-maileguaren interes-tasa nominala** hiru motatakoa izan daiteke: FINKOA, ALDAKORRA edo MISTOA..

a) *Interes-tasa finkoa*. Maileguak beti interes-tasa bera du, eta, ondorioz, bai finantza-erakundeak, bai bezeroak “diruaren interes aldetaren arriskua” hartzen dute beren gain. Interes-tasa orokorrak jaisten badira, bezeroak ez du jaitsiera horren onurarik jasoko maileguan, eta, ondorioz, eragiketa horrek une horretan balio duena baino gehiago ordain dezake. Interes-tasak igotzen badira, ordea, finantza-erakundea izango da kaltetua, ezingo baitio interes-tasek izandako igoera bezeroari jasanarazi.

Interes-tasa finkoak, oro har, epe motzeko mailegutuan aplikatzen dira. Mailegu-mota hau kontratatuz gero, hasieratik jakingo dugu harengatik ordainduko ditugun kuoten zenbateko zehatza. Hala ere, badute alde txarrik ere: amortizazio aurreratugatik komisioa oso handia izaten da.

b) *Interes-tasa aldakorra*. Mailegu-mota hauetan, interes-tasa aldizkakotasun jakin batez aldatzen da (normalean, urtero). Aldaketa hori aldeztetik finkatutako arau batzuei jarraituz egiten da.

Hasieran, interes-tasa jakin bat adosten da, eta hura aplikatzen da aurrez ezarritako epe batez –normalean, 6 eta 12 hilabete artekoa–. Epe hori igarota, interes-tasa aldatu egiten da, adostutako indize baten (EURIBOR, IRPH, etab.) arabera. Erreferentziazko indize horri balio diferentzial bat gehitzen zaio. Balio diferentzial hori positiboa edo negatiboa izan daiteke, eta portzentaje puntutan edo puntu frakziotan adierazten da. Beraz, erreferentziazko indizearen arabera aldatzen da maileguaren interes-tasa nominala. Interes

aldakorreko hipoteka-maileguetan hartu beharreko erabakirik garrantzitsuena horixe da: erreferentziazko indizea aukeratzea; horren arabera izango baitira maileguetatik ordainduko diren interesak.

Finantza-erakundeek eta bezeroek interes-tasen aldaketak dakartzan arriskuak bereganatzen dituzte. Merkatuko interes-tasak txikiak badira, bezeroek gutxiago ordainduko dute horiengatik, eta, oro har, finantza-erakundeek gutxiago irabaziko dute, irabazi-marjinak murriztu egingo baitzaizkie. Interesak handiak badira, bezeroek gehiago ordaindu beharko dute. Interes aldakorreko maileguen interes-tasa merkatuko interes-tasaren aldaketari egokitzen zaionez, bankuek amortizazio-epe luzeak eskaintzen dituzte (oro har, 15-30 urte artekoak), interes-tasa finkoko maileguen aldean (12-15 urte artekoak). Hortaz, mailegu-mota hau kontratatuz gero, epe luzeagoko finantzazioa eskuratuko dugu, eta, ondorioz, ordaindu beharreko kuota epe motzeko maileguena baino txikiagoa izango da.

2002ko azaroaren 23tik aurrera formalizatutakoetan, interes-tasa aldakorreko hipoteka-maileguetako bi aldeek aipatutako tasa haren gertueneko multiploraino biribiltzea ados dezakete. Hala ere, biribiltze hori ezingo da puntu zortzirena baino handiagoa izan (biribilketa egiteko erreferentziak: -,000/ -,125/ -,250/ -,375/ -,500/ -,625/ -,750/ -,875).

Arau horrek debekatu egin du garai batean ohikoa zen goranzko biribiltzea. Banku-ohitura horren kontrako epai judizial bat eman zen bere garaian, eta, gaur egun, auzia Auzitegi Gorenaren erabakiaren zain dago.

c) *Interes-tasa mistoak*. Maileguaren interes-tasa finkoa izango da epe jakin batean, eta epe hori betetzean, tasa aldakor bihurtuko da. Interes-tasa aldakorreko maileguen antzeko baldintzak dituzte, amortizazio-epeari eta amortizazio aurreratuagatik komisioari dagokionez. Oro har, mailegu-mota honen baldintzak aurreko bien erdibidekoak izaten dira.

Bankuek hiru motatako maileguak eskaintzen dituzte, interes-tasari dagokionez: interes-tasa finkokoak, aldakorrekoak edo mistokoak. Mailegu-eskatzaileak erabaki behar du zein interes-tasa komeni zaion.

Zein da tasa finkoa, aldakorra ala mistoa kontratatzea erabakitzeko prozedura?

Gure gain hartu nahi dugun edo har dezakegun arriskuaren arabera hartu beharko dugu erabakia.

Ez badugu arriskurik nahi, edo ez bagaude arriskurik hartzeko moduan, interes-tasa finkoa eskatu beharko dugu.

Arriskua hartzeko prest bagaude, interes-tasa aldakorra edo mistoa aukera dezakegu, tasa horiek, gerora, egungo mailari eutsi edo jaitsi egingo direlakoan.

INTERES-TASA FINKOKO MAILEGUAK	INTERES-TASA ALDAKORREKO MAILEGUAK
<ul style="list-style-type: none">- Oro har, EPE MOTZAK (12 – 15 urte).- KUOTA HANDIAGOAK- “Interes-tasen aldaketaren arriskua” HANDIAGOA DA (adb. Merkatuko interes-tasak asko jaitea).	<ul style="list-style-type: none">- EPE LUZEAK (15 – 30 urte).- KUOTA TXIKIAGOAK.- “Interes-tasen aldaketaren arriskua” TXIKIAGOA DA (MERKATUKO INTERESERA EGOKITZEN DA, ALDIRO).

B.- **Berandutza-interesak** garaiz ordaintzen ez diren diruzenbatakoei aplikatzen zaizkie. Maileguaren titularrari jarritako zehapena da, hura ordaintzeko obligazioa ez betetzeagatik. Sarritan, bankuek **ordaindu gabeko kuoten erreklamazio-gastuen gaineko komisioa** ere aplikatzen dute. Azken komisio hori zenbateko finkoa izaten da –kontratuan ezarritakoa–, eta zorra eguneratutakoan aplikatzen zaio bezeroari.

C.- **Amortizazio edo kitapen aurreratuagatiko komisioa:** finantza-erakundeek, oro har, hipoteka-mailegu osoa edo zati bat

mugaeguna iritsi aurretik kitatzeko eskubidea aitortzen diete bezeroei.

Amortizazio aurreraturen bat eginez gero, ordaintzen den kuota murriztu egingo da (mailegua ordaintzeko epeari eutsiz), edo, bestela, mailegua ordaintzeko epea laburtu (ordaintzen den kuotaren zenbatekoari eutsiz). Normalean, bi eragin horietako bat hautatzeko aukera ematen zaio mailegu-hartzaileari.

Zenbaitetan, kreditu-erakundeek amortizazio aurreratuak une jakin batzuetan egiteko eskatzen dute (esaterako, interes aldakorra berrikustean), edo, amortizazio hori gutxieneko diru-kopuru batekoa izatea (adibidez, amortizatze falta den kapitalaren gutxieneko portzentaje bat).

Finantza-erakundeek kobratutako komisioa amortizatutako printzipalaren gaineko portzentaje bat izaten da. Legeak araututakoari jarraituz, interes aldakorreko hipoteka-maileguen kitapen-komisioa, gehienez, amortizatutako kapitalaren %1 izan daiteke. Alabaina, interes finkoko hipoteka-maileguen kitapen-komisioak ez du legezko mugarik. Hala ere, bada horri buruzko akordio bat, Ekonomia Ministerioaren eta banku-sektorearen artean egindakoa; eta, horren arabera, komisio horrek ez luke %2,5ekoa baino handiago izan behar.

D.- **Baldintzak aldatzeagatiko komisioa** egoera hau gertatzen bada kobratzen da: mailegu-hartzaileak, uneren batean, maileguan finkatutako baldintzak edo bermeak aldatzeko eskatu, eta mailegu-emaileak aldaketa hori onartzea. Komisio hau amortizatze falta den kapitalaren gaineko portzentaje batean zehazten da.

Mailegu-eskaera oso zuhurra izan bada, eta hura mugaeguna baino lehenago itzultzeko aukera izango duela uste badu, mailegu-hartzaileak berriaz erreparatu beharko dio amortizazio aurreratuagatiko komisioari.

Kreditu-erakunde batzuek ez dute komisio hau aplikatzen, eta, ondorioz, bezeroek lasaiago (kostu gehigarrien beldurrik gabe) erabaki dezakete mailegua noiz itzuli, unean-unean duten diruaren arabera.

AMORTIZAZIO AURRERATU bat eginez gero, mailegu-hartzaileak berak erabaki ohi du horren eragina:

- Kuotaren zenbatekoa murriztea (mailegua itzultzeko epeari eutsiz), ala
- Kreditua itzultzeko epea laburtzea (kuotaren zenbatekoari eutsiz).

Aspaldi kontratatutako maileguen baldintzak gaur egun kontratatutakoak baino okerragoak izan daitezke. Ildo horretatik, mailegua duela zenbait urte eskatu duenak **bi aukera ditu, legez, aspaldi kontratatu zuen maileguaren baldintzak berriz negoziatzeko**. Legeak bi aukera ematen ditu maileguen prezioa jaisteko: **berritzea** eta **subrogazioa**. Lehen bidea erabiliz gero, baldintzak mailegu-emailearekin berrikusiko dira; eta, bigarrena erabiliz gero, hipoteka-baldintza hobek ematen dituen banku batera eramango da mailegua bera.

Hipoteka-mailegua berritzea edo aldatzea

Bezero guztiek negozioa dezakete maileguaren baldintzen aldaketa –bai interes-tasarena, bai amortizazio-epearena– mailegu-emailearekin, eta ez dute, horretarako, mailegu-kontratua beste banku batera eraman beharrik.

Aukera horrek ez du, berez, baldintza berriak eskritura publikoan jasotzeak dakarzkina gasturik sortu behar, nahikoa baita aldatetak banku-agiri batean jasotzea, kontratu pribatu gisa. Hala ere, aurrezki-kutxek eta kreditu-erakundeek askotan eskatzen dute akordio berria eskritura publikoan jasotzea, segurtasun juridiko handiagoa izateko, eta hipoteka-maileguen berritzeari eta subrogazioari buruzko legediak hala arautzen dutelako.

Maileguaren baldintzak berritzean, mailegua ordaintzeko epea aldatzen bada, maileguaren hartzekodunak (kreditu-erakundeak) ezingo du, baldintzak aldatzeagatik komisioagatik, amortizatzeke falta den kapitalaren %0,1 baino gehiago kobratu.

Hipoteka-mailegua berritzeko eskritura publikoa finantza-erakunde hartzekodunaren eta mailegu-zordunaren artean adostutakoa bada, Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zerga ordaintzeaz salbuetsita egongo da. Zerga-salbuespen hori izateko, baldintzen aldatetak honako alderdi hauei buruzkoa izan behar du: hasieran adostutako interes-tasari buruzkoa; mailegua ordaintzeko epeari buruzkoa, edo aurreko bi horiei buruzkoa.

Eskritura-mota horiei dagozkien notaritzak eta erregistro gastuak kalkulatzeko, eragiketa hau egingo da: kontratua berritzean amortizatzeke falta den kapitalari aplikatu behar zaio maileguak aldatu aurretik zuen interes-tasaren eta akordioaren ondoren finkatutako interes-tasaren arteko aldea. Eragiketa horren emaitza izango da gastu horiek kalkulatzeko oinarria. Mailegua ordaintzeko epea soilik aldatzen duten berritzei dagokionez, gastu horiek kalkulatzeko oinarria kontratua berritzean amortizatzeke falta den kapitalaren 1.000ko 1 izango da.

Hipoteka-maileguen berritze eta subrogazioen notaritzak eta erregistro-gastuei honako murrizpenak aplikatuko zaizkie:

- %90, hitzartutako eragiketek maileguaren interes-tasa aldatzen badute, eta, gainera, aldateta hori interes-tasa aldakorretik interes-tasa finkora egiten bada.
- Gainerako eragiketetan, %75.

Murrizpen horiek direla eta, hipoteka-mailegua berritzea nahiko merkea da.

Hipoteka-maileguaren subrogazioa

Kasu honetan, mailegua kreditu-erakundez aldatzen da, eta, hasierako mailegu-emaitzearen orde, beste finantza-erakunde batek hartuko

du haren lekua. Hortaz, beste finantza-erakunde baten esku geratuko dira mailegu-emaileari dagozkion eskubide eta obligazioak.

Hipoteka-maileguaren baldintzak hobetu nahi duen pertsonak zuzenean jo behar du baldintza hobeak emango dizkion bankura, hipoteka-maileguaren baldintzei buruzko eskaintza lotesle bat egin diezaion.

Zordunak eskaintza onartzen badu, banku horrek baimena izango du erabaki hori berezko mailegu-hartzekodunari jakinarazteko. Horrekin batera, subrogatu beharreko hipoteka-maileguaren zorraren kopurua ziurtagiri bidez adierazteko eskatuko dio; eta, horretarako, zazpi laneguneko epea emango dio, gehienez.

Kreditu-erakunde hartzekodunak hamabost laneguneko epea izango du subrogazio-eskaera atzera botatzeko, ziurtagiria entregatu zuenetik kontatzen hasita. Eskaintza atzera botatzeko, hirugarren erakundeak egindako eskaintza berdindu, eta zordunarekin duen mailegu-kontratua berritu egin beharko du.

2004ko martxoan emandako epai batek erabaki duenez, finantza-erakundeek, hipoteka-mailegua beste erakunde batera eraman nahi duten bezeroei eusteko, banku edo aurrezki-kutxa lehiatzailearen eskaintza berdindu beharko dute. Auzitegi Gorenaren jurisprudentziak dioenez, maileguaren baldintzak hobetzeko eskubidea gailentzen zaio beste banku batzuetan baldintza hobeak kontratatzekeo eskubideari. Auzitegi Gorenaren arabera, hipoteka-maileguak kontratatzen dituzten pertsonak “bankuak maileguaren baldintzak hobetzeko beharrezkoa den laguntza ematen ez duenean soilik dute hura subrogatzeko eskubidea”.

Subrogazioa eskritura publiko bidez egin beharko da. Eskrituran honako alderdi hauek aldatzea hitzar daiteke: indarrean zeuden interes-tasak, bai nominala, bai berandutzakoa; mailegua ordaintzeko epea; edo biak.

Subrogazio-eskritura horregatik ez da Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zerga ordaindu behar.

2003ko apirilaren 26tik aurrera egindako subrogaziotan arau hauek aplikatuko dira, subrogatutako hipoteka-mailegua interes-tasa aldakorrekoa bada:

1. Amortizazio aurreratuagatiko komisiorik hitzartu ez bada, bankuak ezingo du horren gaineko zenbatekorik kobratu.
2. Amortizazio aurreratuagatiko komisioa %0,50ekoa edo txikiagoa bada, hitzartutako komisioa kobratu beharko du bankuak.
3. Gainerako kasuetan, mailegu-hartzaileak %0,50eko komisioa ordainduko du, hasieran hitzartutako komisioa edozein izanda ere.

2003ko apirilaren 26a baino lehen interes aldakorrean hitzartutako maileguetan, amortizazio aurreratuagatiko komisioa %1 izango da.

Lehen adierazi dugun moduan, berritzeetan eta subrogazioetan notaritza- eta erregistro-gastuak honako hobari murrizpen hauek izango dituzte:

- %90, hitzartutako eragiketek interes-tasa aldatzen badute, eta, gainera, aldaketa hori interes-tasa aldakorretik interes-tasa finkora egiten bada.
- Gainerako eragiketetan, %75.

Hori dela eta, hipoteka-maileguen subrogazioak nahiko merkeak dira.

Hipoteka-maileguen suntsipen aurreratuko kausak

Banku bakoitzak ezartzen ditu mailegu-kontratuaren suntsipen-kausak. Kausa horietan aipatutako egoeraren bat emanez gero, bankuak bertan behera utz dezake mailegu-kontratua, eta kitatu gabe dagoen zorra ordaintzeko eskatu. Kausa horiek eskrituran jaso beharko dira. Honako hauek dira ohikoenak:

- Mailegu-hartzaileak hitzartutako obligazioak ez betetzea; batik bat, mailegatutako kapitala ez amortizatzea, eta interesak ez ordaintzea. Suntsipen aurreratuaren ondorioz, higiezina enkantean jarri behar

bada, eta hura mailegu-hartzailearen ohiko etxebizitza balitz, zordunak enkantea bertan behera uzteko aukera izango du. Horretarako, enkante-demanda jarri zen egunean printzipalagatik eta interesengatik zor zen diru-kopurua ordaindu beharko du. Kopuru horri, hala badagokio, prozedura judizialean zehar mugaegunera iritsitako mailegu-zorrak eta berandutza-interesak gehitu beharko zaizkio. Aukera hori behin bakarrik erabili ahal izango du.

- Mailegu-hartzaileak emandako datuak edo agiriak faltsuak izatea, mailegua emateko erabakia horietan oinarritu izan balitz.
- Hipotekatutako ondasunak horien balioaren %20an baino gehiago hondatzea edo kopuru horri dagokion balioa galtzea; betiere, mailegu-hartzaileak ez badu hipotekatutako ondasunen balioa emandako kredituaren eta bermatutako ondasunen arteko proportziora lehengoratzen.
- Mailegu-hartzaileak honako egoera hauen deklarazioa eskatzea: porrot-egoera –edo, honi dagokionez, hirugarren batek deklarazio hori eskatzea, eta epaileak eskaera tramitera onartzea–, hartzekodunen konkurtsoa edo ordainketa-etendura.
- Hipoteka Jabetza Erregistroan inskribatuta ez egotea, edo erregistroko inskripzio-oharpenak hipotekatutako ondasunak azaldu gabeko kargak dituela adieraztea.
- Erreferentzia-tasa normala edo haren ordeztarritakoa aplikatu ondoren, mailegu-hartzaileak hipoteka-maileguari aplikatu behar zaion interes-tasa ez onartzea.
- Hipotekatutako finakari dagozkion zergak eta tasak ez ordaintzea, horiek bankuari baino lehen ordaindu beharrekoak badira.
- Hipotekatutako finkan izan daitezkeen arriskuak eta suteak estaltzeko aseguruak ez kontratatzea, aseguru hitzartutakoa baino diru-kopuru txikiagoan kontratatzea, edo aseguru hori ez berritzea.
- Hipotekatutako finka mailegu-emailearen baimenik gabe saltzea edo alokatzea.

Beharrezkoa da maileguen SUNTSIPEN AURRERATUKO KAUSEN berri izatea, bankuen abusuzko jarduerak ezkuta baititzakete.

Bankuek, normalean, ez dute horien berri ematen (“informazio-liburuxkan” ere ez dira azaltzen), alabaina, horietako kausaren bat emanez gero, ondorioak oso kaltegarriak izan daitezke mailegu-hartzailearentzat, bankuak automatikoki eska baitezake mailegu-zor osoa.

Azkenik, gogoratu egin behar da, kapital osoa itzuli eta interesak ordaindu ondoren, “hipoteka kendu” egin behar dela; izan ere, mailegu-titular gutxik dute horren berri.

Mailegu-emailearekiko konpromisoa amaitu arren, higiezinarekiko legezko kargak, hau da, hipotekak, indarrean jarraitzen du.

Egoera hori kaltegarria izan daiteke:

- Beste mailegu bat eskatzeko asmoa izan, eta bermetzat higiezin hori eman nahi badugu, edo
- Higiezina saldu nahi badugu.

Bi egoera horietakoren bat gertatuz gero, mailegu-emaileak edo higiezina erosi nahi duenak kitatutako maileguari dagokion hipoteka kentzea eskatuko diote jabeari.

Mailegu-hartzekodunak zor guztia ordaintzeko konpromisoa xuxen-xuxen bete arren –kuotak ezarritako epean ordaindu dituelako, edo amortizazio aurreratuak egin dituelako–, higiezinaren gaineko legezko kargak; hau da, hipotekak, indarrean jarraitzen du.

Komeni da higiezinaren gaineko hipoteka kentzea edo ezereztatzea, beharrezkoa izango baita beste hipoteka-kreditu bat eskatzeko edo higiezina saltzeko.

Hipoteka kentzeko edo ezereztatzeko tramiteak eratze-tramiteen antzekoak dira, eta, ondorioz, gastuak ere antzekoak izango dira:

eskritura publikoan jasotzeagatiko notaritza-gastuak, eta Jabetza Erregistroan inskribatzeagatiko gastuak.

Eratze-gastuak kalkulatzeko erabili ziren kopuru berak (zergaren zerga-oinarria) erabiliko dira hipoteka kentzeko gastuak kalkulatzeko.

Kasu honetan, ordea, interesatuak berak egin dezake tramitazioa, eta, hala eginez gero, hark ordainduko ditu zuzenean ogasuneko eta erregistroko gastuak. Ondorioz, eskritura tramitatzeko gastuak aurreztuko ditu.

Hipoteka kentzeko gastuak:

- Notaritza-gastuak, ezereztatze-eskritura notarioaren aurrean egiteagatik (ez dira tramitazio-gastuak ordaindu beharko, eskrituraren tramitazioa higiezinaren jabeak berak egiten bada).
- Eskritura Jabetza Erregistroan inskribatzea.
- Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zerga (etxebizitza ohikoa ez bada).

Hipoteka-maileguen zerga-erregimena

Hipoteka-mailegu bat kontratatzea, zerga-erregimenari dagokionez, onuragarria izan dakiguke, hura **ohiko etxebizitza erosteko eskatzen badugu**.

Ohiko etxebizitzan inbertitzeagatik lor daitekeen gehieneko kenkaria, hura erosteko behar izan diren zerga-urtealdi guztiak aintzat hartuta, 30.000 eurokoa da, etxebizitza 2003ko urtarrilaren 1aren ondoren erosi bada (egun hori baino lehen erositako etxebizitzaren muga 27.045,54 eurokoa da).

Horrenbestez, ohiko etxebizitza 2003ko urtarrilaren 1aren ondoren erosi duten zergadunek pizgarri fiskalak izango dituzte; hau da, ohiko etxebizitza erosteagatiko kenkaria. Kenkari horren gehieneko muga kalkulatzeko, 200.000 euroko etxebizitzak hartzen dira oinarritzat; beraz, kenkaria, gehienez, diru-kopuru horren %15 (inbertsioagatiko kenkaria) izango da, hau da, 30.000 euro. 200.000 euro horietan zergadunak etxebizitza erosteko ordaindu behar izan dituen gastu guztiak sartzen dira (notaritza-gastuak, zergak, etab.).

**Ohiko etxebizitzan egindako inbertsioagatiko kenkaria,
Euskal Autonomia Erkidegoan (PFEZ)**

Orokorra	<p align="center">Inbertsio-gastuen %15 Finantzazio-gastuen (interesen) %20</p> <ul style="list-style-type: none"> • Baldintza: inbertsioagatiko kenkari orokorra \leq zerga oinarri likidagarriaren %60.
Zergadunak 35 urte baino gutxiago baditu	<p align="center">Inbertsioaren %25 Finantzazioaren (interesen) %30</p> <ul style="list-style-type: none"> • Baldintza: (Zerga-oinarria – pentsio konpentsatzailea edo mantenu-obligazioa ordaintzeagatiko murrizpena) < 27.045,54€.
Zergaduna familia ugariako titularra bada	<p align="center">Inbertsioaren %25 Finantzazioaren (interesen) %30</p> <ul style="list-style-type: none"> • Baldintza: (Zerga-oinarria – pentsio konpentsatzailea edo mantenu-obligazioa ordaintzeagatiko murrizpena) < 27.045,54€.
Kreditu fiskala	<ul style="list-style-type: none"> * 2002/12/31ren ondoren erositako etxebizitzak: 30.000€. * 2003/01/01 baino lehen erositako etxebizitzak: 27.045,54€. □

Iturria: www.gipuzkoa.net. Geuk moldatua.

Ildo horretatik, 120.202,42 euroko etxebizitza erosten badugu, kenkaria, gehienez, 18.030,36 eurokoa izango da; hau da, 120.202,42 euroren %15. Alabaina, etxebizitzagatik 240.404,84 euro ordaindu baditugu, kenkaria ez da 36.060,73 eurokoa izango (240.404,84 euroren %15), 30.000 eurokoa baizik (hori baita kenkariaren gehienezko muga).

Oro har, ohiko etxebizitza erosteko ordaindu diren ekarpenen %15 desgrabatu ahalko da, eta interesen %20. Kenkaria izateko eskubidea ematen duten bi atal horien (inbertsioa eta interesak) baturak ezin du zerga-oinarri likidagarriaren %60 baino handiagoa izan; hau da, ezin du zerga-oinarri horren %60 baino handiagoa izan, oinarri horri bi kontzeptu hauek murriztu eta gero:

- Mantenu-obligazioaren ordainketa eta ezkontidearen edo izatezko bikotearen aldeko pentsio konpentsatzailea.
- Mutualitateetara, aurreikuspeneko plan bermatuetara, pentsio-planetara eta Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundeetara egindako ekarpenak.

Aipatutako portzentaje horiek %25 edo %30 izan daitezke, hurrenez hurren, zergadunak 35 urte baino gutxiago izan eta haren zerga-oinarria 27.045,54 eurokoa baino txikiagoa bada; edo zergaduna familia ugariko titularra bada (***Araban, familia ugariko titularrek ez dute 27.045,54 euro baino txikiagoko zerga-oinarria izateko baldintza bete behar***).

Aintzat hartu behar da hipoteka-maileguaren zerga-eragina; batik bat, amortizazio aurreratuak egiteko adina diru badugu.

PFEZan jasotako pizgarriei ahalik eta etekin handiena ateratzeko, komenigarria izan daiteke amortizazio aurreratuak “mailakatzea”, ekitaldi bakoitzean ohiko etxebizitza erosteagatik izan dezakegun kenkariaren muga orokorra neurritz kanpo ez gaintzeko.

3.2. KONTSUMORAKO MAILEGUA

Kontsumorako mailegua: eskatu aurretik aintzat hartu beharreko alderdiak, eta tramiteen segida kronologikoa

Hipoteka-mailegu bat kontratatzeke erabakia bizitzan har dezakegun garrantzitsuenetakoa dela esan dugu, bai diru-kopuruagatik, bai epeagatik. Kontsumorako mailegu bat kontratatzeke erabakia, berriz, ez da aurrekoa bezain larria; izan ere, kontsumorako maileguak **garrantzia edo munta txikiagoko gastuak edo inbertsioak finantzatzeko kontratatzen dira**.

Kreditu-erakundeak (mailegu-emaileak) diru-kopuru jakin bat ematen dio bezeroari (mailegu-hartzaileari), eta azken horrek hura itzultzeko konpromisoa hartzen du. Horrenbestez, epe jakin batean itzuli beharko ditu, bai diru hori, bai hitzartutako interesak.

Oro har, hauek izaten dira kontsumorako maileguak eskatzeko arrazoiak: **auto bat erostea, etxeko altzariak eskuratzea, eta ikasketak edo oporrak ordaintzea**.

Telebistako eta prentsako iragarkien bidez, banku eta aurrezki-kutxek maileguak “berehala” emango dituztela esaten dute, abalik edo

hipotekarik eskatu gabe. Zenbaitetan bezeroen alde egindako txekeak erakusten dituzte, erraztasun- eta berehalakotasun-ikuspegia indartzeko.

Ondasun eta zerbitzuen hornitzaileek ere –esaterako, auto kontzesionarioek eta bidaia-agentziek– hitzarmenak egiten dituzte finantza-erakundeekin, bezeroei erosketak finantzatzeko maileguak eskaintzeko.

Noiz eskatzen dira kontsumorako maileguak?

Gastu edo inbertsio txikiak ordaintzeko nabikoa dirurik ez dugunean.

Higiezin bat erosteko ere erabil dezakegu, hura hipotekatu nahi ez badugu; hau da, hipoteka-mailegu bat eskatzeko asmorik ez badugu.

Beharrezkoa da erabilitako terminologiari buruzko zehaztasun bat egitea, kreditu-erakundeek, oro har, KONTSUMORAKO KREDITUAK eskaintzen dituztela esaten baitute, baina, egiaz, ez da hala izaten. Gehienetan, iragarritako produktu horiek diru-kopuru jakinak eta zehatzak ematen dituzte; hau da, KONTSUMORAKO MAILEGUAK dira.

Beraz, KREDITU hitza erabiltzean, izendapen generiko bat erabiltzen dute; izan ere, hitz horrek bankuen eta aurrezki-kutxen aktiboko eragiketa guztiak (dirua jartzekoak) izendatzen ditu.

Bankuek eta aurrezki-kutxek alde zuzenetik ezarritako baldintza estandarrak (gehienezko diru-kopurua, gehienezko epea, interes-tasa, irekitze- eta azterketa-komisioak, amortizazio aurreratuko komisioa, etab.) ezartzen dituzte kontsumorako mailegutik; baina, normalean, bankuarekin hitz eginez gero, horiek aldatzeko aukera izaten da.

Izan ere, bankuek, askotan, bezeroen “fideltasuna” saritzen dute. Gauza bera gertatu ohi da nominak edo ordainagiriak helbideratzen badira, edo kreditu-txartel jakin bat erabiltzen bada.

Maileguan emandako kopuruak oso handiak izaten ez direnez, horiek itzultzeko epea, normalean, ez da oso luzea izaten (5 urte artekoa, gutxi gorabehera). Hala ere, epe hori finantza-erakundearen politika komertzialaren eta diruaz egingo den erabilpenaren arabera finkatu ohi da. Kreditu-erakunde batzuek 8 urte arteko kreditu pertsonalak ematen dituzte.

Bankuek iragarkietan eskaintzen dituzten kontsumorako maileguen baldintzak ez dira aldaezinak.

Baldintza onuragarriagoak hitzar ditzakegu, lehen ere bankuaren produktuak kontratatu izan baditugu, edo gerorako eragiketak (gordailuen gutxieneko edo batez besteko saldoak, helbideratzeak, etab.) hitzartuta baditugu.

Bankuak eta aurrezki-kutxak beren gain hartutako arriskua minimizatzen saiatzen dira –batik bat, diru-kopuru handiak mailegatzan badira–, mailegua itzuliko zaiela bermatzeko.

Ildo horretatik, bezero izan daitezkeenen kaudimena aztertzen dute; hau da, maileguari dagozkion ordainketei aurre egiteko bezeroek izango duten diru-ahalmena jakiten saiatzen dira. Batik bat, bi alderdi hauei erreparatzen diete: bezeroaren ondarearen balioari, eta haren lanbidezko jarduera edo lan-kontratuari (zer enpresatan lan egiten duen, zer-nolako diru-sarrerak eskuratzen dituen, etab.).

Horrez gain, diru-kopuru handia eskatuz gero, bankuek berme zehatzak eskatzen dituzte askotan. Hipoteka-maileguetan higiezin baten hipoteka ematen da bermetzat, **kontsumorako mailegutuan, berriz, bankuek berme pertsonalak eskatzen dituzte**. Hori dela eta, mailegu-mota horiei “**mailegu pertsonalak**” deitzen zaie.

Halaber, bankuak erantzule solidarioak izendatzea eska diezaioke mailegu-eskatzaileari, hala behar izanez gero, mailegu-zorra haiei ere eskatzeko. Pertsona horiei **maileguaren abal-emaile edo fidatzaile** deitzen zaie, eta horiek ere beren ondareari edo/eta diru-sarrerei buruzko informazioa eman beharko diote bankuari.

Kontsumorako maileguak «mailegu pertsonalak dira», eta, hala badagokio, mailegu-eskatzaileak pertsona bat edo batzuk izendatu beharko ditu mailegua abalatzeko. Bestela esanda, maileguaz erantzungo duten beste pertsona batzuk izendatzeko eska diezaioke bankuak eskatzaileari.

Eskatutako informazioa eman beharko diote mailegu-eskatzaileak eta abal-emaileek bankuari: errenta aitorpena, azken nominak, eta, hala badagokio, ondarearen gaineko aitorpena eta ondasunen zerrenda.

Beharbada, mailegu-emaileak maileguaren bidez eskuratu nahi den ondasunaren edo/eta zerbitzuaren aurrekontua edo proformako faktura ere eskatuko du.

Mailegu-polizan sinadura hauek jaso beharko dira: mailegua eman duen kreditu-erakundearena; mailegu-emailearena; eta, hala badagokio, abal-emaileena.

Bankuak mailegu-emailearen eta abal-emaileen kaudimenari buruzko informazioa eskatuko du: errenta-aitorpena eta azken nominak.

Hala badagokio, ondarearen gaineko zergaren aitorpena eska dezake, edo “ondasunen zerrenda” bat egitea.

Aurreko agiriez gain, finantzatu nahi den ondasunaren edo zerbitzuaren eskaintza edo proformako faktura eska dezake.

Hauxe da, eskema bidez adierazita, kontsumoko maileguaren tramiteen segida kronologikoa:

KONTSUMORAKO MAILEGUAREN TRAMITEEN SEGIDA KRONOLOGIKOA

AURRE-TRAMITAZIOA		AKORDIOA	MAILEGUAREN ONARPENA	MAILEGUAREN ITZULKETA	
1	<p>ESKAERA ESKATZAILAEK ETA → ABAL-EMAILEAK(EK): -Errenta-aitorpena -Azken nominak (-Ondarearen gaineko zerga) (- Ondasunen zerrenda)</p>	3	<p>MAILEGU-ESKAINTZA LOTESIEA(kontsumitzaileak eskatuz gero) 10 egunerako balio du</p>	5	<p>PRINTZIPALA/KAPI TALA ENTREGATzea →</p>
	2	<p>ESKAERAREN AZTERKETA →</p>	<p>MAILEGU-KONTRATUA → (MERKATARITZAKO FEDE-EMAILE BATEN AURREAN EGINA)</p>	6	<p>AMORTIZAZIO-KUOTAK • KAPTALA • INTERESAK • BERANDUTZA • AMORTIZAZIO AURRERATUA</p>
2	<p>PARTIKULARRAK: - Arrazoia - Kapitala - Epea - Kuota-mota - Eman dirizakeen bermeak: partikularren obligazioak bermatuko ditu(zb/en) pertsona(k)</p>	<p>KREDITU-ERAKUNDEAK: BALDINTZAK * ESKAERAN JASOTAKOAK - Kapitala - Epea - Kuota-mota * BANKUAK EZARRITAKOAK - Interes-tasa - Irekiera-tasa - Aztertze-komisioa - Eskatutako berme(k) - Eskerak: nomina helbideratzea, gutxieneko saldoa izatea, etab. - Amortizazio aurreratugatikoa komisioa - Berandutza-interesak</p>	<p>PARTIKULARRAK: - Irakitzeko eta aztertze-komisioak ordaintzea - Bermea(k): abal-emaitleen edo fidatzaileen sinadura</p>	<p>PARTIKULARRAK: Kapitala izultzea eta interesak ordaintzea</p>	

Kontsumorako maileguak eskatzean aintzat hartu beharreko kostuak

1.- Kontratua formalizatzearen kostua.

2.- Mailegu-eragiketen kostua.

1. KONTRATUA FORMALIZATZEAREN KOSTUA, MAILEGUA ONARTZEAN sortutakoa.

- Irekitze-komisioa: mailegua emateko egin behar izan diren tramitazio-gastuek osatzen dute.
- Aztertze-komisioa: mailegua onartu aurreko azterketan egindako gastuek osatzen dute. Ez da ohikoa komisio hau kobratzea.

Kreditu-erakundeek beti ezartzen dituzte irekitze-komisioak, baina aztertze-komisioa kobratzea ez da ohikoa (normalean, irekitze-komisio bakarrean biltzen dira gastu guztiak). Maileguaren printzipalaren gaineko portzentaje bat izaten dira, baina, sarritan, gutxieneko kopuru bat ezartzen da.

Poliza fede-emaile publikoaren aurrean egiteagatiko komisioa: poliza egiten parte hartu duen merkataritzako fede-emailearen ordainsariak osatzen dute. Merkataritzako fede-emaileak mailegu-kontratuaren fede ematen du; hau da, sinatzaileen identitatea eta ahalordeak egiaztatzen ditu, eta kontratua non eta zer egunetan egin den jasotzen du. Ordaindu beharrekoa maileguaren kapitalaren arabera zehazten da. Bankuak bitartekari lana egiten du (fede-emaile publikoari ordaintzen dio, eta eragiketa bezzeroaren kontuan kargatzen du).

Kontsumorako maileguen formalizazio-kostuak eskatzaileari jasanarazten zaizkio. Hauek dira kostu horiek:

- Irekitze- eta aztertze-komisioak.
- Merkataritzako fede-emailearen ordainsariak, poliza haren aurrean egiteagatik.

2. MAILEGU-ERAGIKETEN KOSTUA

- A. Maileguaren interes-tasa nominala.
- B. Berandutza-interesak edo/eta ez ordaintzeagatiko komisioa.
- C. Amortizazio edo kitapen aurreratuetatik komisioa.
- D. Baldintzak aldatzeagatiko komisioa.

A.- **Mailegu pertsonalen interes-tasa** hiru motatakoa izan daiteke: FINKOA, ALDAKORRA edo MISTOA. (Ikusi “Hipoteka-maileguen interes-tasa nominala”).

- a) *Interes-tasa finkoa.*
- b) *Interes-tasa aldakorra.*
- c) *Interes-tasa mistoa.*

B.- **Berandutza-interesak edo/eta ez ordaintzeagatiko komisioa:** ordainketa egun bat berandutzeagatik sortzen da. Diru-kopuru finko bat izaten da, eta horren bidez, ordainagiriak edo ordaindu gabeko kuotak erreklamatzek eragindako gastuak kobratzen dira.

C.- **Amortizazio edo kitapen aurreratuetatik komisioa:** mailegu-hartzaileak mailegua mugaeguna iritsi baino lehen amortizatzean sortzen den kostua da. Amortizazio aurreratuen bidez, maileguagatik ordaintzen den kuota murriztu edo hura itzultzeko epea labur dezakegu, eta, ondorioz, bankuari interes gutxiago ordainduko dizkiogu.

Legez, kitapen-komisioak gehienezko mugak ditu. Interes-tasa aldakorreko maileguetan amortizazio aurreratuetatik komisioa %1,5ekoa izan daiteke gehienez; eta interes-tasa finkoko maileguetan, berriz, handiagoa izan daiteke (%3koa, gehienez), interes-tasen fluktuazioak direla-eta, finantza-erakundeak arrisku handiagoa hartzen baitu. Sarritan, baldintza batzuk bete behar izaten dira amortizazio horiek egiteko; esaterako, gutxienerako diru-kopuru bat amortizatu beharra (normalean, printzipalaren portzentaje bat), edo amortizazioa data jakin batzuetan egin beharra.

D.- **Baldintzak aldatzeagatikomisioa** egoera hau gertatzen bada kobratzen da: mailegu-hartzaileak, uneren batean, maileguan finkatutako baldintzak edo bermeak aldatzeko eskatu, eta mailegu-emaileak aldaketa hori onartzea. Komisio hau amortizatzeko falta den kapitalaren arabera zehazten da. Kontsumorako maileguak hipoteka-maileguak baino epe laburragokoak eta diru-kopuru txikiagokoak izaten direnez, normalean ez dute komisio hau ordaindu beharrik izaten.

Mailegu-eskaera oso zuhurra izan bada, eta, hura mugaeguna baino lehenago itzultzeko aukera izango duela uste badu, mailegu-hartzaileak berariaz erreparatu beharko dio amortizazio aurrerratuagatikomisioari.

Kreditu-erakunde batzuek ez dute komisio hau aplikatzen, eta, ondorioz, bezeroek lasaiago (kostu gehigarrien beldurrik gabe) erabaki dezakete mailegua noiz itzuli, unean-unean duten diruaren arabera.

AMORTIZAZIO AURRERATU bat eginez gero, mailegu-hartzaileak berak erabaki ohi du horren eragina:

- Kuotaren zenbatekoa murriztea (mailegua itzultzeko epeari eutsiz), ala.
- Kreditua itzultzeko epea laburtzea (kuotaren zenbatekoari eutsiz).

Kontsumorako maileguen suntsipen aurreratuko kausak

Kontsumorako maileguetako polizen atal garrantzitsuetako bat horien **SUNTSIPEN EDO IRAUNGIPEN AURRERATUKO KAUSAK** dira. Atal hori arreta handiz aztertu behar dugu.

Honela defini ditzakegu suntsipen aurreratuko kausak: bankuari mailegu-kontratua bertan behera uzteko eta ordaindu beharreko zorra eskatzeko aukera ematen dioten gertakariak dira.

Banku bakoitzak ezartzen ditu mailegu-kontratuaren suntsipen-kausak. Hauek dira ohikoenak:

- Mailegu-hartzaileak kontratuan hitzartutako obligazioak ez betetzea; batik bat, printzipala, interesak, gastuak edo, hala balegokio, komisioak ez ordaintzea.
- Ordainketa-etendura, porrota edo hartzekodunen konkurtsoa eskatzea, edo kita- eta itzarote-egoeren deklarazio-eskaera, bai maileguaren titularrari dagokiona, bai haren abal-emaileei dagokiena.
- Mailegu-hartzailearen edo haren abal-emaileetakoren baten ondasunak bahitzea, edo ondasun horien gain antzeko bahimenez neurriak ezartzea; horien ondasunekiko protestoak egitea, protestoarene eragile den agirian onartzaile gisa agertzen badira; eta pertsona horien aurkako prozedura judizialak edo judizioz kanpoko prozedurak hastea, beren ondasunak enkantean jartzea eragin badezake. Egoera horiek guztiek, suntsipen-kausa izateko, nabarmen murriztu behar dute pertsona horien kaudimena.
- Zorduna edo haren abal-emaileetakoren bat hiltzea; betiere, mailegu-hartzaileak beste abal-emaileren bat –hau ere solidarioa– aurkezten ez badu. Ordezko abal-emaileak mailegu-hartzaileak hartutako obligazio guztiak bermatu beharko ditu.
- Mailegu-hartzaileak emandako datuak edo agiriak faltsuak izatea, mailegua emateko erabakia horietan oinarritu izan balitz. Gauza bera gertatuko litzateke datuak edo agiriak ezkutatu izan balitu.
- Mailegu-hartzailearen edo haren abal-emaileetako baten aktibo guztiak edo zati handi bat saltzea, besterentzea, hipotekatzea, pignoratzera edo erantzukizun edo obligazioen batekin afektatzea; betiere, horien ondarearen balioa nabarmen murrizten badu.

Sarritan, **maileguarekin zerikusirik ez duen ordainketa-obligazioen bat ez betetzea** hura suntsitzeko kausa izaten da. Bete gabeko obligazio hori mailegu-emaile den kreditu-erakunde berarekin hartutako obligazio bat ere izan daiteke; esaterako, **maileguarekin zerikusirik izan ez, baina erakunde berarekin egin den bestelako eragiketaren bat bada.**

Beraz, maileguaz besteko eragiketek (mailegu-hartzaileak egindako bestelako eragiketek) eragina izan dezakete maileguan. Bestelako obligazio horietakoren bat betetzen ez bada, bankuak mailegu-kontratua suntsitu eta zorra eskatzeko eskubidea izango du.

Kontsumorako maileguen SUNTSIPEN AURRERATUKO KAUSAK aintzat hartu beharrekoak dira, abusuzko jarduerak ezkuta baititzakete.

Horietako kausaren bat emanez gero, ondorioak oso kaltegarriak izan daitezke mailegu-hartzailearentzat, bankuak automatikoki eska baitezake mailegu-zor osoa.

Kontsumorako maileguen zerga-erregimena

Oro har, kontsumorako maileguek ez dute PFEZan desgrabatzen; ohiko etxebizitza erosteko, birgaitzeko edo handitzeko erabiltzen denean izan ezik.

Ohikoa ez den etxebizitzaren bat erosteko edo birgaitzeko erabiltzen bada, ez dute kenkaririk izateko eskubiderik sortuko, honako bi kasu hauetan izan ezik:

- Etxebizitza alokatzen bada. Kasu horretan, interesak (printzipala ez) gastu kengarriak izango dira PFEZan, eta horien muga alokairuagatik jasotako errenta izango da.
- Zergaduna enpresaburua edo profesionala bada, eta higiezina lanbidezko jarduera ekonomikoak egiteko erabiliko badu. Kasu horretan, interesak (printzipala ez) gastu kengarriak izango dira PFEZan.

3.3. KONTSUMORAKO KREDITUA

Kontsumorako kreditua: eskatu aurretik aintzat hartu beharreko alderdiak, eta tramiteen segida kronologikoa

Hau da kredituaren esanahia: **«diru-funts mugatu bat eskuragarri izatea, bai kopuruari dagokionez, bai epeari dagokionez».**

Horrenbestez, **kreditu-hartzaileak gehienezko diru-kopuru bat du eskuragarri, epe jakin batean**. Hartzekodunaren konpromisoa hau izango da: mugaeguna iristean, erabilitako dirua itzultzea.

Aurrez azaldutako bi maileguk (hipoteka-maileguak eta kontsumorako kredituak) ez bezala, kredituak hura **behin baino gehiagotan erabiltzeko aukera ematen du**, unean-unean sortutako diru-premiei erantzuteko.

Kontsumorako kreditua, zentzu hertsian (hau da, mailegu-aldaeratik kanpo), epe jakin batean DIRU-FUNTS JAKIN BATEN GEHIENEZKO ESKURAGARRITASUNA izatea da.

Eskuragarri dagoen funts (diru) hori, behin baino gehiagotan erabil daiteke, unean uneko premien arabera.

Kontsumorako kredituaren modalitate arruntena “**kreditu-kontua**” edo “**kredituzko kontu korrontea**” izenekoa da, eta horren funtzionamendua kontu korronte arrunt baten antzekoa da. Kreditu-erakundeak kontu korronte batean jarriko du gehienezko kreditua, bezeroaren eskuragarri; hau da, bezeroak kontu horretan funts-kantitate hori benetan sartu izan balu bezala.

Kreditua erabiltzeko, kreditu-hartzaileak dirua erretiratu behar du kreditu-erakundeak berariaz irekitako kontu korrontetik (kreditu-kontutik). Kredituaren gaineko zordunketa horiek egiteko, hainbat bide erabil daitezke; besteak beste, txekeak jaulkitzea, kreditu-txartelak erabiltzea, eta ordainketa-aginduak (helbideratzeak, etab.) ematea. Kreditu-kontu hori, halaber, dirua sartzeko ere erabil daiteke, eta, ondorioz, xedatutako edo erabilitako kredituaren zenbatekoa –itzuli beharrekoa– murrizteko.

Hortaz, kontu korronte bat irekitzea ezinbestekoa da kreditu-eskatzailearentzat, kontu horretan erregistratuko baitira kredituan izandako mugimenduak (erabilitako kreditua handitzekoak edo murriztekoak).

Bankuak **interes-tasa nominal** bat aplikatuko dio **xedatutako/erabilitako diru-kopuruari**. Halaber, **xedatu/erabili gabeko diru-**

kopuruari (eskuragarri zegoen gehienezko kredituraino) eskuragarritasunagatiko komisioa aplikatuko dio (hori interes-tasa nominala baino txikiagoa izango da).

Kontsumorako maileguen moduan, kreditu-mota hau ere eskritura batean jaso behar da; horregatik, merkataritzako fede-emaile baten aurrean egiten da, normalean.

«Kreditu-kontua» kontu korronte baten bidez erabiltzen da.

Posible da dirua ateratzea (erabilitako kreditua handitzea) eta dirua sartzea (erabilitako kreditua murriztea).

Kontsumorako beste kreditu ezagun bat “**kreditu-txartel bidezko kreditua**” da. Kreditu-txartelaz egindako ordainketen bidez, bankuek eta aurrezki-kutxek kreditu-txartelaren titularrak egindako erosketak eta gastuak finantzatzen dituzte, epe jakin batez eta gehienezko muga ekonomiko bateraino. Kredituaren mugak txartelaren kontratuan jasoko dira.

Azken kasu honetan, kreditu-kontratuaren baldintzak txartelarekin egindako eragiketei aplikatzen zaizkie. Interes-tasa, normalean, kreditu-kontuarena baino handiagoa izaten da, ez baita eskuragarritasunagatiko komisiorik aplikatzen.

Pertsona fisikoek maiz eskatzen al dituzte kontsumorako kredituak erabilpen pribatu ez-profesionalerako?

Ez. Kreditua (zentzu hertsian, hau da, hura erabiltzeko gehienezko mugari dagokiona), gehienetan, jarduera profesionaltan erabiltzen da.

Enpresek eta profesional autonomoek erabiltzen dute, batik bat, finantzazio-bide hori. Izan ere, horientzat normala da altxortegi-egoera epe ertain edo luzerako planifikatzea, eta, ondorioz, gerora izango duten “gehienezko” diru-premia zehaztea.

Diru-funtsen erabilpen pribatua (ez profesionala) askoz zehatzagoa da. Dirua helburu jakin baterako (autoa erosteko,

bidaia bat egiteko, etab.) behar izanez gero, logikoagoa da mailegu bat eskatzea.

Kontsumorako kredituak (KREDITU-KONTUAK) maileguak baino askoz malguagoak dira. Bankuek etorkizuneko finantza-premiak planifikatzeko eskatzen diete kreditu-hartzaileei, baina, sarritan, dirua zertarako erabiliko den jakiteak ez du garrantzi handirik.

Bankuak, kreditu eta mailegu orotan egiten duten moduan, ez-ordaintzeak saihesten ahaleginduko dira; eta, horretarako, era guztietako **berme pertsonalak, eta, hala badagokio, abal-emaileak** aurkezteko eskatuko diete eskatzaileari.

Eskatzaileak eta haren abal-emaileek bankuak eskatutako informazioa eman beharko dute: errenta-aitorpena, azken nominak, eta, hala badagokio, Ondarearen gaineko Zergaren aitortpena eta ondasunen zerrenda.

KREDITU-KONTUAK, sarritan, **urtebeterako eskatzen dira**, eta ohikoa izaten da, halaber, **horiek berritzea edo luzatzea eskatzea**.

Kontu horien **interes-tasak** bi motatakoak izan daitezke: **finkoak** ala **aldakorrak**. Interesak eta gastuak, normalean, hileroko edo hiru hilean behin likidatzen dira.

Kontsumorako kredituak (kreditu-kontuak) «berme pertsonaleko kredituak dira»; hau da, bankuak hala eskatuz gero, eskatzaileak pertsona bat edo gehiago aurkeztu beharko ditu hura abalatzeko. Pertsona horiek kreditua itzultzeaz erantzun beharko dute, eskatzailearekin batera.

Bankuak eskatzailearen eta haren abal-emaileen kaudimenari buruzko informazioa eskatuko du: errenta-aitortpena eta azken nominak.

Agiri horiez gain, Ondarearen gaineko Zergaren likidazioa edo «ondasunen zerrenda» ere eska dezake.

Honela adieraz dezakegu, eskema bidez, kontsumorako kredituaren tramiteen segida kronologikoa:

KONTSUMORAKO KREDITUAREN SEGIDA KRONOLOGIKOA						
AURRE-TRAMITAZIOA		AKORDIOA	KREDITUAREN ONARPENA	ERABILITAKO KREDITUAREN ITZULPENA		
1	ESKAERA ESKATZAILEAK: -Errenta-aitorpena -Azken nominak (-Ondarean gaineko zerga) (- Ondasunen zerrenda)	2 ESKAERAREN AZTERKETA	3 KREDITU-ESKAINTZA LOTESIEA (kontsumitzaileak eskatzen badu) 10 egunerako balio du	4 KREDITU-KONTRATUA ↑ (POLIZA MERKATARITZAKO FEDE-EMAILA BATEN AURREAN EGINGO DA)	5 KAPITALA/PRINTZI PALA ESKURAGARRI IZATEA ↑	6 PAMORTZAZIO- ORDAINKETAK • KAPITALA/ ERABILITAKO KREDITUA • INTERESAK • ESKURAG. KOMIS
↑		↑	↑	↑	↑	
PARTIKULARRAK: - Kapitala/gehienezko muga - Epea - Zertarako eskatzen den - Eman ditzakeen bermeak: partikularrak hartutako obligazioak bermatuko ditu(z)den pertsona(k)	KREDITU-ERAKUNDEAK: BALDINTZAK * ESKAERAN JASOTAKOAK - Kapitala/gehienezko muga - Epea * BANKUAK ERABAKITAKOAK - Interes-tasa - Eskuragarritasunagatikoko komisioa - Irekitze-komisioa - Azertze-komisioa - Eskerak: nomina helbideratzea, gutxieneko saldoa izatea, etab.	PARTIKULARRAK/ERAKUNDEAK: KONTRATUAREN BALDINTZAK - Kapitala/gehienezko muga - Epea - Interes-tasa - Eskuragarritasunagatikoko komisioa - Irekitze-komisioa - Azertze-komisioa - Eskerak	KREDITU-ERAKUNDEAK: kapitala edo gehienezko muga jartzen du partikularraren eskura PARTIKULARRA: - Irekitze- eta azertze- komisioak ordaindu behar ditu	PARTIKULARRA: kapitala itzuli, eta interesak ordaindu behar ditu		

Kontsumorako kredituak eskatzean aintzat hartu beharreko kostuak

- 1.- Kontratua formalizatzearen kostua.
- 2.- Kreditu-eragiketen kostua.

1. KONTRATUA FORMALIZATZEAREN KOSTUA, KREDITUA ONARTZEAN sortutakoa.

Kontsumorako maileguari aplikatzen zaizkion berak dira:

- Irekitze-komisioa.
- Aztertze-komisioa.
- Poliza fede-emailearen aurrean egiteagatikoko komisioa.

2. KREDITU-ERAGIKETEN GASTUAK

- A. Kredituaren interes-tasa nominala.
- B. Eskuragarritasunagatikoko komisioa.
- C. Berandutza-interesak.

A.- **Kredituaren interes-tasa** (erabilitako diru-kopuruari aplikatzen zaio).

B.- **Eskuragarritasunagatikoko komisioa** (erabili ez den kreditu-zatiari aplikatzen zaio). Bankuek komisio bat aplikatzen diote likidazio-epean erabili ez den kreditu-zatiari. Komisio hori hileroko edo hiru hilean behin kobratzen da. Hortaz, erabili gabeko kredituaren gaineko komisio hori, sarritan, urteko %0,25 izaten da. Hala ere, arreta handiz negoziatu behar da komisio hori, zenbaitetan, kreditu-erakundeek %0,25eko komisio hori hiru hilean behin kobratzea proposatzen dute, eta, hori, urtean, %1 ordaintzea dakar.

C.- **Berandutza-interesa** aplikatzen da, ordainketak egiten atzeratuz gero (polizaren mugaeguna iristean ordainketa egin ez bada).

«Kreditu-kontuaren» eragiketek bi kostu nagusi dituzte:

- erabilitako kredituari aplikatzen zaion interes-tasa, eta
- erabili gabeko kredituari aplikatzen zaion komisioa (gehienezko mugaraino).

Kreditu-hartzaileak diru-premien aurreikuspen zuhurra egiten badu, eta, azkenean, diru-soberakinak baditu, aurrezkiak pila ditzake.

Hori gertatuz gero, kreditu-hartzaileak ez du kreditu eskuragarria erabiltzeko premiarik izango, eta dirua sar dezake kredituari dagokion kontu korrontean. Horrenbestez, kredituaren titularrak bankuaren zordun izateari utzi, eta haren hartzekodun bilakatuko litzateke.

Egoera horiek ere aurreikusten dira polizan, eta, normalean, kreditu-hartzaileak egindako diru-sarrerei (gordailuei) interes-tasa jakin bat aplikatzea hitzartzen da. Sarritan, ageriko kontu korronteei dagokien interes-tasa bera izaten da.

Emandako kreditua erabiltzen ez badu, «kreditu-kontua» aurrezkiak jartzeko tresna izan daiteke kreditu-hartzailearentzat. Horretarako, kredituari dagokion kontu korrontean sartu behar ditu pilatutako aurrezkiak.

Kontsumorako kredituen suntsipen aurreratuko kausak

Kreditu-kontuek ere erabilitako kreditua ez itzultzeko arriskua dute, eta, ondorioz, gainerako kreditu-produktuetan egiten duten moduan, bankuek kontu horien suntsipen aurreratuko kausak jasotzen dituzte polizan; kausa horietakoren bat gertatuz gero, kontratua bertan behera utzi, eta zorra eskatzeko aukera izan dezaten.

Kontsumorako kredituen suntsipen aurreratuko kausak kontsumorako maileguei ezartzen zaizkien berak izaten dira:

- Kreditu-hartzaileak kontratuan (polizan) hitzartutako obligazioak ez betetzea; batik bat, printzipala, interesak, gastuak eta komisioak ez ordaintzea.

- Ordainketa-etendura, porrota edo hartzekodunen konkurtsoa eskatzea, edo kita- eta itxarote-egoeren deklarazio-eskaera, bai maileguaren titularrari dagokiona, bai haren abal-emaileei dagokiena.
- Kreditu-hartzailearen edo haren abal-emaileetakoren baten ondasunak bahitzea, edo ondasun horien gain antzeko bahimenez neurriak ezartzea; horien ondasunekiko protestoak egitea, protestoarene eragile den agirian onartzaile gisa agertzen badira; eta pertsona horien aurkako prozedura judizialak edo judizioz kanpoko prozedurak hastea, beren ondasunak enkantean jartzea eragin badezake. Egoera horiek guztiek, suntsipen-kausa izateko, nabarmen murriztu behar dute pertsona horien kaudimena.
- Zorduna edo haren abal-emaileetakoren bat hiltzea; betiere, kreditu-hartzaileak beste abal-emailearen bat –hau ere solidarioa– aurkezten ez badu. Ordezko abal-emaileak kreditu-hartzaileak hartutako obligazio guztiak bermatu beharko ditu.
- Kreditu-hartzaileak emandako datuak edo agiriak faltsuak izatea, kreditua emateko erabakia horietan oinarritu izan balitz. Gauza bera gertatuko litzateke datuak edo agiriak ezkutatu izan balitu.
- Kreditu-hartzailearen edo haren abal-emaileetako baten aktibo guztiak edo zati handi bat saltzea, besterentzea, hipotekatzea, pignoratzeko edo erantzukizun edo obligazioen batekin afektatzea; betiere, horien ondarearen balioa nabarmen murrizten badu.

Sarritan, **kredituarekin zerikusirik ez duen ordainketa-obligazioen bat ez betetzea** hura suntsitzeko kausa izaten da. Bete gabeko obligazio hori kreditua eman duen finantza-erakunde berarekin hartutako obligazio bat ere izan daiteke; esaterako, **maileguarekin zerikusirik izan ez, baina erakunde berarekin egin den bestelako eragiketaren bat bada.**

3.4. KONTSUMO-KONTRATUEI LOTUTAKO MAILEGUAK: FINANTZIAZIODUN SALMENTAK

Bankuek ondasun bat erosi eta horren ordainketa hari “lotutako” kontsumo-mailegu baten bidez geroratzeko aukera ematen diete bezeroei. Mailegu horregatik, hartzaileek interes-tasa jakin bat ordaindu beharko dute.

Erosketa txikiak (etxetresna elektrikoak edo altzariak) edo gastu jakin batzuk (bidaiak, ikastaroak, etab.) finantzatzeko kontratatzen dira.

Mailegu hauek, oro har, zerbitzu-emate kontratuei lotuta egoten dira. Ildo horretatik, zenbaitetan, zerbitzu-emaileak ez dio behar bezala adierazten kontsumitzaileari zerbitzuarekin batera kontsumorako kreditu bat izenpetzen ari dela, eta, ondorioz, finantza-erakunde bati (ez du beti finantza-erakunde bera izan beharrik) interes jakin batzuk ordaindu beharko dizkiola. Hori gertatuz gero, kontratatutako zerbitzua ematen ez bada ere, erabiltzaileak hitzartutako hileko kuotak ordaintzen jarraitu beharko du, ordaintzen ez badu, berankorren (ez-ordaintzaileen) zerrendan sartuko baitute.

Hainbat elkarte eta instituziok finantzazio-sistema hori kontratu nagusi bati –hau da, zerbitzu-emate kontratuari– lotutako kontsumo-kreditua dela uste dute; eta, ondorioz, Kontsumorako Kredituen Legearen 15. artikulua aplikatu behar zaiola. Artikulu horrek kreditu-kontratua bertan behera uzteko aukera ematen du, zerbitzu-emate kontratua betetzen ez bada.

Zerbitzu-enpresekin sortutako arazoan ondorioz, 7/95 Legea aldatu egin da. Lege horrek baldintza hau eskatzen zuen kontratu-mota hori suntsitzeko: zerbitzua ematen duen enpresaren eta finantza-erakundearen arteko eskusibotasuna. Baldintza horrek arazo ugari sortzen zituen, eta, ondorioz, gaur egun, “*segidako traktuko*” (segidako zerbitzua ematea; esaterako, ikastaro bat) zerbitzu-enpresekin hitzartutako loturadun mailegu horiek baliogabetzeko, ez da beharrezkoa bi alde horiek eskusibotasuna hitzartua izatea.

3.5. **LEASINGA**

Finantzazio-kontratu berezia da, eta, horren bidez, ondasun bat alokatzen da. Horretarako, hasierako kuota bat eta, gerora, aldizkako kuotak ordaintzea hitzartzen da. Kontratuaren mugaeguna iristean, titularrak kontratatutako ondasuna erosteko aukera izango du. Aukera horretaz baliatzeko, “azken” prezio bat (hondar prezio bat) ordaindu beharko du.

Asko erabiltzen da autoak edo aldizka berritzen diren ondasunak erosteko.

3.6. **RENTINGA**

Rentinga ondasunak alokatzeko zerbitzu integrala da. Zerbitzua epe ertain edo luzerako kontratatzen da, eta ez du erosteko aukerarik ematen. Ondasun horiek alokatzeaz gain, zerbitzu oso bat (mantentze-lanak egitea, ondasunak eskuragarri izatea, aseguruak kontratatuta izatea, etab.) kontratatu nahi duten partikular, profesional eta enpresei eskainitako zerbitzua da.

Renting-kontratuan, normalean, ez da erabilitako ondasuna erosteko aukera jasotzen. Hala ere, bezeroak nahi izanez gero, hondar-prezioa ordaindu, eta ondasuna eros dezake. Rentinga kontratatzen duten pertsonen helburua ondasunak erabiltzea izaten da, eta ez horietan inbertitzea; aitzitik, leasing-kontratuen helburua, maiz, ondasuna erostea izaten da.

4 - BESTE BANKU-ERAGIKETA BATZUK: KOBRANTZA- ETA ORDAINKETA-ERAGIKETAK

4. BESTE BANKU-ERAGIKETA BATZUK: KOBARRANTZA- ETA ORDAINKETA ERAGIKETAK

- 4.1. Txekea
- 4.2. Ordaindukoa edo zor-agiria
- 4.3. Banku-transferentzia
- 4.4. Banku-ordainagiria/helbideratzea
- 4.5. Banku-txartela
- 4.6. Diru-zorro elektronikoa

Bankuek ematen dituzten beste zerbitzu batzuk aztertuko ditugu kapitulu honetan. Zerbitzu horiek, oro har, ageriko gordailuei atxikita izaten dira, eta, horien bidez, bezeroek mugimenduak egin ditzakete gordailuetan, bai horien saldoa handitzeko, bai txikitzeko.

Hauek dira zerbitzu nagusiak:

1. Txekea.
2. Ordaindukoa.
3. Banku-transferentzia.
4. Banku-ordainagiriak/helbideratzea.
5. Zorduntze- eta kreditu-txartelak.
6. Diru-zorro elektronikoa.

4.1. TXEKEA

Txekearen bidez, **igorle** deritzon pertsona batek kontu korrontetik (edo aurrezki-kontutik) diru-kopuru jakin bat ordaintzeko agintzen dio banku edo kreditu-erakundeari (**igorpenduna**). Ordainketa hori **bartzaile-edukitzaileari** (txekea duen pertsonari) egingo zaio.

Txekea **ordainketa-agiri berezi bat da, eta kontuko saldo erabilgarri eta gordailatua mobilizatzeko aukera ematen du**; hau da, kontu korrontearen edo aurrezki-kontuaren kargurako ordainketak egiteko aukera ematen dio titularrari.

Ordainketa-kargua ez da berehala egiten igorlearen kontuan; aitzitik, edukitzaileak berak erabakiko du txekea noiz kobratu –eskudirutan edo bankuko kontuan–. Ageriko ordainketa-agindua da.

Txekeak ale bakarreko agiriak dira, eta kode jakin bat dute, horien kopiarik ez egiteko. Txekeetan argi eta garbi adierazten da horien identifikazio-zenbakia eta kargu-kontua; baita kontu hori zein kreditu-erakunde eta sukurtsaletakoa den ere.

Txekeak ikustean ordaintzekoak dira; hau da, txekea egun jakin batean entregatzen bada, egun horretan bertan aurkez eta ordain daiteke, igorpen-data edozein izanda ere. Bestela esanda, txekea gaur entregatzen badigute, gaur bertan kobratu ahal izango dugu (haren hartzaile izanez gero); nahiz eta, txeke horren igorpen-data hamabost egun geroagokoa izan.

Hala ere, txekeak epe jakin batean kobratu behar dira. Txekeen baliozkotasun-epe hori aldatu egiten da, igorpen-lekuaren eta ordainketa-lekuaren arabera:

- ➔ Espainian igorritako txekea eta bertan ordaintzekoa: 15 egun.
- ➔ Europan igorritakoa eta Espainian ordaintzekoa: 20 egun.
- ➔ Europatik kanpo igorritakoa eta Espainian ordaintzekoa: 60 egun.

Epe horiek igorpen-datako egunetik hasten dira kontaktzen. Epe hori kontatzeko, jaiegunak ere aintzat hartuko dira, mugaegunekoa izan ezik. Mugaeguna jaieguna bada, hura hurrengo lehen lanegunera atzeratuko da.

Igorleak txekea ezeztatzeko aukera izango du, baina egintza horrek epea amaitu ondoren izango du eragina. Igorleak ezeztatze-egintzarik egin ez badu, txekea epe horiek igarota ere ordain dezake bankuak.

Txekea kobratzera aurkeztu, eta igorpendun kontuan ez badago hura ordaintzeko nahikoa diru, haren zati bat ordaindu beharko du bankuak. Ondoren, txekea itzuli beharko dio edukitzaileari, falta den zenbatekoa adieraziz. Edukitzaileak ezingo dio uko egin zatiko ordainketa horri.

Txekea ordaintzen ez bazaio, hartzaile/edukitzaileak auzitara eraman dezake igorlea. Auzitara jotzeko nahikoa izango du ez-ordaintzea gertatu dela adierazten duen agiria aurkeztea.

Txekea galdu, lapurtu edo hondatuz gero, edukitzaileak epailearengana jo dezake, txekearen hartzailea dela aitor diezaioten, eta hura hirugarren batek kobra ez dezan.

Titularitate-eskubideei eusteko beharrezkoak diren kontserbazio-ekintzak egin ditzake txekeaz gabetutako edukitzaileak. Txekea ordain diezaioten ere eska dezake, baina, horretarako, epaileak ezarritako fidantza edo abala eman beharko du.

Txekea eskudirutan kobra daiteke txekean bertan adierazitako kreditu-erakundearen sukurtsalean. Edukitzailea beste banku batera ere joan daiteke hura kobratzera, baina komisio bat kobratuko diote hura bere banku-kontuan sartzeagatik. Txekea “gurutzatua” bada, hartzailearen banku-kontu batean soilik kobratu ahal izango da.

Txekea ordaindu ondoren, hura kobratu izana frogatzen duen ordainagiri bat izenpetzea eska dezake bankuak.

Txekea ordainketa-modu segurua da; baina, hala ere, komeni da aholku hauei jarraitzea, iruzurrik gerta ez dadin:

- Ez da komenigarria izenpetutako txeke zuriak edukitzea.
- Txekea erabili behar den unean betetzea komeni da.
- Ez egin eramailearentzako txekerik, lapurtu edo galduz gero, edonork kobra baititzake.

Igorpen-moduak:

Zenbait txeke-mota daude, hartzaileak dirua jasotzeko duen eskubidearen nolakotasuna aintzat hartuta:

1. **Eramailearentzako txekea:** txekea duen edonork kobra dezake. Hartzailearen izena zehaztu beharrean, “eramailearentzako” dela adierazten da.
2. **Txeke izenduna:** berariaz adierazten da nori ordaindu behar zaion txekea.

3. **Txeke endosatua:** txeke izendunak endosagarriak dira; hau da, beste norbaiti besterentzeko aukera ematen dute. Hori egiteko, hartzaileak hura izenpetu, eta «Txeke honen ordezkari –ri ordain» («Páguese por este cheque a...») esaldia eta data jarri behar ditu txekearen atzealdean. Txekea endosuaren bidez igortzen duena endosu-emailea da, eta hura jasotzen duena, endosu-hartzailea. Endosu-hartzaileak zehazten ez bada, zurian egindako endosua izango da.
4. **Agindurakoak ez diren txeke izendunak:** «agindurakoa ez» dela («no a la orden») zehazten bada, hartzaileak ezingo du txekea endosatu.
5. **Txeke gurutzatu arrunta:** txekean bi lerro paralelo diagonal marrazten badira (lerro horiek hutsik edota idatzita egin daitezke; idatzita egonez gero, «bankua eta konpainia»/«banco y compañía» esaldia edo horren laburpena egon daiteke idatzita), hartzaileak banku-kontu jakin batean sartu beharko du dirua.
6. **Txeke gurutzatu berezia:** kobrantzarako zein bankutan aurkez daitezkeen adierazten da gurutzatutako lerroetan, txekearen zenbatekoa hartzailearen kontuan sartzeko.
7. **Txeke adostua:** txeke-mota honen bidez, igorlearen kontuan txekearen zenbatekoa adierazitako epean (normalean, hamabost egun) ordaintzeko adina diru dagoela ziurtatzen du bankuak. Komisio-tarifa zehazten da txeke-mota honi aplikatzen zaion komisioa. Komisio hori %0,1ekoa izaten da, gutxi gorabehera.

Txekeak behar bezala igortzeko baldintzak.

Honako baldintza hauek bete behar dira txekeak behar bezala betetzeko:

- «Txeke» izendapena izenburuan bertan adierazi behar da,
- Diru-kopuru jakin bat eurotan (edo kotizazio ofiziala duen moneta aldagarri batean) ordaintzeko agindu zuzena eta zehatza egin behar da,

- Txekea ordainduko duen kreditu-erakundearen (igorpenduna) izena –derrigorrez izan behar du kreditu-erakundea–, eta zordundutako kontuaren zenbakia adierazi behar dira,
- Txekea zein egunetan eta non igorri den adierazi behar da,
- Txekea igortzen duen pertsonaren, hau da, igorlearen sinadura (eskuz egina, ezinbestez),
- Ordaindu beharreko zenbatekoa adierazi behar da, letraz eta zenbakiz. Letraz adierazitako zenbatekoa eta zenbakiz adierazitakoa bat ez badatoz, letraz adierazitakoa izango da baliozkoa.

Txekeen aurreko aldearen adibidea:

Goian, ezkerrean, igorpendun bankuaren eta sukurtsalaren identifikazio-datuak adierazten dira; eskuinean, berriz, igorpendun banku-kontuaren kodea. Txekearen zenbatekoa bi lekutan adierazten da (zenbakiz eta letraz). Zenbateko hori ez bada bera bi leku horietan, letraz adierazitako zenbatekoa izango da baliozkoa. Behealdean, ezkerrean, txekearen identifikazio-datuak jasotzen dira, lehen azaldu dugun moduan, agiri bat eta bakarra baita.

Banku igorpendunaren izena XXX bulegoa XXXXXX, X zk. XXXXXX	Er. Bul. KD Kontu-zk. ccc 5555 4444 3,3 2222222222 IBAN xxxxx xxxxx x.x xxxxxxxxxx
	Eur. _____ €
TXEKE HONEN BIDEZ, _____ ri ordaindu _____ EURO	
20__ (e)ko _____ ren, (ea)n Data(letraz)	
Saila B 2. 6.845.981-2	

4.2. ORDAINDUKOA EDO ZOR-AGIRIA

Hau ere ordainketa-modu (eta kobrantza-modu) berezi bat da, eta diru-kopuru jakin bat noiz ordainduko den (edo haren zilegizko

hartzaileak noiz kobratuko duen) zehazten du. Ordaindukoa –zor-agiria ere esaten zaio– titulu formal eta osoa da, eta, horren bidez, pertsona jakin batek diru-kopuru jakin bat ordaintzeko konpromisoa hartzen du. Ordainketa egun eta leku zehatz batean egingo da, beste pertsona baten alde edo azken honen agindura. Agiriaren sinatzaile guztiek modu solidarioan obligatuko dira zenbateko hori ordaintzera. Beste hitz batzuetan esanda, ordaindukoaren igorleak konpromiso hau hartzen du: ordaindukoaren zilegizko hartzaileari, egun jakin batean, diru-kopuru jakin bat ordaintzea.

Igorpen-motak:

1. **Ordainduko izenduna:** ordainketa nori egin behar zaion zehazten du.
2. **Agindurako ordaindukoa:** pertsona bat izendatzen da, zeharka, kobrantza-eskubidearen titular.
3. **Agindurakoa ez den ordaindukoa:** “ez agindurakoa” formula erabiliz, sinatzaileak berariaz debekatzen du titulu hori endosu bidez besterentzea.
4. **Ordainduko zuria (edo eramailearentzako ordaindukoa):** maiz, ordaindukoek eramailearentzako ordainagirien lana egiten dute, eta, ondorioz, hura kobratu baino lehen, hartzailearen izena zehaztuz osatu behar dira. Gogoan izan behar da eramailearentzako ordaindukoek ez dutela Kanbio Agiriaren Legearen babesa.

Ordaindukoak behar bezala igortzeko baldintzak.

Baldintza hauek bete behar dira ordaindukoak behar bezala igortzeko:

- Berariaz izendatzea “ordainduko” gisa,
- Diru-kopuru bat ordaintzeko konpromiso zuzena eta zehatza egitea,
- Igorpen-data eta -lekua adieraztea,
- Ordainketa nori egin behar zaion edo ordainketa-agindua nork eman ahalko duen adieraztea. Ez dira onartzen eramailearentzako

ordaindukoak; beraz, beti igorri beharko dira norbaiten alde edo norbaiten izenean,

- Igortzaileak eskuz izenpetzea.
- Mugaeguna adieraztea,
- Ordainketa non egin behar den adieraztea.

Ordainduko baten aurreko aldearen adibidea:

Goian, ezkerrean, igorpendun bankuaren eta sukurtsalaren identifikazio-datuak adierazten dira, eta, eskuinean, berriz, igorpendun banku-kontuaren kodea. Ordaindukoaren zenbatekoa bi lekutan adierazten da (zenbakiz eta letraz). Zenbateko hori bera ez bada bi leku horietan, letraz adierazitako zenbatekoa izango da baliozkoa. Behealdean, ezkerrean, ordaindukoaren identifikazio-datuak adierazten dira, hau ere agiri bat eta bakarra baita.

Banku igorpendunaren izena xxx Bulegoa xxxxx, X zk. xxxx	Er. Bul. KD Kontu-zk. ccc 5555 4444 3,3 222222222 IBAN xxxx xxxx x.x xxxxxxxxxxxx Eur. _____ €
MUGAEGUNA: 20__ (e)ko _____ ren _____ (a)	
ORDAINAGIRI HONEN BIDEZ, ADIERAZITAKO MUGAEGUNA IRISTEAN _____ RI	
_____ (letraz) EURO	
ORDAINTZEKO KONPROMISOA HARTZEN DUT.	
20__ (e)ko _____ Data (letraz)	
Saila B. 2 6.791.784 - 2	

TXEKE ETA ORDAINDUKOEN ARTEKO ANTZEKOTASUNAK	TXEKE ETA ORDAINDUKOEN ARTEKO DIFERENTZIAK
<ul style="list-style-type: none"> • Bai bata zein bestea ordainketa-moduak (eta kobrantza-moduak) dira. • Biak agiri bakarrak dira. • Paperezko euskarria behar dute. • Ezin dira mekanikoki igorri bietan igortzailearen eskuzko sinadura behar baita. 	<ul style="list-style-type: none"> • Txekearen hartzaileak hura kobrantzarako aurkezteko epe bat du; ordaindukoan, berriz, aldeztu aurretik zehazten da zenbat ordainduko den, eta non eta noiz egingo den horren kobrantza. • Ordaindukoek ezin dute zuriak edo eramailearentzako izan.

4.3. BANKU-TRANSFERENTZIA

Banku-transferentziak ordainketa-aginduak dira. Bankuan edo aurrezki-kutxan kontu bat duen pertsonak hau agintzen dio bankuari: diru-kopuru jakin bat beste banku bateko kontu batera transferitzeko, kontuko saldoaren kargura. Transferentziaren onuraduna bidaltzailea bera edo hirugarren pertsona bat izan daiteke.

Txekeak edo ordaindukoak ez bezala, banku-transferentzia bidezko ordainketek kostu bat eragiten dute, eta kostu hori transferentzia agindu duenak ordaindu beharko du. Eragiketa horren azkartasunak eta erosotasunak merezi dezake kostu horri aurre egitea; esaterako, aldizkako ordainketak egin behar baditugu.

Halaber, banku-transferentziak egiteko ez da beharrezkoa (txekean eta ordaindukoan legez) paperezko euskarria, eta, ondorioz, haren erabilera mekanizatu egin daiteke, banka elektronikoen edo telefonikoen bidez.

Transferentzia egitea oso erraza eta azkarra da; betiere, transferentzia-hartzailearen banku-datu guztiak badauzkagu.

Transferentzia-motak:

- **Transferentzia arrunta:** zuzenean agintzen zaio bankuari transferentzia egitea, bai ahoz, eskutitzez, telefonoz edo Internetez. Transferentzia-mota hau erabiltzen da gehien.
- **Transferentzia magnetikoa:** diru-kopuru handiko transferentziak egiteko erabiltzen da bide hau. Transferentzia magnetikoak egiteko artxibo informatiko batean jaso behar dira transferentzia-onuradunen zerrenda, transferentzien zenbatekoa eta transferentzia zer kontutara egin behar den. Nominak ordaintzeko edo hornitzaileei ordaintzeko erabiltzen da batik bat, transferentzia-prozesu guztia automatikoa denez, transferentzia arrunta baino merkeagoa baita.
- **Moneta bakarrean egindako transferentzia:** transferentzia moneta berean egiten eta jasotzen da.
- **Bi monetetan egindako transferentzia:** transferentzia moneta batean kargatzen da, eta beste batean ordaintzen da.
- **Espainiako Bankuaren bidez egindako transferentziak:** Espainian jarduten duten banku eta aurrezki-kutxa guztiek Espainiako Bankuan dituzten kontu zentralizatuen artean egiten dira fondoan transferentziak.

Kostuak:

Transferentzia-agindua ematearekin batera, komisio bat aplikatuko digute (txekean eta ordaindukoan, kostuak egonez gero, kobratzaileak ordaindu beharko ditu). Komisio hori, banku-komisio gehienek moduan, transferitutako diru-kopuruaren portzentaje bat izango da, eta, normalean, gutxienez ordaindu beharreko diru-kopuru bat egongo da. Transferitutako diru-kopuruari portzentajea aplikatu ondoren, horren emaitza gutxienerako kopuruaren berdina edo txikiagoa bada, komisioaren zenbatekoa gutxienerako kopuru hori izango da.

Komisio hori, noski, negoziagarria da, eta lotura estua izango du transferentzia egiteko sistemarekin. Ez digute komisio bera aplikatuko

transferentzia banku-sukurtsal batean egiten badugu, edo banka elektronikoko sistema bat erabiliz egiten badugu: zenbat eta jende gehiago behar izan eragiketa egiteko, orduan eta handiagoa izango da aplikatuko zaigun komisioa, eta alderantziz.

Mugaz haraindiko transferentziak: Europar Batasuneko herrialdeen arteko transferentziak

- Pertsona fisiko edo juridiko batek (agindu-emaileak) Espainiatik edo Europar Batasuneko herrialderen batetik egindako transferentziak dira; betiere, transferentzia horren onuradunak (diru-hartzaileak) Europar Batasuneko beste herrialderen bateko –edo Espainiakoa, transferentzia Europar Batasuneko beste herrialde batetik badator– banku-konturen batean jasoko badu.
- Bankuek transferentzia-mota horien baldintza orokorrei buruzko informazio ulerterraza eman behar diete bezeroei. Halaber, bezeroek hala eskatuz gero, transferentzia horiek egiteko epeari eta kostuei buruzko konpromisoak hartu beharko dituzte.
- Transferentzia egin behar duen bankuak ez badu adostutako epea betetzen, kalte-ordain bat eman beharko dio transferentzia-agindua eman duen pertsonari. Ordainduko den kalte-ordaina diruaren interes-tasa legala bider 1,25 izango da; betiere, transferentziaren zenbatekoari aplikatuta. Aitzitik, transferitutako diru-funtsa hitzartutako epean eskuragarri ez izatearen errua onuradunaren bankuarena bada, azken horrek ordaindu beharko du kalte-ordaina.
- Transferentzia-agindua onartu ondoren, hura egin behar duen bankuak agindutako zenbateko guztia transferitu beharko du, kasu honetan izan ezik: agindu-emaileak onuradunaren gain utzi badu transferentziaren gastu guztiak edo zati bat ordaintzearen ardura. Azken kasu horretan, agindu-emailearen bankuak horren berri eman beharko die, bai onuradunaren bankuari, bai, hala baleude, bitartekariei.
- Agindu-emailearen bankuak onartu egin badu transferentzia-agindua, eta hitzartutako diru-funtsa ez bada onuradunaren banku-kontuan abonatzen, banku horrek, agindu-emaileak hala eskatuta,

transferentziaren zenbatekoa ordaindu beharko dio, gehi honako zenbateko hauek:

- diruaren interes-tasa legala bider 1,25, transferentziaren zenbatekoari aplikatuta, eta
- agindu-emaileak ordaindutako transferentzia-gastuak.

Zenbateko hori ezingo da 12.500 euro baino handiagoa izan.

- Zenbateko horiek banku-sektoreko hamalau lanegunetan ordaindu beharko dira, zenbateko horien eskaera egiten denetik kontatzen hasita. Hori horrela izango da, kasu honetan izan ezik: bitarte horretan transferentzia-aginduari dagozkion diru-funtsak onuradunaren banku-kontuan abonatzen badira.
- 2003ko uztailaren 1etik aurrera, mugaz haraindiko transferentziek, 12.500 eurora iristen ez badira, transferentzia nazionalen kostu bera izan beharko dute.
- 2006ko urtarrilaren 1etik aurrera, mugaz haraindiko transferentziek, 50.000 eurotik beherakoak badira, eragiketa nazionalen pareko kostuak izan beharko dute.

4.4. BANKU-ORDAINAGIRIA/HELBIDERATZEA

Banku-ordainagiria ordainketa- eta kobrantza-modu berezi bat da; eta, normalean, argindar-konpainiei, telefono-enpresei, ur-partzuergoei eta abarrei ordaintzeko erabiltzen da. Ordainketa egiteko interesa duenak ordainketa-agindu bat ematen dio bankuari, enpresa horiekiko zorrak ordain ditzan. Hortaz, zorra kobratzeko mugaeguna iristean, bankuak zorrari dagokion diru-kopurua ordainduko du, agindu-emailearen kontutik.

“Helbideratze” horren bidez, ordainketak egitea oso erraza da (dirua eta tramiteak aurrezten dira). Etxean egin behar izaten ditugun aldizkako ordainketak gure bankuko konturen batean helbideratuz gero, ez dugu ordainagiriak bidaltzen dizkiguten enpresen egoitzaraino joan beharko horiek ordaintzera.

Ildo horretatik, **pentsioak edo nominak helbideratuz gero**, bankuak zuzenean abonatuko dizkigu geure kontuan.

Banku-ordainagiriak egiteko bete behar diren baldintzak:

Banku-kontuen kontrako ordainagiriak egiteko, titularrak baimena eman behar du, eskuz izenpetuta, eta ale bikoitzean. Ale batean kontuaren kontrako ordainagiriak egiteko baimena emango dio enpresari, eta, bestean, berriz, enpresa hark aurkeztutako ordainagiriak haren kontuan kargatzeko baimena emango dio bankuari, besterik esan arte. Ordainagiriak egiteko, kreditu-erakundeek datu-baseetan jasotzen dituzte bezeroen datuak. Datu hauek jasotzen dituzte:

- Izena edo sozietate-izena.
- Ordainketa egiteko banku eta sukurtsalaren identifikazio-kodea.
- Kargu-kontuaren zenbakia.
- Kontu-titularraren izena.
- Titularraren helbidea.
- Herria eta probintzia.
- Posta-kodea.

Ordainagiriak edo fakturek ordainketaren azalpena jaso beharko dute, baita bankuaren datu hauek ere:

- Bankuaren izena edo sozietate-izena eta Identifikazio Fiskaleko Zenbakia.
- Ordainagiriaren azalpena, eta, faktura baten edo gehiagoren kitapena egiten bada, likidatutako faktura guztien identifikazioa.
- Ordainagiriaren mugaeguna.
- Zordunaren datu guztiak.
- Ordainagiriaren zenbatekoa, eta hari aplikatutako BEZaren tasa eta zenbatekoa.

Fakturen ordainketak egiteko beharrezkoak diren datu eta baimen guztiak eskuratu ondoren, bankuak automatikoki egingo ditu ordainagiriak. Txkeak eta ordaindukoak, ostera, ezin dira mekanikoki osatu, igorlearen eskuzko izenpea behar baitute.

Kostuak:

Transferentziekin gertatzen den moduan, bezeroak komisio bat ordaindu beharko du banku-eragiketa honegatik ere. Ildo horretatik, komisio hori aldatu egingo da, informazioa bankuari emateko bidea bat izan, ala bestea izan. Ordainagiria euskarri magnetikoan eginez gero, horren gaineko komisioa paperean egiteagatik aplikatutakoa baino txikiagoa izango da.

4.5. BANKU-TXARTELA

Plastikozko txartela da, banda magnetikoduna. Banda horrek identitate bat eta bakarra ematen dio txartelari, eta, horri esker, haren titularrak banku-kontuko diru-funtsak mugi ditzake.

Zor- edo kreditu-txartela da partikularrek dirua ateratzeko eta ordainketak egiteko gehien erabiltzen duten bitartekoa. Hortaz, banku-txartelek honako bi helburu nagusi hauek dituzte:

- eskudirua ematea,
- ordainketak egitea.


Banku-txartela ordainketak egiteko erabiliz gero, transferentzia bat egiten da bezeroaren banku-kontutik produktu edo zerbitzuaren hornitzailearen banku-kontura. Transferentzia-kostua azken horrek ordaindu beharko du.

→ **Eskudirua ateratzea:** Kutxazain automatikoa → PINa (kode edo zenbaki sekretua, normalean, lau karakterekoa).


→ **Ordainketa-modua:** Dendetan → Salmenta-puntuako terminaletik
(Sinadura)
(NAN)
(PINa)

ESKUDIRUA ATERATZEA

Bankura joanda:



Txartela erabiliz:



Banku-txartelen eskurapena:

Banku-txartela kontu jakin batekin lotzen da, eta kontu horretan kargatuko dira harekin egindako eragiketak. Kontuaren gain txartel bat baino gehiago egin daiteke, horren kargura eragiketak egingo dituzten pertsona adina. Esaterako, enpresa batek langileek banku-txartel bana izatea nahi badu, enpresak kontu bakarra izango du, baina langile adina txartel eskatuko ditu. Txartel bakoitzak identifikazio propioa izango du (serie-zenbaki propioa), baita erabilgarritasun-muga edo ordaintzeko gaitasun propioa ere.

Txartelekin sortu obi diren arazoak:

Banku-txartelek lasaitasuna ematen digute, horiei esker ez baitugu gainean dirurik eramateko premiarik; hala ere, badituzte zenbait arrisku. Horietako bat txartelak ez funtzionatzea da, bai banda magnetikoak huts egin duelako, bai kreditua agortu egin zaigulako.

Alabaina, txartela lapurtzeak sor ditzake arrisku gehien. Lapurto egin badigute, lehenbailehen begiratu behar dugu txartelak falta ote zaizkigun, eta, hala bada, berehala blokeatu behar ditugu. Txartelak telefono-dei baten bidez blokea ditzakegu, eta horien iruzurrezko erabilpenak eragotzi. Gainera, hala nahi izanez gero, aseguru bat kontrata dezakegu, txartelen lapurreta edo galera estaltzeko.

Alabaina, Europar Batasuneko 88/590/EB gomendioaren (gerora 97/489/EB gomendioak aldatua) aholkuen eta 1990eko azaroaren 14ko banku-sektorearen Jardunbide Egokien Kodeak txartel bidezko ordainketei buruz ezartzen duenaren arabera, lapurtutako edo galdutako zorduntze- edo kreditu-txartelaren iruzurrezko erabilerarik egin balitz haren titularrak egoera hori salatu baino lehen, titular horren erantzukizuna diru-kopuru jakin batera (150 euro) mugatuko da. Hala ere, titularrak ez du zabarkeria larriko edo iruzurrezko jokabiderik izan behar, eta lehenbailehen jakinarazi behar dio gertatutakoa bankuari.

Txartela galdu, lapurtu edo kopiatzen badigute, iruzurrez egindako karguak baliogabetzeko lehen urratsa poliziarengana joan eta gertatutakoaren salaketa egitea da. Ondoren, salaketaren fotokopia bat eta egoera azaltzen duen idatzi bat eman beharko dizkiogu bankuari.

Segurtasun-neurriak.

Banku-txartelik izanez gero, komenigarria da oinarritzko segurtasun-neurri hauek hartzea:

- Txartela jasotakoan, berehala izenpetzea.
- PINak ez du izan behar asma erraza. Ez ditugu begien bistako zenbakiak aukeratu behar; esaterako, gure telefono-zenbakia edo jaiotze-data.
- PINa isilpean gordetzea; hau da, memoriaz ikastea, idatzi beharrik ez izateko.
- Aldizka begiratu behar diogu kontuaren saldoari edo txartelarekin egindako mugimenduei.
- Eragiketen ticketak gorde edo puskatu egin behar ditugu, txartelaren zenbakia eta iraungitze-data jasotzen badute.

Bi banku-txartel mota daude:

- **Zorduntze-txartela.**
- **Kreditu-txartela.**

4.5.1. ZORDUNTZE-TXARTELA

Zorduntze-txartela ordainketa-modu berezi bat da, eta, horren bidez, kargu zuzenak eta berehalakoak egiten dira titularraren kontuan; hau da, txartelaz ateratako dirua edo hura erabiliz egindako erosketen zenbatekoa berehala kentzen da kontuaren saldotik. Beraz, txartel-mota honen eguneroko diru-eskuragarritasunaren muga titularrak berak erabakiko du.

Dirua ateratzean edo ordainketa bat egitean, kutzazainak edo salmenta-puntuko terminalak hura egiteko baimena eskatzen dio txartela eman duen bankuari, denbora errealean. Baimen-eskaera jasotzean, kontu korronteak (edo aurrezki-libretak) eskatutako transakzioa egiteko nahikoa saldoa duela egiaztatzen du bankuko zerbitzariak.

Egiaztapena egin eta baimena eman ondoren, ateratako diruaren edo erositako produktu edo zerbitzuaren zenbatekoa kargatzen zaio kontu korrontearen (edo aurrezki-libretaren) saldoari. Zorduntze-txarteletan kargua berehalakoa da.

Ia arriskurik gabeko produktuak direnez, bankuek mota honetako txartel ugari eskaintzen dizkiete bezeroei, eta horietako bat lortzeko, nahikoa da kontu bat irekita izatea.

Ezaugarriak:

- Txartelak nominatiboak dira, eta horien titularrak pertsona fisikoak dira.
- Txartela erabiliz egindako karguak berehala eta automatikoki zorduntzen dira txartelari lotutako kontuan.
- Txartelen iraungipen-epaia urtebete baino luzeagoa izaten da, arrisku txikiko produktuak baitira kreditu-erakundeentzat.
- Onuradunentzako beste txartel batzuk egiteko aukera ematen dute, txartel titularraren kargu-kontuaren gain. Txartel horiek guztiak bakarrak eta besterendu ezinak dira, nahiz eta kargu-kontu berari lotuta egon.

- Komisio txikiak aplikatzen zaizkie. Lehen, ez zen eskuragarritasunagatiko komisorik aplikatzen kutxazain automatikoetatik dirua ateratzeagatik. Azkenaldian, ordea, komisio hori aplikatzen da dirua txartelari ez dagokion sarean ateratzen bada, edo, sare berekoa izan arren, kutxazaina txartela eman duen bankuari ez badagokio.
- Banku-txartelek ez dute komisorik sortzen dendetan erabiltzeagatik.
- Zorduntze-txartelek ez zuten atxikitako zerbitzurik ematen, baina, egun, egoera aldatzen ari da. Banku batzuek aseguruak atxikitzen dizkiete txartelei, bai kutxazainetan egindako lapurretak estaltzeko, bai, txartelaz ordainduz gero, erositako produktuen lapurreta estaltzeko.
- Txartel horien erabilera-eremua, normalean, estatura mugatzen da; baina, estatuko bankuen eta atzerriko bankuen arteko hitzarmenen bidez, beste herrialde batzuetan ere erabil daitezke.

4.5.2. KREDITU-TXARTELA

Kreditu-txartelen titularrek bi zerbitzu jasoko dituzte: alde batetik, kontratuan hitzartutako muga arteko likidezia izango dute, eta, bestetik, erosketak ordaintzeko erabili ahal izango dute. Beraz, kreditu-txartelak dendetan ordainketak egiteko eta kutxazain automatikoetatik eta banku-sukurtsaletatik dirua ateratzeko erabiltzen dira. Kreditu-txartelak estatuan eta atzerrian erabil daitezke.

Kutxazainetik dirua ateratzean edo txartelaz erosketak bat egitean, kutxazainak berak edo salmenta-puntuko terminalak baimena eskatzen dio txartela eman duen finantza-erakundeari. Une horretan, bankuko zerbitzariak txartelari esleitutako kredituari begiratzen dio; hau da, txartelaren titularrak eragiketa egiteko nahikoa saldo duen ala ez egiaztatzen du.

Eragiketa baimentzen bada, txartelak erabilgarri duen kredituaren gain egingo da kargua.

Kreditu-txartelarekin batera, bankuek finantziazioa ematen diete bezeroei, eta, ondorioz, bankuek horrek ekar ditzakeen arriskuak

neurtzen dituzte. Hori dela-eta, aldizkako diru-sarrera iraunkorrak jasotzea (edo, hala badagokio, nomina helbideratzea) eskatzen da produktu horiek kontratatu ahal izateko.

Txartel-motak

- 1.- Txartel klasikoak: kreditu-txartel mota hau erabiltzen da gehien (Visa Classic, Mastercard, American Express, etab.).
- 2.- Urrezko eta platinozko txartelak: kreditu-txartelen gamaren goi-mailako txartelak dira, eta urre- edo platino-kolorekoak izaten dira. Bankuetako bezero onenei soilik ematen zaizkie (Visa Oro, American Express Oro, etab.).
- 3.- Txartel bereziak: txartel klasikoek ematen dituzten zerbitzuez gain, beste zerbitzu berezi batzuk ematen dituzte. Hainbat aurki ditzakegu; esaterako, Golf Visa (golfarekin zerikusia duten zerbitzu anitz ematen dute: golf-makilak haustea estaltzen duen aseguru, etab.) eta Ehiztarien Visa (ehiza-baimenak doan tramitzatzeko aukera ematen dute, ehiztariantzako aseguru bereziak izatekoa, etab.).

Komisioak

Kreditu-txarteletako komisioak dira bankuek gehien aplikatzen dituztenetakoak. Bi motatakoak dira, nagusiki:

- a) Txartela eman edo berritzeagatiko urteroko komisioa: txartel klasikoetan 12,02-48,08 euro artekoa izaten da urtero, eta urrezko eta platinozko txarteletan, berriz, 42,07-180,30 euro artekoa
- b) Eskudirua ateratzeko eragiketak egiteagatiko komisioa: normalean, %2 edo gutxienerako kopuru bat (1,35-2,10 euro) aplikatzen zaio eragiketari hura bankuaren kutzazain eta sukurtsal batean egin bada, eta %4 edo gutxienerako kopuru bat (2,10-2,70 euro) beste kutzazain eta sukurtsal batean egin bada.

Finantza-erakunde batzuek txartela eman edo berritzeagatiko komisioak negoziatzeko aukera ematen dute, eta ohikoa izaten da hura lehen urtean ez aplikatzea, nomina sukurtsalean helbideratuta

badugu edota sukurtsal berean beste produktu batzuk (esaterako, maileguak, eperako ezarpenak, etab) kontratatu baditugu. Halaber, txartel nagusiek eta horien txartel elkartu edo baimenduek, sarritan, komisiio desberdinak izaten dituzte.

Kredituaren likidazioa eta ordainketa geroratua

Kreditu-txartelaren titularrak berak erabaki dezake zein ordainketa-mota komeni zaion.

- a) Erabilitako kredituaren %100 ordaintzea hilero, mugaeguna iristean: hauxe da gehien erabilitakoa, ez baitu kostu gehigarririk eragiten.
- b) Zenbateko finkoa: ordainketa-mota hau aukeratuz gero, hilero ordainduko den gehieneko zenbatekoa finkatzen da; horrenbestez, erabilitako kredituaren interesak kalkulatu eta kontuan kargatzen dira. Halaber, ordainagiriaren kopuru osoraino dagoen diferentzia erabilitako diruaren amortizazio gisa kargatzen da. Hala gertatuz gero, hurrengo hilean, txartelaren gehieneko mugari amortizatzeko falta den kopurua murriztuko zaio.
- c) Erabilitakoaren gaineko portzentajea: ordainketa-mota honen funtzionamendua aurrekoaren berdina da, baina, kasu honetan, ordaindu beharreko zenbatekoa erabilitako kredituaren portzentaje bat izaten da, eta gutxieneko bat izaten du.

Atxikitako aseguruak

Kreditu-txartelek beti izaten dute atxikita istripu-aseguru bat, eta aseguru hori bidaiaren bat txartelarekin ordaintzen bada jarriko da indarrean. Txartel klasikoetako aseguruak 120-180 mila euro arteko kopuruak estaltzen dituzte, eta urrezko txarteletakoek, berriz, 600 mila euro artekoak.

Kreditu-txartelek bidaiako asistentzia-aseguruak eta ekipajeen galera estaltzen duten aseguruak izaten dituzte. Horrez gain, banku askok doako istripu-aseguruak ere eskaintzen dituzte eguneroko bizitzako ekintzetarako. Azken aseguru horiek 6.000-12.000 euro arteko estaldura ematen dute, heriotza edo ezintasun iraunkorra gertatuz gero.

4.5.3. KUTXAZAIN AUTOMATIKOA

Makina elektronikoak dira, eta banku-eragiketak egiteko aukera ematen diete horien erabiltzaileei, eguneko edozein ordutan. Kutxazainak erabiltzen dituztenek, beraz, ez dute bankura joan beharrik eragiketa horiek egiteko. Zerbitzu hori erabili ahal izateko, kontu korrante bati edo aurrezki-libreta bati lotutako zorduntze-edo kreditu-txartel bat kontratatu behar da, eta txartel horrek isilpeko zenbaki bat izan beharko du. Hainbat lekutan aurki ditzakegu kutxazain automatikoak:

- kalean,
- banku-bulegoen barruan,
- banku-bulegoen sarreran, segurtasuneko bi ateran artean,
- hoteletan,
- eta merkataritza-gune erraldoietan, besteak beste.

Dirua eskudirutan atera nahi badugu, eguneroko eragiketetarako finkatutako gehienezko diru-muga arteko zenbatekoak ateratzen utziko digu kutxazainak. Gehienezko muga horren zenbatekoa titularrak hitzartuko du bankuarekin.

Ia banku guztiak kobratzen dute komisio bat erabiltzaileak beste banku bateko kutxazainen bat erabiltzen badu, nahiz eta, erabilitako kutxazaina bankuaren kutxazain-sare berekoa izan. 2004ko apirilaren 1az geroztik, eragiketa bakoitzari aplikatuko zaion gehienezko komisioa ikusteko aukera dute bezeroek, eta, ondorioz, une oro jakin dezakete eragiketak izango duen kostua.

4.6. DIRU-ZORRO ELEKTRONIKOA

Azken belaunaldiko ordainketa-modua da “diru-zorro elektronikoa”, eta hau ere bankuek bezeroei emandako plastikozko txartela da. Diru-zorro elektronikoaren formatua txartelen formatu bera da, baina, banda magnetiko bat izan beharrean, mikroprozesadore bat edo txip bat dute, eta bertan jasotzen da haren titularrari buruzko

informazio guztia –datu pertsonalak eta eskudiru erabilgarria barne–. Banda magnetikodun txartelak ez bezala, teknologia horri esker, diru-zorroa haren saldoa telefonoz egiaztatu gabe erabil daiteke.

Diru-zorro elektronikoa zenbateko txikiko erosketak ordaintzeko egina dago; ondorioz, tabernek, prentsa-kioskoek, gasolindegiek, otordu lasterreko jatetxeek, taxiak eta antzeko lekuek ematen dute hura erabiltzeko aukera. Produktuak saltzen dituzten makinetan ere erabil daiteke.

Erosketa txikiak egiteko pentsatuta dagoenez, titularrak ezingo du bertan diru-kopuru handirik izan, baina nahi adina alditan sartu ahal izango du dirua, gehienezko mugara arte. Kutzazainak erabil daitezke diru-sarrera horiek egiteko.

5 - BANKUEK EMANDAKO BESTE ZERBITZU BATZUK

5. BANKUEK EMANDAKO BESTE ZERBITZU BATZUK

- 5.1. Asegurua
- 5.2. Segurtasun-kutxa
- 5.3. Zerga-bilketa, zerga-itzulpenak, eta herritarren eta erakunde publikoen arteko bitartekaritza
- 5.4. Dibisen salmenta-erosketa
- 5.5. Postontzi-zerbitzu iraunkorra

5.1. ASEGURUA

Ustekabekoez eraginiko ondorioez babesteko behararengatik sortu zen aseguru, horiei aurre egiteko gaitasuna nahikoa ez zenerako, hain zuzen. Alde horretatik, aseguruak oinarrizko funtzioa du: elkartasuna. Aseguratuen kolektiboak, primak ordainduz, edozein kidek gertaera negatiboren bat (ezbeharra) izateagatik jasandako ondorio negatiboak konpontzen laguntzen du.

Aseguru ez-profesionalak jarduera profesionalarekin loturarik ez duten aseguruak dira; hau da, jendeak kontraturiko aseguruak dira, beren jarduera dena dela. Aseguru ez-profesional nagusiak hauek dira:

Ondasunen aseguru	{ Ibilgailuen aseguru Etxebizitzaren arrisku anitzeko aseguru
Pertsonen aseguru	{ Gaixotasun-aseguru Osasun laguntzako aseguru Istripu-aseguru Bizitza-aseguru: - Bizitza-aseguru soila - Biziraupen-aseguru - Arrisku- edo aurrezki-aseguru mistoa

Ibilgailuen aseguria. Nahitaezkoa da motorrezko ibilgailuren batez zirkulatzen duen edonorentzat. Gutxienez, hirugarren pertsonetikiko erantzukizuna estali behar du.

Etxebizitzaren arrisku anitzeko aseguria. Batez ere, hainbat ezbeharrek (esaterako, suteak, ur-isuriak, gas-jarioak eta kristalena hausturak) etxebizitzan eragindako kalteak estaltzen ditu, bai eta hormetako eta sabaietako hezetasunak, ezbeharrek eta abarrek hirugarrenei eraginiko kaltearen erantzukizun zibila ere.

Gaixotasun aseguria. Konpentsazio bat da, gaixotasunagatik baja kasuetarako, eta, hala badagokio, aseguratuaren gaixotasunak eraginiko gastu medikoak ere hartzen ditu bere baitan. Ospitaleratzea ere sartzen da, hori beharrezkoa balitz.

Osasun laguntzako aseguria. Osasun laguntza bakarrik estaltzen du aseguru mota horrek. Aseguru-etxeak hartzen ditu bere gain aseguratuari polizaren baitan eman beharreko medikuntzako eta kirurgiako zerbitzuak.

Istripu-asegurua. Aseguru horren bidez, onuradunari kontratuan hitzartutako kapitalak jasoko dituela bermatzen zaio, aseguratuak istripuren baten ondorioz heriotza edo ezintasuna (aldi baterakoa nahiz iraunkorra) eragiten dion lesiorik jasaten baditu.

Bizitza-aseguruak.

- *Bizitza-aseguru “soila”.* Arrisku edo “heriotza kasuetarako” aseguru ere esaten diote. Aseguratutako pertsonaren heriotza arriskua estaltzen du.
- *Biziraupen- edo aurrezki-asegurua,* “bizitza kasuetarako”. Aseguratuak adin jakin batetik harago bizirautea aurreikusten du aseguru-mota horrek.
- *Arrisku- edo aurrezki-aseguru mistoa.* Aurreko bi aukerak hartzen ditu kontuan: aseguratuaren heriotza edo hura denbora epe jakin batetik harago bizirautea.

Biziraupen-asegurua aurrezki-mota bat da. Horrenbestez, polizaren epemugan, aseguratuak honako aukera hauek izango ditu:

- a) Kapital osoa jasotzea. Aseguru-etxeak metaturiko kapital osoa ordainduko dio aseguruaren hartzaileari edo onuradunari.
- b) Kapitala errenta baten bidez jasotzea. Baliteke aseguruak nahiago izatea kapitala aldi baterako edo bizitza guztirako errenta bihurtzea. Bi kasuetan, aseguruak zehaztuko du errenta horren aldizkakotasuna (hilekoa, hiruhilekoa, urtekoa).
- c) Egoera mistoa. Kapitalaren zati bat jasotzea, eta gainerakoa aldizkako edo bizitza guztirako errenta bihurtzea.

Bankuek, gero eta gehiago, edozein aseguru-mota kontratatzeke aukera ematen diete beren bezeroei. Hain zuzen, bitartekari-lana egiten dute aseguru- etxe baten –bankuaren enpresa-talde berekoa izan ohi da– eta bezeroaren artean. Asegurua kontratatzean eta polizaren iraunaldi-epean izandako izapide guztiez arduratzen dira

Bitartekari den aldetik, erakundeak:

1. Bezeroaren beharrak aztertu, eta hobekien egokitzen zaion aseguruaren informazioa eskatuko du.
2. Bezeroari informazioa emango dio, haren eskakizunekin bat datozen eta bankuak eskaintzen dituen aseguruari buruz.
3. Primaren ordainketa zorpetuko du polizaren aseguruaren/hartzailearen kontuan.

Bankuetako aseguru-etxeak:

1. Arriskua onartu ala ez aztertuko du.
2. Bizpahiru eguneko epean emango du erantzuna. Bezeroak, ados badago, aseguru-eskaera sinatuko du.
3. Behin betiko poliza bidaliko dio etxera bezeroari, sinatu eta egun batzuetara.

Aseguruak/bezeroak ustekabe edo ezbehar guztien berri eman behar dio bankuari, eta honek egingo ditu izapide guztiak.

Poliza indarrean dagoen bitartean, ezbeharren bat gertatzen bada, aseguruak horren berri eman behar dio aseguru-etxeari. Egiaztagiriz guztiak emango dizkio, eta, beharrezkoa balitz, parte bat beteko du, gertakizunaren xehetasunak adierazteko. Bankua arduratuko da

gainerako izapide guztiez. Ezbeharraren prozesuarekin loturiko izapideen berri emango dio bezeroari; aseguru-mota nolakoa, halakoak izango dira egin beharreko izapideak.

5.2. SEGURTASUN-KUTXA

Bezeroek baliozko ondasunak (esaterako, urrea, bitxiak, dokumentuak eta bildumak) gordetzeko leku seguru bat izateko ematen dute zerbitzu hori bankuek. Horrela, objektu horiek leku seguruago batean daude gordeta, eta, gainera, horien existentzia isilpean izateko ere balio du, jabeak horiek zirkulaziotik at gorde nahi baditu.

Zerbitzu hori errentamendu-kontratu baten bidez formalizatzen da, eta bertan ezartzen dira horren ezaugarriak eta alde bakoitzaren betebeharrak; esaterako:

- Kutxak gordetzeko lekuak bankuaren instalazioetan egon behar du.
- Nahitaezkoa da sinaduren erregistro-liburua izatea.
- Edozein objektu onartzea horietan gordetzeko, legez kontrako merkantziak izan ezik. Irregularitasunaren bat susmatuz gero, kutxa bezeroaren aurrean ikuskatzeko eskubidea du bankuak.
- Alokaturako kutxa itxita eduki behar du beti bankuak, eta hura normaltasunez erabiltzen utzi ere.
- Bankuak bezeroaren kaudimena azter dezake. Horren emaitzaren arabera, gordailua ez onartzeko aukera du.
- Bezeroak soilik (bankuaren ordezkariarekin batera) sartu ahal izango du alokaturiko kutxa gordetzen den lekuan.

Oro har, kontratua urte baterako izan ohi da, eta automatikoki berritzen da, gordailu-egileak epemuga baino lehen berritu nahi ez duela adierazten ez badu.

Kontratua sinatu eta gero, titularrak edo titularrek sinaduren erregistro-liburuan sinatuko dute, eta sinadurak egiaztatu egingo dira bezeroa

alokaturiko eremuan sartzen den bakoitzean. Bestalde, bankuak edo aurrezki kutxak bi giltza (berdinak) emango dizkio kutxa irekitzeko, bakarra horretarako nahikoa bada ere.

Alokairu-kuota ordaintzen ez bada, edo, bezeroak, kontratua iraungi eta gero, giltzak itzultzen ez baditu, bankuak, dagokion zehapena ezartzeaz gain, kutxa ireki dezake.

Dena den, komeni da bezeroak gordailuan utzitako ondasunak lapurreta eta espoliazio-aseguru baten bidez aseguratuta izatea, diru-kopuru jakin batez. Hori bankuaren bidez kontratatu daiteke aseguru-etxe batekin, edo bezeroak bere kabuz egin.

Bezeroak leku horretan bere segurtasun-kutxa irekitzeko sartu behar duen bakoitzean, honako urrats hauei jarraitu behar die:

1. Erregistro-liburuan sinatu behar du, eta izena, eguna, ordua eta kutxaren zenbakia adierazi. Sinadura benetakoa den egiaztatuko da.
2. Bankuko langile batek laguntzen diola, kutxa irekiko du, bi giltza ezberdin erabiliz. Horietako bat kutxa alokatzean emandako bi giltzetako bat izango da, eta, bestea, berriz, bankuko langileak eramango duen giltza orokorra. Giltza horrek ez ditu berez kutxa guztiak irekitzen, baina beharrezkoa da, bezeroaren giltzarekin batera, kutxaren irekitze- sistema aktibatzeko, segurtasun-neurri gisa.

Giltzaren bat galduz gero, erantzukizuna giltza horren titularrarena bakarrik izango da, eta bere gain hartu beharko ditu sarraila aldatzeak eraginiko gastuak.

5.3. ZERGA-BILKETA, ZERGA-ITZULPENAK, ETA HERRITARREN ETA ERAKUNDE PUBLIKOEN ARTEKO BITARTEKARITZA

Zerbitzu honen bidez, edozein banketxek bitartekaritza lanak egiten ditu dagokion zerga-administrazioaren (lurralde historikoetako foru aldundiak) eta beren bezeroen artean. Bankuek baliabideak (langileak)

jartzen dituzte bezeroen esanetara, horien zerga-aitorpenak egiteko. Horrela, bezeroak ez du zerga-erakundeetara joaten ibili beharrik, zergak ordaintzeko edo dagokion zerga-itzulpenak jasotzeko.

Gizarte Segurantzaren (Lan eta Gizarte Gaietarako Ministerioa) eta bezeroen arteko **bitartekaritza** lanak egiten ere jarduten dute. Edonolako gizarte-aseguruekin lotutako izapideak egiten dituzte, bai eta dagokion likidazioa zordundu edo ordaindu ere.

5.4. DIBISEN SALMENTA-EROSKETA

Zerbitzu horren bidez, kreditu-erakundeek Espainiako moneta atzerriko beste monetaren batekin trukutzen dute, edo alderantziz, bai bulegoetako leihatiletan bertan, bai bezeroaren kontuan zordunduz edo ordainduz.

Eragiketa hori oso ohikoa da. Normalean, atzerrira bidaiatzeko, euroak eta atzerriko dibisak trukutzen dira.

5.5. POSTONTZI-ZERBITZU IRAUNKORRA

Bezeroek segurtasun-etzaren sentiaziorik ez izateko, deseroso ez sentitzeko, balio du zerbitzu horrek. Dirua postontzi batzuetan sartzeko aukera ematen du: helburu horretarako sortuak dira eta bide publikotik sarrera dute. Horrela, bezeroak ez badu nahi soinean diru-kopuru handirik, diru-bilketarik eta abar eraman, hurbilen duen bulegora joan daiteke diru hori bertan uzteko, eguneko edozein ordutan.

Bankuek poltsa berezi batzuk dituzte dirua gordetzeko. Horietan, besteak beste, enpresen egunero fakturatutako dirua sar daiteke, eta, hala eginez gero, diru horren zenbatekoa eta enpresaren izena zehazten dituen idatzi batez lagunduta utzi beharko da postontzian. Horrelako kasuetarako, bankuak giltza bat emango dio bezeroari, postontzia eguneko edozein ordutan erabili ahal izateko. Kontu batean dirua sartzea bezala da.

6 - ZORPET'ZEA

6. ZORPETZEA

- 6.1. Zorpetzea, etxeko ekonomian
- 6.2. Gainzorpetzeari aurre egiteko gomendioak
- 6.3. Familien gainzorpetzearen bilakaera

6.1. ZORPETZEA, ETXECO EKONOMIAN

Bizitzan, bada jendeak aurre egin beharreko hainbat inbertsio (esaterako, etxebizitza, autoa, garajea) eta gastu (adibidez, janariak, jantziak, hezkuntza eta turismo-bidaia).

Ordainketei aurre egiteko bi modu daude: funts propioak erabiltzea (lanaren, negozioen edo errenten bidez lortutakoak) **edo** **besteren funtsak** erabiltzea (finantza-erakundeek interes-tasa jakin baten truke emandako mailegu eta kredituen bidez lortutakoak).

Pertsona bat zorpetuta dago kanpo-finantziazio bideetara jotzen duenean; hau da, “etorkizunean eskuratu ahal izango dituen diruaren erabilera” nolabait “aurreratzen duenean”. Noski, zorpetze-mailak ez du zertan arriskutsua izan, hura neurritzkoa bada; eta, gainera, baliteke hori izatea kontsumitzaileak ondasun eta zerbitzu jakin batzuk lortzeko bide bakarra. Horrenbestez, gizartearen ongizatea eta bizitza-maila hobetzeko balio du.

Hona hemen zein den kanpo-finantzazioaren arriskua: kontsumitzailea, kontsumo-gizarteak, publizitate-mezuek edota interes-tasa txikiek bultzatuta, **gehiegizko zorpetze-egoeran (“gainzorpetzea”) sartzea**.

“Gainzorpetuz” gero, kontsumitzaileak ezingo die aurre egin banku, aurrezki-kutxa edo finantza-erakundeekin dituen zorrei. Zenbaitetan, gehiegizko zorrak hartzea kontsumoarekiko menpetasunarekin lotzen da, eta, zenbaitetan, baita neurri gabeko kontsumoarekin ere. Kreditua ez da erabiltzen oinarritzko premiak finantzatzeko, behar-beharrezkoak ez diren gauzak finantzatzeko baizik: oporraldiak, udako etxea, edo merkatuko autorik onena.

Beraz, gehiegizko zorrak hartzeak, batetik, eta zenbait ustekaberengatik kredituei aurre egiteko ezintasunak, bestetik, kontsumitzailea gainzorpetze-egoeran sartzea eragin dezakete.

Lehen kasuan, kontsumitzailearen egoera gainzorpetze aktiboa da, gehiegizko kontsumoarekin lotutakoa. Hala ere, gainzorpetze pasiboa (bigarren kasua) zenbait ustekabek eragiten dute; esaterako, diru-sarrerak murriztea edo gastuak gehitzea, eta, ondorioz, zorrei aurre egiteko zailtasunak izatea. Hona hemen horrelako egoeren adibide ohikoenak: lanik gabe geratzea, istripuren bat izatea, gaixotzea, kreditua edo zorra bere gain hartu duenetako baten heriotza, familia handitzea, banantzea, dibortziatea, eta abar.

Badaude gainzorpetze aktiboaren eta gainzorpetze pasiboaren arteko egoerak ere: ordainketei aurre egiteko ezintasuna ez da gehiegizko zorrak hartzeagatik, baizik eta eskura gehiegi kontsumitzeagatik. Neurri gabeko kontsumo edo kontsumo konpultsibo hori hainbat faktorek sustatzen dute: txartelen bidez dirua berehala eskuratzeko aukerak, publizitate kanpainen agresitibitateak, katalogo bidez erosteak, telebistak edo Internetek. Familia batek behar duena baino askoz gehiago kontsumitzeak eragin dezake gastu hori, bai eta ludopatiak edo mendekotasunen batek ere. Horrelakoetan, arazoa ez da gainzorpetzea; arazo psikologikoa da, eta hori konpontzeko egokiagoa da psikologo bat jurista bat baino.

Kontsumitzailea behin eta berriz dago merkataritzako salmenta- eta publizitate-kanpaina agresiboen eraginpean, eta horiek gero eta gehiago kontsumitzera bultzatzen dute. Auto berria, etxe handiagoa, udako etxea edo urruneko paradisuren batera joateko bidaia erosiz gero, ametsak beteko dituztela eta zoriontsuago izango direla esaten diete kontsumitzaileei.

Bestalde, sarritan, **publizitateak kontsumoa lotzen du gizarte-arrakasta eta arrakasta pertsonalarekin**. Hori dela eta, “gehiegi kontsumitzea” eta, zenbait kasutan, “gehiegi zorpetzea” familia askoren bizimodu bihurtzen ari da.

KONTSUMITZAILEEN ZORPETZEA



Kontsumoa sustatu eta errazten duen ingurunean, kontsumitzaileak **kanpo-finantziarioa erabiliz egindako gastua handitzen du**. Kredituak eskatu eta ordainketak geroratzen ditu; esaterako, ordainpeko telebista-kanaletarako, Internetarako eta abarrerako konexioa eskuratzeko, Karibera joateko, edo familia-ospakizunak (ezkontzak, jaunartzeak edo bataioak) finantzatzeko.

Gurpil horretan sartuz gero, kontsumitzaileak **kanpo-finantziarioa erabiliz egindako inbertsioak ere handitu egingo ditu**. Azken urteotan hipotekazko finantziarioaren eskaerak izugarri handitu dira, hainbat arrazoi direla medio: higiezinaren prezio garestiak, hipoteka-kredituen baldintzak (itzultzeko epe luzeak, interes-tasa txikiak, eta etxebizitzaren %80tik gora finantzatzeko aukera), edota inbertitzeko

beste aukera batzuen (esaterako, burtsa) egonkortasun-eza eta ziurgabetasuna.

Horrenbestez, ohikoa bihurtu da **kontsumitzaile-profil** jakin bat: **“ahal duena baino gehiago gastatzen duena”, “bere baliabideen gaineratik bizi dena” eta “beti zorpetuta dagoena”.**

“GAINZORPETUTAKO” KONTSUMITZAILEAREN PROFILA

= mailegu bat baino gehiago ditu aldi berean

= mailegu bat hartzen du, aurretik hartua duen beste bati aurre egiteko

- “Gehiegi” EROSTEN DU, inbertsio eta gastu ez-beharrezkoak egiten ditu (zenbaitetan, kontsumo hori irrazionala eta konpulsiboa ere izan daiteke),
- FINANTZIAZIO “erraza” LORTZEN DU, nahiz eta hori luzera oso garestia izan.
- Gertakizun negatiboren bat izaten badu (lanik gabe geratzea, familiako kideren baten gaixotasuna edo heriotza, banantzea/dibortziatea), BERE DIRU-SARRERAK ETA BESTEREN FINANTZAZIOARI AURRE EGITEKO GAITASUNA MURRIZTU EGITEN DIRA (ez dauka behar adina diru aurreztua, ezta aseguru pertsonalik ere).

Gehiegizko gainzorpetzeak, noski, kontsumitzailearen etorkizun ekonomikoa estuasunean jar dezake, eta horrelakorik ez gertatzeko, nahitaezkoa da kontsumitzaileak bere **zorpetze-gaitasuna** zein den jakitea, bai eta **sarreren eta gastuen aurrekontu pertsonala** egitea ere.

Jakina, azterketa horien aldagai nagusia etorkizuneko diru-sarreren aurreikuspena da. Horrela, bada, kalkulu hori kontuan hartuta, kontsumitzaileak kreditu-erakundeekin hartutako zorrari aurre egiteko gauza izango den jakingo du.

Zenbait adituren ustez, zorrak ordaintzeko ez lirateke erabili behar diru-sarreren %20 baino gehiago. Hipotekei dagokienez, azterketa hori arreta handiagoz egin beharko litzateke, diru-kopurua handiagoa eta denbora epea luzeagoa baitira (ikus hirugarren kapitulua, hipoteka-kredituei buruzko atala).

Kontsumitzaileak saiatu egin behar du “ahal duenaren gaineratik ez bizitzen”; hau da, diru-sarreretatik gorako gastuak ez izaten, osterantzean, “hil amaierara iristeko” zailtasunak izango ditu, etengabe.

GAINZORPETZEAREN ZANTZUAK

1. Zenbatekoa da, guztira, ditugun zorren kopurua?
2. Zenbatekoa da zorren hileko ordaintzen ehunekoa, hileko diru-sarrerekiko?
3. Zenbat kreditu ordaintzen ditugu?
4. Zer-nolako maiztasunez eskatzen ditugu maileguak edo aurrerapenak (bankuari, lagunei, senideei edo enpresari)?
5. Dirua eskatzen al dugu gastu txikiak ordaintzeko?
6. Atzerapenez ordaintzen al dugu?
7. Hilero, zer faktura ordaindu eta zer faktura gerorako utzi aukeratzen ibili behar al dugu?
8. Kredituak eskatzen al ditugu beste kreditu batzuk ordaintzeko?
9. Diru-sarrerak gutxitu arren, bizitza-mailari eusten saiatzen al gara? Hau da, ahal dugunaren gainetik bizi al gara?
10. Sarritan deitzen al digute hartzekodunek?
11. Ba al dugu aspalditik ordaintzeari utzitako zorrik?

Iturria: www.infoconsumo.es

6.2. GAINZORPETZEARI AURRE EGITEKO GOMENDIOAK

Gainzorpetzeari aurre egiteko modu onena PREBENTZIOA da; hau da, **aurretik aztertzea metatutako aurrezkiak eta etorkizuneko aurrezkiak pilatzeko izango dugun gaitasuna.**

Diru-sarreraren eta -gastuen aurreikuspena egitea oso ariketa baliagarria izango kontsumitzaileari, kredituren bat eskatzea pentsatzen ari bada. Aurrekontu hori egitean, zuhurtziaz jokatu behar da (diru-sarrerak beherantz kalkulatu behar dira, eta gastuak, berriz, gorantz), eta “soberakinak” aurreikusi behar dira, ezusteko gastuei aurre egiteko.

Oso garrantzitsua da kredituaren ezaugarriak arretaz aztertzea: baldintzak, kuotak, UTBa, berandutza-interesak eta kredituaren suntsipen-kausak.

Hala eta guztiz ere, kontsumitzaileak ez badu behar besteko zuhurtziaz jokatu, eta gainzorpetuta badago, hona hemen bete beharreko arau batzuk:

- A) Zorpetze-egoera aztertzea, arazoa onartzea eta gainzorpetzea zenbatekoa den kalkulatzeko.

- B) Beharrezkoak ez diren gastuak alde batera uztea, edo merkeago batzuegatik ordeztzea.
- C) Beste diru-sarrera batzuk identifikatzea (diru-sarrera osagarriak lortzeko aukerak, higiezinak alokatzea, ondasunak saltzea, eta abar).
- D) Diru-sarreraren/kobrantzen eta gastuen/ordainketen aurrekontua egitea, aurreko erabakien arabera (beharrezkoak ez diren gastuak alde batera uztea edo murriztea, eta/edo beste diru-sarrera batzuk bilatzea), aurretik aipaturiko finantza-zuhurtziari eusten saiaturaz.

Aurreko azterketa egin eta gero, eta zorren kopurua eta epea kontuan hartuta, **hartzekodunekin ordainketa-modu berriak negoziatzen saia** gaitezke: zorraren epea luzatzeko aukerak aztertu, kuota txikiagoak lortzen saiatu, etab.

Dena den, lehenbailehen erreakzionatu behar da. Kredituren bat itzultzeko zailtasunak agertu bezain laster, kontsumitzaileak egoerari aurre egiten pentsatzen hasi beharko du: etxeko ekonomian zorrozatasun handiagoz jokatu, aurrekontu “zehatzak” egin, eta bankuari edo mailegu-erakundeari informatu behar diogu, kredituaren etorkizunari buruzko akordioaren bat lortzeko.

Ez da aukera ona izaten kreditu berri bat eskatzea aurrekoa ordaintzeko, ezta kreditu “oso errazak” eskaintzen dituzten erakundeetara jotzea ere, horiek, luzera, maileguaren hartzaileari gehiegizko ordainketak dakartzkio-eta.

6.3. FAMILIEN GAINZORPETZEAREN BILAKAERA

Espainiako Bankuak urteak daramatza Espainiako familien gehiegizko zorpetzearen arriskuen berri ematen. Ildo horretatik, egoera hori areagotzeko, azkenean, familien kontsumo- eta inbertsio-erabakiak baldintza ditzakeela jakinarazi du. Halaber, kezka garritzat jotzen du familiek azken urteotan izandako zorpetze-prozesuaren bilakaera.

Familien zorpetzea, ondareari dagokionez, eramangarria dela uste du Espainiako Bankuak, baina, hala ere, familiek errazegi handitzen dutela –finantziario-baldintza onak medio– zorpetze-maila, eta hori, gerora, arriskutsua izan daitekeela.

Espainiako Bankuak dioenez, zorpetze-egoerak areagotuz gero, areagotu egingo da, era berean berean, ezusteko egoerei (interes-tasen garestitzea, gaixotasunak, etab.) aurre egiteko gaitasuna.

Espainiako moneta-agintaritzaren ustez, familiak ez daude, oro har, “gainzorpetuta”; aitzitik, gehiago zorpetuz gero, “*zailtasunak izan ditzakete finantza-baldintzen aldaketei aurre egiteko*”.

Espainiako Bankuak **zorpetze-maila txikitzeko eskatu die familiei**, etorkizunean interes-tasek izan ditzaketen igoerei aurre egin ahal izateko. Espainiako Bankuaren iritziz, egungo interes-tasak “oso txikiak” dira, baina ez da pentsatu behar horrek kredituak “beti merke” egotea ekarriko duenik. “Etorkizuneko gastuak eta inbertsioak aztertzean, familiek ez dute pentsatu behar interes-tasak beti orain bezain txikiak izango direnik”, adierazi berri dute.

Izan ere, zifrak oso kezagarriak dira. **Zazpi urteko epean, zorpetze-ratioa (errenta erabilgarriarekiko) %55etik %91ra igo da**. Balio absolutuei dagokienez, zorpetze hori 200.000 milioi eurokoa zen 1996an, eta, 2003an, berriz, bilioi erdi eurokoa.

Horrenbestez, familien zorpetzeak goia jo zuen 2003an, aurreko urteko zenbatekoarekiko %17 handitu baitzen. Euro-guneko herrialdeekin alderatuta, Espainiako familien zorpetze-egoera herrialde horietako familiena baino txikiagoa zen laurogeita hamarreko hamarkadaren hasieran. Urte gutxitan, ordea, egoera oso bestelakoa da, eta Espainiako familiak euro-gunekoak baino zorpetuago bizi dira; nahiz eta, oraindik ere, Ameriketako Estatu Batuetako edo Erresuma Batuko kopuruetatik urrun egon.

URTEAK	FAMILIEN ZORPETZEA (Milloi.€)	URTEKO GEHIKUNTZA (%)	ZORPETZEA, ERRENTA ERABILGARRIAREKIKO (%)
1996	200.954		54,60
1997	222.827	10,88	57,82
1998	256.749	15,22	63,14
1999	299.777	16,76	69,45
2000	344.875	15,04	74,61
2001	380.016	10,19	77,85
2002	400.720	14,13	82,98
2003	506.909	16,87	91,24

Iturria: Espainiako Bankua. Geuk moldatua.

Beste entitate eta erakunde batzuek ere ohartarazi dute herritarren zorpetze-maila altuei buruz.

Etxebizitzen prezioak ikaragarri garestitzen ari dira soldaten eta pentsioen igoerekin alderatuta. Gainera, etorkizunean diruaren prezioak gora egingo duela aurreikusten da, eta horrek interes-tasa aldakorreko hipoteken hileko kostua garestituko du.

Bestalde, ***Asociación Hipotecaria Española*** (AHE) erakundeak datu esanguratsu bat eman du argitarara: **2004ko apirillean, Espainiako familiek bilioi erdi euro zor zieten banku eta aurrezki-kutxei hipoteka- maileguengatik.**

Zenbateko horrek errekor historiko berria dakar: 2003ko apirilarekin alderatuta, gehikuntza ia %25ekoa da; laurogeiko hamarkadaren amaieratik –garai hartan %28ko gehikuntzak izan ziren– izandako handiena.

Erakunde ekonomiko eta ofizial batzuek zabalduzako mezuetan, gehiegizko zorpetzeari erreparatzeko eta zuhur jokatzeko eskatzen zaie familiei.

Gehiegizko gastua eta etxebizitza epe luzeko eta interes-tasa aldakorreko hipoteka maileguen bidez erostea dira, hain zuzen, etxeiko ekonomien arrisku nagusiak.

7 - BANKU-GARDENTASUNA

7. BANKU-GARDENTASUNA

- 7.1. Finantza-eragiketen publizitatea
- 7.2. Komisioak. Tarifen liburuxka
- 7.3. Balorazio-baldintzak
- 7.4. Iragarki-taula
- 7.5. Kontratu-agiriak
- 7.6. Eragiketen likidazio-agiriak
- 7.7. Urteko tasa baliokidea (UTB)

7.1. FINANTZA-ERAGIKETEN PUBLIZITATEA

Finantza-eragiketen publizitatea bete beharrekoa da bankuentzat, eta, beraz, publizitatea iruzurrezkoa bada, zigorra izan dezakete. Hau da iruzurrezko publizitatea egitea: publizitatearen hartzaileengan gaizki ulertuak (eta horien araberrako jokabidean edo portaerak) eragiten dituen edo eragin ditzakeen publizitatea zabaltzea. Gauza bera gertatuko da gaizki ulertu horiek funtsezko informazioren bat ez emategatik sortzen badira.

Horregatik, banku-erakundeen zerbitzu, produktu edo finantza-eragiketen publizitatean horien kostuak edo errendimenduak aipatzeko –era esplizitu nahiz inplizituan–, **Espainiako Bankuaren baimena lortu behar da**. Baimen horri eskuratu beharrari dagokionez, salbuetsita dago autonomia erkidegoetan egindako publizitatea, horiek arlo horretarako eskumena badute.

Baimen-erregimen hori betetzeko obligazioa du, halaber, kreditu-erakundeen web orrietan argitaraturiko publizitateak, bai eta bestelako web orrietan kreditu-erakunde baten zerbitzuak eskaintzeko egiten den publizitateak ere.

Alde horretatik, finantza-eragiketa, –zerbitzu edo –produktuak eskaintzeko edo horiei buruzko informazioa emateko komunikazio-mota guztiak dira publizitatea, horien euskarria edozein dela ere: prentsa, irrata, telebista, filmazioak, barruko eta kanpoko kartelak, panelak, liburuxkak, zirkularrak, eta abar.

Kreditu-erakundeen publizitateak, baimena lortzeko, finantza-eskaintzaren ezaugarriak azaldu behar dizkio publikoari, argitasunez, zehaztasunez eta lehiakideei errespetatuz. Eskaintako produktuaren deskribapena argia eta nahikoa izan behar du, eta horren ezaugarri nagusiak adierazi behar ditu –bereziki kostua edo errendimendu efektiboa (UTB)–, adibide adierazkorren bidez. Kostu edo errendimendu horretan beste faktore batzuek (esaterako, eragiketaren zenbatekoa, zenbait komisio edo beste zerbaite) eragina izan badezakete, faktore horien eragina zer-nolakoa izan daitekeen adierazi behar da.

Behin baimen-eskaera aurkeztu eta gero, Espainiako Bankuak zortzi laneguneko epea du erantzuteko, baldin eta erakundeari informazio gehigarria eskatzen ez badio. Informazio gehiago eskatuz gero, epe hori eten egingo da. Epea igaro eta erakundeak erabakiaren jakinarazpenik jaso ez badu, publizitateari baimena eman zaiola ulertuko da.

Espainiako Bankuak publizitate-eskaerari ezezkoa ematen badio, arrazoitu egin behar du erabakia. Zenbait kasutan, baimenaren baldintzak errespetatzen ez badira, Espainiako Bankuak kreditu-erakundeari publizitatea aldatzeko edo bertan behera uzteko eska diezaioke.

Bestetik, kontsumitzaile- eta erabiltzaile-elkarteek ere Espainiako Bankuaren aurrean salaketa egin dezakete publizitateari buruzko arauak betetzen ez badira.

Baimenduriko publizitate orotan nahitaez aipatu behar da *“Espainiako Bankuan erregistratua, xxx. zk.”/“Registrado en el Banco de España con el n^o”* esapidea (edo horren laburdura, *“RBE n^o”*). Baimen horiek ez dute adierazten Espainiako Bankua iragarritako eragiketa, produktu edo zerbitzu horien alde dagoenik; beraz, bankuek argi utzi behar dute alderdi hori publizitatean baimena aipatzean.

Baimenduriko publizitateari dagokion eragiketan aldaketak eragiteko moduko gertaerarik edo egoerarik sortuz gero, erakundeek Espainiako Bankuari eman behar diote aldaketa horien berri, eta Bankuak baimena baliogabetzeko aukera izango du, behar bezala

arrazoituta. Espainiako Bankuak baimena baliogabetzeko aukera izango du, halaber, baimen hori emateko erabilitako oinarrietan aldaketa garrantzitsuak eragiten dituzten datuen berri izaten badu. Horrek ez dio kalterik egiten erakundeari eska diezazkiokeen erantzukizunetan, daturen bat eman ez duelako, edota datuak zuzenak ez direlako.

Kreditu-erakunde baten publizitatean beste erakunde batek egin beharreko eragiketa edo zerbitzuak sartzen direnean, publizitate horretan zehatz-mehatz adierazi behar da zerbitzu bakoitza nork emango duen. Kreditu-erakundeaz bestelako erakundeak eman beharreko zerbitzu edo eragiketa horietako publizitateak administrazio-kontrola izan behar badu, Espainiako Bankuak emandako baimenak ez du salbuesten bankuaren kontrol-erakundeak ezarritako eskakizunak betetzeaz.

Garrantzitsua da azpimarratzea eragiketa, zerbitzu edo produktuaren kosturik edo errendimendurik aipatzen ez duen publizitateak ez duela behar Espainiako Bankuaren alde aurreko baimenik.

Kreditu-erakunde baten zerbitzuak beste enpresa baten publizitatean –zuzenean edo zeharka– eskaintzen badira, kreditu-erakundeak, hala badagokio, publizitate kanpainarako baimena eskatu beharko dio Espainiako Bankuari.

7.2. KOMISIOAK. TARIFEN LIBURUXKA

Banku-erakundeek nahierara erabakiko dituzte eragiketa edo zerbitzuengatik komisio-tarifak, baldintzak eta bezeroari ezarriko dizkioten gastuak, eta horien muga bakarra indarrean dagoen araudian ezarritakoa izango da. Beraz, alde handia egon daiteke banku batek eta beste banku batek aplikatutako komisioen artean.

Tarifek bere baitan hartu behar dituzte finantza-erakundearen ohiko eragiketa edo zerbitzu guztiak. Beraz, ez-ohiko zerbitzu edo zerbitzu bereziengatik eratorritako komisioak hor sartu gabe utz daitezke.

Bankuek ezin izango diete tarifetan adierazitakoa baino diru-kopuru handiagoa ezarri bezeroei; hau da, ezingo dute horiek garestiago kobratu, eta ezingo dute aurreikusi gabeko gasturik ezarri. Beraz, komisio eta gastu horiek bat etorri behar dute emandako zerbitzuekin edo izandako gastuekin. Ezingo da, inola ere, komisiorik edo gasturik kobratu bezeroak zerbitzu jakin bat onartu ez badu, edo horren eskaera irmoa egin ez badu (esaterako, jasotako transferentzietan, komisioak eta gastuak –osorik edo horien zati bat– onuradunaren kontura direla zehatz-mehatz adierazten ez bada, ezingo da inolako kosturik kobratu).

Tarifa horiek liburuxka batean bildu behar dira –bezeroentzako modu argi, zehatz eta ulerterrazean idatzita–, eta kreditu-erakundeak Espainiako Bankuari bidali behar dio. Espainiako Bankua, berriz, liburuxkak dagokien araudiarekin bat datozela ziurtatzeaz arduratuko da.

Gaikako liburuxkak argitaratzeko aukera ere badago, bezeroen ohiko eragiketa jakinen bati edo batzuei buruz. Horietan, eragiketa horiei aplikatu dakiekeen liburuxka orokorreko kontzeptu guztiak adierazi behar dira, osorik eta hitzez hitz.

Bai liburuxka orokorrean, bai gaikako liburuxketan, erakundeak aplikaturiko balorazio- eta likidazio-irizpideak azaldu behar dira, bai eta baloreen eta funtsen erabilgarritasunerako gehienezko epeei buruzkoak ere.

7.3. BALORAZIO-BALDINTZAK

Kreditu-erakundeek ezarritako balorazio-baldintzek bat etorri behar dute hurrengo orriko koadroetan adierazitako zehazpenekin. Horietan adierazten dira banku-eragiketa guztien baldintzak, eta interesak baloratzeko datak ere zehazten dira; hau da, noiztik abonatzen edo kobratzen zaizkion interesak erabiltzaileari.

Koadro horietan adierazten ez diren eragiketei dagokienez, zordunketak eta abonauak horien idazpenaren data berean baloratuko

dira, baldin eta erakundetik kanpoko funts-mugimendurik ez badago. Horrelakorik balego, beranduenik ere, idazpena egin eta hurrengo lanegunetik baloratuko dira..

Kutzazain automatiko edo instalazio elektronikoen bidezko eragiketei aplika dakiekeen balorazioari dagokionez, data zehazteko (eragiketaren onarpen-data edo idazpenaren data, alegia), ordainketa baliabide elektronikoei buruzko kontratueta –edo kutxazain eta instalazio horiek erabiltzeko beste tresna batzuei buruzko kontratueta– ezarritakoa hartuko da kontuan.

Zor anotaturiko eragiketetan (letrak, obligazioak eta bonoak), bai baloreak jaulkitzean eta amortizatzean, bai interesak ordaintzean, erakunde kudeatzaileak eskudirutako likidazioan aplikaturiko datak bat etorri behar du Anotazio Zentralean aplikatutakoarekin.

Eragiketa guztietan, eta, unean-unean, dagozkion balorazio-arauak aplikatzen diren kontuan hartu gabe, erakundeek beharrezko baliabideak jarri behar dituzte dagozkion diru-kopuruak abonatzeko edo zorduntzeko, berandutzerik edo atzerapenik gabe, bai eta ahalik eta prestutasun handienaz jokatu ere, bezeroek funtsak lehenbailehen eskuratzeko aukera izan dezaten. Funtsak transferitzeko aginduak onartutaz jo eta bidali egingo dira horiek egiteko finantza-estaldura nahikoa badago. Beranduenik ere, ordena jaso eta hurrengo lanegunetan egin behar dira.

**ZORDUNKETEN ETA ABONUEN BALORAZIOARI BURUZKO
MUGAK, AKTIBOKO ETA PASIBOKO KONTUETAN, KONTU
KORRONTEETAN, KREDITU-KONTUETAN ETA
AURREZKI-LIBRETETAN**

Zordunketak (KARGUAK)

Eragiketa-motak	Balorazio-data, interesen sortzapenari dagokionez
1. Txekeak. 1.1. Banku igorpendunean ordainduak, leihatilan edo barne-konpentsazio bidez. 1.2. Beste banku batzuek behin betiko ordaindutakoak. 1.3. Beste banku edo sukurtsal batzuek kobrantzarako hartutakoak.	Ordainketaren egun berean. Ordainketaren egun berean. Xede horretarako, ordaintzaileak zigilua jarriko du, ordainketaren data adierazteko. Hori faltako balitz, kontuan kargatu den eguna hartuko da zordunketa-eguntzat. Kontu igorpendunean zorduntzen den egun berean.
2. Diru-ateratzeak edo erabilerak.	Ordainketaren egun berean.
3. Transferentzia-aginduak, entrega-aginduak eta antzekoak.	Zordunketaren egun berean.
4. Itzulitako efektuak. 4.1. Efektu deskontatuak. 4.2. Itzulitako txekeak.	Epemuga-eguna. Kontuan abonatzean erabilitako balorazio-egun bera.
5. Aldizkako ordainagiriak, zordunak kontuan zorduntzeko baimena aldeztu aurretik emandakoak. 5.1. Zordunaren kontura. 5.2. Lagatzaileari itzultzea.	Zordunketaren eguna. Abonatzean aplikaturiko balorazio bera.
6. Baloreen erosketa.	Dibisen entrega-eguna bera.
7. Baloreen erosketa.	Burtsan erosi diren egun bera.
8. Helbideratutako efektuak.	Efektuen ordainketa gordailu-erakunde batean helbideratzen bada, (bai efektuan, bai kobrantza-abisuan), efektuak libratuaren kontuan zordunduko dira, eta balioa epemugaren eguna izango da, bai helbideraturiko erakundearen zorrotik datozenak, bai beste erakunde batzuk hari aurkeztutakoak (konpentsazio-sistemaren baten bidez edo banku arteko konturen baten bidez ⁽¹⁾).
9. Kreditu-txarteletatik eta antzekoetatik eratorriak.	Atxikimendu-kontratuaren arabera.
10. Beste eragiketa batzuk.	Ikus (a) oharra. (Hurrengo orria).

¹ Baldin eta efektuak kobrantzarako legeak (uztailaren 16ko 19/1985 Legea, Kanbio-agiriaren eta Txekearena) ezarritako epean aurkezten badira. Bestela, libratuaren kontuan zordundutako egun bera.

Abonuak

Eragiketa-motak	Balorazio-data, interesen sortzapenari dagokonez
1. Eskudirutako entregak. 1.1. Goizeko 11:00 baino lehen eginikoak. 1.2. Bestelakoak.	Entregaren egun bera. Entregaren hurrengo laneguna.
2. Txekeen eta abarren bidezko entregak. 2.1. A cargo de la propia entidad (sobre cualquier oficina). 2.2. A cargo de otras entidades ⁽¹⁾ .	Entregaren egun bera. Entregaren ondoko bigarren laneguna.
3. Banku-transferentziak, entrega-aginduak eta antzekoak. 3.1. Bankuan bertan agindutakoak, Espainian. 3.2. Espainiako beste banku batzuetan agindutakoak.	Agindu-emaileari zorduntzen zaion egun bera. Agindu-emaileari zordundu eta ondoko bigarren laneguna ⁽²⁾ .
4. Efektu-deskontuak.	Interesak kalkulatzeko hasteko data ⁽³⁾ .
5. Aldizkako ordainagiriak aurkeztea, zordunak kontuan zorduntzeko baimena alde zuzenetik emandakoak.	Zorduntzetaren egun bera.
6. Dibisen salmenta.	Dibisen lagapenetik hurrengo laneguna.
7. Baloreen salmenta.	Burtsako salmentatik hurrengo laneguna.
8. Gordailuturiko baloreen dibidenduen, interesen eta amortizaturiko tituluen abonua.	Abonuaren egun bera.
9. Kreditu-txarteleko, txekeen bermerako eta antzeko kontuetan.	Egun bera.
10. Beste eragiketa batzuk.	Ikus (a) oharra.

Iurria: irailaren 7ko 8/1990 Zirkularra. Kreditu-erakundeak.
Eragiketaren gardentasuna eta bezeroen babesa.

⁽¹⁾ Espainiako Bankua barne.

⁽²⁾ Xede horretarako, data hori transferentziari buruzko informazioan adierazi behar da.

⁽³⁾ Interesak kalkulatzeko, efektuaren mugaeguna ez da kontuan hartzen.

^(a) Zehatz-mehatz adierazi gabeko beste eragiketa guztietan, zorduntketak eta abonua idazpenaren data berean baloratuko dira, baldin eta bankutik kanpoko funts-mugimendurik ez badago. Horrelakorik balego, abonua idazpena egin eta hurrengo lanegunetik baloratuko dira.

^(b) Eragiketa motaren arabera hartuko da larunbata lanegunetatik edo jaieguntzat. Erakundearekin zerikusirik ez duten arrazoiek agintzen dutelako eragiketaren formalizazioa atzeratu behar balitz (Ogasunari egin beharreko ordainketak, Burtsako eragiketak, Kontentsazio Ganbera eta abar), larunbata jaieguna izango da. Bestelako kasuetan, eragiketa egun berean egin badaiteke, laneguna izango da.

^(c) Dibisen erosketak edo salmentari dagokionez, salerosketari berari emandako balorazioa ere kontuan hartu behar da.

7.4. IRAGARKI-TAULA

Bankuek iragarki-taula iraunkor bat izan behar dute, publikoarentzat irekitako bulego guztietan. Leku nabarmen batean jarri behar da hori, publikoaren arreta erakartzeko, eta eduki irakurterrazak izan behar ditu.

Taula horretan erakundeek bezeroei jakinarazi behar dieten informazio guztia adierazi behar da. Bereziki, honako hau:

- Lehentasunezko interes-tasa.
- Kontu korrontetako zorpekoei aplika dakizkiekeen interes-tasak. Aplikatutako interes-tasa horiek ezingo dute diruaren legezko interesa baino 2,5 bider handiagoko UTBrik sorrarazi.
- Kreditu-kontuetako soberakinei aplika dakizkiekeen interes-tasak, edo dagokion krediturako hitzartutako interes-tasaren gainetiko zehapen-diferentziala.
- Bestelako finantza-laguntzei edo -epeei dagokienez, erreferentziazko interes-tasa ohikoenak edo adierazgarrienak; bereziki, kontsumoari edo etxebizitza-hipotekei dagozkienak. Informazio horren helburua bezeroei orientazioa ematea da, eta ez du mugatzen bezeroaren zein bankuaren kontratatze askatasuna.
- Tarifen eta balorazio-arauen liburuxka dagoela adierazi behar da, hori kontsultatzera bultzatzeko. Halaber, liburuxka horretako atal berezi batean kanpo-transferentziei aplika dakizkiekeen baldintza orokorrak zehazten direla adierazi behar da. Bankuak internet bidezko eragiketak egiteko aukera ematen badu, liburuxka hori erakundearen web orrian ere ikus daitekeela adierazi behar da, bai eta interneteko zein helbidetan kontsulta daitekeen ere.
- Interes-tasen, komisioen edo bezeroei ezarriko dizkieten gastuen balizko aldaketa, iraupen mugagabeko kontratuetan.
- Interes-tasa aldakorrean jaulkitako tituluen interes-tasen balizko aldaketa.

- Espainiako Bankuaren Erreklamazio Zerbitzuari buruzko aipamena, eta, bankuak horrelakorik badu, bezeroaren defentsariari edo organo baliokideari buruzkoa. Horren izena eta helbidea adierazi behar da, bai eta horretara jo behar dela ere, Espainiako Bankuko Zerbitzuaren aurrean erreklamazioa aurkeztu aurretik.
- Indarrean dagoen araudia aipatu behar da, banku-eragiketen gardentasuna eta bezeroen babesa arautzekoa.
- Ekonomia eta Diru Batasunetik kanpoko herrialdeetako dibisen eta billeteen salerosketa-eragiketetan aplikatzen diren kanbio-tasak adierazi behar dira (erosteko gutxienekoa eta saltzeko gehienekoa). Edo, hala badagokio, eragiketaren zenbatekoa 3.000 eurotik beherako eragiketetan aplikaturiko kanbio-tasa bakarra. Aplikatu daitezkeen komisioak eta gastuak adierazi behar dira. Horrelako eragiketak egiten dituzten banku-bulegoetan, tasa horiek leku egokian erakutsiko zaizkio publikoari.
- Hipoteka-maileguei buruzko doaneko liburuxka dagoela jakinarazi behar da.
- Finantza-erakundeak egiten dituen balore-merkatuko eragiketei aplikatutako tarifei buruzko informazioa. Mota horretako eragiketak egiten baditu, burtsan edo Anotazioko Zor Publikoko Merkatuan negoziaturiko baloreekin eginiko eragiketen –baloreen harrera eta besterentzea, exekuzio-agindua eta likidazioa– tarifak adierazi behar dira.
- Jaulkipenei eta saltzeko eskaintza publikoei (OPV) buruzko liburuxkak –finantza-erakundea jaulkipenaren ezarpenaz edo finantza-zerbitzuaz arduratzen bada– daudela adierazi behar da, bai eta finantza-erakundeak merkaturaturiko inbertsio kolektiboko kreditu-erakundeen liburuxkak ere.
- Bezeroek kontsumorako kredituei eta hipoteka-maileguei buruzko eskaintza lotesleak eskatzeko eskubidea dutela aipatu behar da. Halaber, zerbitzu hori doanekoa dela zehaztu behar da.
- Mugaz haraindiko transferentzia-aginduei dagokienez, bezeroek horien helburuko herrialdea eta dibisa zehaztu badituzte,

transferentzia horiei aplikatu dakizkizkiekeen baldintza zehatzen eskaintza jasotzeko eskubidea dutela adierazi behar da, baldin eta bankuak eragiketa hori egiteari uko egiten ez badio.

Zerbitzuak telefonoz bakarrik ematen dituzten erakundeek idatziz jakinarazi beharko dizkiete bezeroei iragarki-taulan adierazi beharreko datuak. Hiru hilean behin egin behar dute gutxienez, eta, hala badagokio, informazioa indarrean noiztik sartzen den ere adierazi behar dute.

Halaber, internet bidezko eragiketarako egiteko aukera ematen duten finantza-erakundeek enpresaren izena adierazi behar dute beren egoitzan, leku nabarmenean. Hala badagokio, honako hauek ere adierazi beharko dituzte: izen komertziala, helbide sozial osoa, Espainiako Bankuaren ikuskaritzari lotutako kreditu-erakundea direla, bai eta Espainiako Bankuko administrazio-erregistro berezian inskribatuta daudela ere.

7.5. KONTRATU-AGIRIAK

Kreditu-erakundeek derrigorrez eman behar diete kontratu-agiri bat bezeroei honako kasu hauetan:

- a) Ageriko kontu korronteak edo aurrezki-kontuak irekitzean. Kontu horiei lotutako baliabide elektronikoak (esaterako, zorduntze-txartelak eta beste batzuk) igortzean, aldatzean eta berritzean ere, horiei dagozkien kontratu-agiriak eman beharko dituzte.
- b) Honako eragiketa hauetan, horien zenbatekoa 60.000 eurotik beherakoa denean:
 1. Epe baterako gordailu-eragiketetan, edo bankuko zor-agirien edo antzeko tresnen bidezko funts-bilketetan.
 2. Mailegu- edo kreditu-eragiketetan, baita horiek kreditu-txartelen bidez egindakoak direnean ere.
 3. Araututako bigarren mailako merkatuetan negoziatzen diren finantza-tituluen salerosketa-eragiketetan, berrerosteko hitzarmenak badituzte.

- c) Errentamendu finantzarioko (leasing) eragiketetan.
- d) Araututako bigarren mailako merkatuetan negoziatzen ez diren finantza-tituluen salerosketa-eragiketetan –berrerosteko hitzarmenak badituzte–, balore negoziagarrirei lotu gabeko aktiboen beste edozein lagapenetan, eta edozein aktiboren gaineko eskubide– edo kuota-lagapenetan.
- e) Bezeroak eskatzen duen guztietan.

Bezeroarekin adostuta, azken horri sistema telefonikoak edo elektronikoak erabiltzeko aukera ematen bazaio –finantza-erakundeak emandako zerbitzuak kontratatzeko edo erabiltzeko–, nahitaezkoa izango da kontratu-agiria ematea.

Banku-zerbitzua baliabide elektronikoen bidez kontratatzen bada, bezeroak aukeratuko du zer bide erabiliko den hari dagokion kontratu-agiria entregatzeko: euskarri elektronikoa iraunkor bat bidaltzea, dokumentua irakurri, inprimatu eta gorde ahal izateko, ala kontratu-agiri bera bidaltzea, kontratuan hitzarturiko xehetasun guztiekin.

Halaber, kontratua fede-emaile publikoren baten aurrean egiten bada, finantza-erakundeak postaz bidali dezake kontratu-agiria.

Bestetik, kreditu-eragiketak kontu korronteko zorpekoak badira, ez da nahitaezkoa izango kontratu-agiria ematea, baldin eta pertsona interesatuak berak eskatzen ez badu. Hala ere, era tazituan onarturiko zorpekoen bat egin, eta horrek hiru hilabete baino gehiago iraun badu, aplikaturiko urteko interes-tasa efektiboa eta zordunduriko komisioak eta gastuak jakinarazi beharko dizkio finantza-erakundeak bezeroari, idatziz eta banan-banan; betiere, jakinarazpen hori –likidazio baten bidez– aldeztu aurretik egin ez badu.

7.5.1. KONTRATU-AGIRIEN EDUKIA

Denboraren eraginpeko banku-eragiketak

Aktiboko eta pasiboko eragiketen kontratu-agirietan, denborak eragina izan badezake, berariaz adierazi behar dira honako alderdi hauek, argi eta garbi:

- a) Interesen likidazioan aplikatuko den interes-tasa nominala, eta geroratzeagatik aplika daitezkeen errekarguak.
Interes-tasa aldakorra bada, argi eta garbi adierazi behar da nola kalkulatu den hori bakoitzean.
- b) Interesen sortzapenaren aldizkakotasuna, horien sortzapen- eta likidazio-datak, edo, hala badagokio, geroratzeagatik errekarguak. Oro har, zenbateko horiek kalkulatzeko beharrezko datu guztiak adierazi behar dira.
- c) Aplika daitezkeen komisioak: zeri dagozkien, zenbatekoa, sortzapen- eta likidazio-datak, eta, oro har, azalpen horien zenbateko absolutua kalkulatzeko beharrezkoak diren datuak.
- d) Hitzarturiko interes-tasa, komisioak edo bezeroari ezarriko zaizkion gastuak alda badaitezke, kontratuan jaso beharko dira alde bakoitzari dagozkion eskubideak; aldaketa horiek aplikatzeko jarraitu behar den prozedura –dena den, horiek bezeroei jakinarazi behar zaizkie alde aurretik, arrazoizko epean–; eta, hala badagokio, bezeroek izango dituzten eskubideak.
- e) Bezeroen eskubideak, eragiketaren diru-itzulketa aurreratzen den kasuetarako.
- f) Kreditu-erakunde bakoitzaren araudi zehatzaren arabera sartu beharreko guztiak.
- g) Bezeroei jasanarazizko zaizkien gastuei dagokienez, horien zenbatekoa kontratua sinatzean zehatu ezin bada, horien azalpena egin beharko da, gutxienez.

Kontratua ematea nahitaezkoa bada, edo bezeroak horrela eskatzen badu, kreditu-erakundeek kontratuan adierazi beharko dute urteko tasa baliokidea (UTB), informazio xedetarako. Tasa hori kalkulatzeko, hipotesi hauek hartuko dira kontuan: eragiketak aldean artean hitzartutako denboran indarrean egongo direla, eta alde bakoitzak bere obligazioak zehatz eta garaiz beteko dituela.

Mailegu- eta kreditu-kontratuak

Aurreko atalean aipatutakoez gain, banku-erakundeek xehetasun hauek adierazi behar dituzte mailegu- eta kreditu-eragiketen kontratuetan (kreditu-txartelaren bidez eginikoak barne):

- a) Zordunak –kreditua itzultzeko eta interesak, komisioak eta ezarriko dizkioten gastuak ordaintzeko— erakundeari egin beharreko ordainketen zenbatekoa, kopurua eta aldizkatasun edo data. Ahal bada, ordainketa horien guztizko zenbatekoa ere adierazi behar da. Interes-tasa aldakorrean hitzarturiko eragiketetan nahikoa izango da hasierako interes-tasa aplikatzen den epeari buruzko informazioa ematea.
- b) Aurreko ataleko c) eta g) letretan adierazitako komisioez eta ezarriko dizkioten gastuez gain, bezeroak kontratuaren baitan ordaindu beharreko beste kostu-elementu guztiak. Horien zenbatekoa ezagutzen ez den kasuetan, kalkulu ahalik eta errealistena egingo da.
- c) Hala badagokio, kredituaren amortizazio-asegurua eratzeko beharra, titularraren heriotza, ezintasuna, gaixotasuna edo langabezia kasuetarako.

Halaber, kontsumitzaileentzako kontu korranteetako kreditu-kontratuetan, kreditu-erakundeek kredituaren muga –horrelakorik balego– adierazi behar dute, bai eta kontratua suntsitzeko prozedura ere.

Asimismo, en los contratos de crédito en cuenta corriente con personas consumidoras, las entidades de crédito deben hacer constar el límite del crédito, si lo hubiera, y el procedimiento para la resolución del contrato.

7.5.2. INTERES-TASEN, KOMISIOEN ETA BEZEROARI EZARRIKO ZAIKION GASTUEN ALDAKETA

Finantza-erakundeak kontratuan interes-tasak, komisioak edo bezeroari ezarriko dizkion gastuak aldatzeko eskubidea beretzat

gordetzen badu, aldaketok erabiltzaileari jakinarazteko obligazioa du.

Interes-tasa aldakorrean hitzarturiko aktiboko edo pasiboko eragiketetan, erreferentziazko interes-tasa aldatzetik sortutako tasa berriak jakinarazi behar zaizkio bezeroari. Finantza-erakundeek ahalik eta azkarren jakinarazi behar dituzten aldaketok, zehaztasunez eta berandutu gabe.

Interes-tasaren aldaketak aldeztetik bezeroei jakinarazteko obligazio hori, hedapen handiko egunkariren batean, zentzuzko aurrerapenaz, argitaratzearekin ordeztu daiteke. Hori egiteko, kontratuan zehaztu behar da aukera hori, eta zer egunkaritan jakinaraziko den ere adierazi behar da.

Interes-tasa aldakorreko hipoteka-maileguetan, interes-tasa ofizial bat erabiltzen bada erreferentzia gisa, ez da beharrezkoa izango bezeroei aldeztetik jakinaraztea. Kontsumorako kredituetan eta ondasun higigarrien salmenten epeakako finantziazioan, aldeek Espainiako Bankuak edo Ekonomiako eta Ogasuneko Ministerioaren ebazpen baten bidez ofizialki argitaraturiko erreferentziazko tasaren bat erabiltzea hitzartzen badute, ez da beharrezkoa izango aldeztetik jakinarazpen hori egitea. Erreferentzia-tasa horiek erabiltzen ez badira, mailegu-emaileak mailegu-hartzaileei jakinarazi behar dizkie, banan-banan, kredituaren guztizko kostuan izandako aldaketak. Hor sartu behar da aldaketa hori eragiten duen zenbaketa xehakatu, hitzartutako prozeduraren arabera, bai eta mailegu-hartzaileak mailegu-emailearen aurrean erreklamatzeko zer-nolako prozedurari jarrai diezaiokeen ere, eginiko kalkuluarekin ados ez badago.

Iraupen mugagabeko kontratuetan, interes-tasen, komisioen eta bezeroari ezarriko dizkioten gastuen aldaketa iragarki-taulan ere jakinaraz daiteke. Hau da, baldintza berriak iragarki-taulan argitara daitezke, aldaketa egin eta hurrengo bi hilabetetan, eta ezingo dira aplikatu epe hori igaro arte. Dena den, kreditu-txartelen igortze-kontratuetan, ordainketa-baliabide elektronikoaren kontratuetan, edo banku-zerbitzuetan sartzeko sistema telefonikoak edo elektronikoak erabiltzeko kontratuetan, banan-banan eta zentzuzko aurrerapenaz

jakinarazi behar zaie bezeroei interes-tasen, komisioen eta bezeroari ezarriko dizkioten gastuen aldaketen nondik norakoak.

Banan-banan egin beharreko komunikazioak egiteko, baliabide elektronikoak erabil daitezke, bezeroak hori eskatzen badu; edo kontratua prozedura hori erabiliz egin bada, eta kontratuan bertan hala jasotzen bada.

7.6. ERAGIKETEN LIKIDAZIO-AGIRIAK

Aktiboko, pasiboko edo zerbitzuzko eragiketa bakoitzean, kreditu-erakundeek agiri bat eman behar diete bezeroei, eta, agiri horretan, honako datu hauek adierazi behar dira, argi eta garbi:

- a) Aplikaturiko interes-tasa eta komisioak; horien azalpena, oinarria eta sortzapen-epea zehaztuz.
- b) Aktiboko eta pasiboko eragiketetan, Urteko Tasa Baliokidea (UTB).
- c) Ordejarritako gastuak (zerbitzu bat emateagatik ordaindu beharreko aurrerapena).
- d) Zerga-atxikipenak.
- e) Bezeroak likidazio hori egiaztatzeko behar lituzkeen datu guztiak.

Eragiketa dela-eta, aldez aurretik ezarritako ordainketak bakarrik egin behar badira, horiei dagozkien likidazio-agiriak beste modu batera emateko aukera egongo da. Horrelakoetan, kontratuan taula bat sar daiteke, eta hor adierazi ordainketa edo amortizazio guztiak, horien datak eta aldez aurretik finkatutako gainerako datu guztiak. Dena den, horrelakoetan ere, ordainketa bakoitzaren ziurtagiria eman behar da. Taulako daturen bat aldatzen bada, dokumentu berri bat –osoa–, eman behar zaio bezeroari, datu berriak adieraziz.

Epe luzerako maileguetan, kuotak aldizkakoak eta berdinak badira, urte osoko dokumentu bakar batez ordeztu daitezke urtebete baino aldizkakotasun txikiagoa duten likidazio-agiriak. Agiri horretan epe laburrago horiei dagozkien likidazio guztiak laburbildu behar dira.

Bestetik, kanpo-transferentzietan dagozkien likidazio-agiria bezeroari bidaltzeko gehieneko epea bost lanegunekoa da, transferentzia-agindua onartu den egunetik kontatzen hasita. Jasotako transferentzietan, epe hori kalkulatzeko, transferentzia kontuan zein egunetan jaso den hartuko da kontuan.

INTERES- ETA KOMISIO-LIKIDAZIOAK BEZEROEI JAKINARAZTEA

Aktiboko, pasiboko eta zerbitzuzko eragiketen likidazioengatik bezeroei eman beharreko dokumentuetan, kreditu-erakundeek honako arau hauetan ezarritako baldintzei jarraitu behar diete: 1989ko abenduaren 12ko Aginduaren zortzigarren zenbakia, eta 2000ko azaroaren 16ko Aginduaren 4. eta 6. artikulua. Honako hauek dira baldintza horiek:

7.6.1. PASIBOKO ERAGIKETAK

1. Kontu korronteak

Interesen abonua jakinarazpenak, gutxienez, honako datu hauek izan behar ditu:

- Abonatutako epea. Hasierako eta amaierako data adierazi behar dira.
- Aplikaturako kontratu interes-tasa.
- Kopuru komertzialen batura, edo epearen balorazioaren batez besteko saldoa.
- Sortutako interesen zenbatekoa.
- Zerga-atxikipenak. Kalkulurako zerga-oinarria eta zerga-tasa adierazi behar dira.

Likidazio-aldian interes-tasak aldaketarik izan badu, bereizita adierazi behar dira aplikaturako interes-tasa bakoitzari dagozkion kopuru komertzialak eta/edo interesak.

Oharrak:

- Kontuko zorpekoak aurkezten direnean, interes zordunen eta, hala badagokio, likidaturiko komisioen frogagiriak kreditu-kontu korronteetan aktiboko eragiketentzat adierazitako baldintzak bete beharko ditu.
- Bezeroei altxortegi-zerbitzuarengatik edo irekitako kontu korronteak administratzeagatik komisioak kobratuz gero, azalpen horiengatik kobraturiko guztizkoa nahitaez adierazi behar da interesen likidazio bakoitzean. Kontua errentagarritasunik gabekoa bada, komisioen zordunketari buruzko informazioa bestelako interesen likidazio-aldizkakotasun beraz eman behar da.
- Finantza-erakundeek kontu-laburpenak emango dizkiete bezeroei, kontuen mugimenduen kontratuan hitzartutako aldizkakotasunez. Hileroko (edo epe luzeagoko) laburpenak doan eman behar dira. Kontu-laburpenetan, gutxienez, honako datu hauek adierazi behar dira:
 - Mugimendu/eragiketa bakoitzeko: data, azalpena, zenbatekoa (eta horren zeinua) eta balio-data.
 - Aurreko laburpenaren saldoa.
 - Laburpen berritik sortutako saldoa.

2. Aurrezki-kontuak

Likidazioen jakinarazpenak eta interesen ordainketa kontu korronteen antzekoa izango da.

3. Eperako ezarpenak, gordailu-ziurtagiriak eta gerora ordaintzeko interesdun beste gordailu batzuk

Likidazio bakoitzean, honako hauek jakinarazi behar zaizkie bezeroei:

- Gordailu mota.
- Eratze-data.
- Epea.
- Zenbatekoa.

- Likidazioari dagokion aldia. Hasierako eta amaierako data adierazi behar dira.
- Aplikaturiko kontratu interes-tasa.
- Sortutako interesen zenbatekoa.
- Zerga-atxikipenak. Kalkulurako oinarria eta zergaren tasa adierazi behar dira.

7.6.2. AKTIBOKO ERAGIKETAK

1. Kredituzko kontu korronteak

Likidazioaren jakinarazpenean, gutxienez, honako hauek adierazi behar dira:

INTERESAK:

- Likidazio-aldiko printzipala edo kontuaren muga, eta mugaeguna.
- Likidazioari dagokion aldia. Hasierako eta amaierako data adierazi behar dira.
- Aplikaturiko kontratuzko interes-tasa.
- Kopuru komertzialen batura (kalkulua prozedura horren bidez egiten bada) edo likidazio-aldiaren balorazioaren batez besteko saldoa.
- Sortutako interesen zenbatekoa.

Likidazio-aldian interes-tasa aldatzen bada, edo printzipaletik edo kontuaren mugatik gorako zordunketarik badago, aplikaturiko interes-tasa bakoitzari dagozkion interesak –eta, hala badagokio, zenbaki komertzialak– bereizita adierazi behar dira.

KOMISIOAK ETA ORDEJARRITAKO GASTUAK:

- Erakunde bakoitzak aplikatzen dituenak, argitaraturiko tarifen arabera. Kasu bakoitzean, azalpena, oinarrizko magnitudea, tasa eta zenbatekoa adierazi behar dira.

ALDIAREN LIKIDAZIOA ETA ITXIERA:

- Likidazioaren aurretiko saldoa.
- Interesak, komisioak eta ordejarritako gastuak.
- Hala badagokio, kitatutako zergak. Aplikaturiko tasa eta kalkuluoinarria adierazi behar dira.
- Saldo berria.

Oharrak:

- Printzipaletik edo kontu-mugatik gorako saldoak izateagatik bezeroen aldeko interesak sortzen badira, horien frogagiriak egitean, “Pasiboko eragiketak” idazpuruan “kontu korronteentzat” adierazitako baldintzak bete behar dira.
- Dena den, laburpena ere bidali behar zaie bezeroei, kontuko mugimenduen arabera aldizkakotasunez. Laburpenak, gutxienez, honako datu hauek izan behar ditu:
 - Mugimenduaren data.
 - Eragiketaren azalpena.
 - Zenbatekoa eta zeinua.
 - Balio-data.
 - Aurreko laburpenaren saldoa.
 - Laburpen berritik sortutako saldoa.

2. Aldizkako kuotazko maileguak eta errentamendu finantzarioko eragiketak

Kuotaren aldizkako kobrantzaren jakinarazpenean, gutxienez, honako hauek adierazi behar dira:

INTERESAK:

- Likidazioa aplikatzeko erabilitako saldo zorduna.
- Likidazioari dagokion aldia. Hasierako eta amaierako data adierazi behar dira.

- Aplikaturiko kontratuzko interes-tasa (interes-tasa aldakorreko kredituetan, aplikaturiko erreferentziazko tipoa eta diferentziala zehaztu behar dira).
- Kuotaren zenbatekoa.
- Sorturiko interesen edo karga finantzarioen zenbatekoa.
- Amortizazioaren zenbatekoa.
- Hala badagokio, likidaturiko zergak. Zerga-tasa eta kalkulu-oinarria adierazi behar dira.
- Saldo berria.

Likidazio-aldian interes-tasa aldatzen bada, bereizita adierazi behar dira aplikaturiko interes-tasa bakoitzari dagozkion likidazio-aldia eta sorturiko interesen zenbatekoa.

KOMISIOAK ETA ORDEJARRITAKO GASTUAK:

- Finantza-erakundek argitaraturiko tarifen arabera aplikatutakoak. Horien azalpena, oinarriko magnitudea, tasa eta zenbatekoa adierazi behar dira.

7.6.3. TRANSFERENTZIAK

Finantza-erakundeek likidazio-dokumentu bat emango diete bezeroei, eta bertan, gutxienez, honako datu hauek adierazi behar dira:

1. Agindutako transferentziak:

- Transferentziaren erreferentzia-zenbakia.
- Agindu-emailearen izena edo izen soziala, eta, hala badagokio, kontuaren zenbakia.
- Onuradunaren izena edo izen soziala.
- Zenbatekoa zein kreditu-erakundetan abonatu behar den.
- Onuradunaren kontua, transferituriko zenbatekoa abonatzeko, edo, bestela, adosturiko ordainketa-mota.
- Transferentziaren onarpen-data.
- Balio-data, zenbatekoa kontu batean zorduntzen bada.

- Agindutako transferentziaren zenbatekoa.
- Transferentzia beste dibisa batean egin behar bada, aplikaturiko kanbio-tasa eta transferentziaren zenbatekoa (transferentzian erabilitako dibisan) adierazi behar dira.
- Transferentziak eraginiko komisioak, eta ezarri daitezkeen gastuak agindu-emailearen eta onuradunaren artean banatzeko erabilitako irizpideak.
- Agindu-emaileari kargaturiko komisioak eta gastuak, edo, bestela transferentziaz atxikitakoak, onuradunari kobratzeko.

2. Jasotako transferentziak:

- Transferentziaren erreferentzia-zenbakia onuradunaren finantza-erakundearen eta, ezagutuz gero, agindu-emailearen erakundeko erreferentzia-zenbakia.
- Transferentziaren jatorrizko zenbatekoa.
- Agindu-emailearen izena edo izen soziala.
- Agindu-emailearen kreditu-erakundea.
- Transferentzia erakundeko kontuan jasotako data.
- Onuradunaren izena edo izen soziala, eta transferentzia abonatzeko kontu-zenbakia, edo, bestela, ordainketa-motari buruzko informazioa.
- Hala badagokio, transferentziaren zenbatekoa bezeroaren kontuan abonaturiko data, eta abonu horren balio-data.
- Komisioak eta gastuak banatzeko irizpideak.
- Banaketa-irizpide horien ondorioz, onuradunari komisio eta/edo gasturen bat kobratu behar bazaio, erakundeari dagozkion gastu eta/edo komisioen zenbatekoa.
- Abonua erakundeak jasotako dibisaz bestelako dibisaren batean egin behar bada, erakundeak aplikaturiko kanbio-tasa adierazi behar da.
- Onuradunari abonaturiko zenbatekoa.
- Agindu-emaileak transferentzia egitean adierazitako azalpena (datu hori jakinez gero).

7.6.4. ZERBITZUENGATIKO KOMISIOAK ETA ORDEJARRITAKO GASTUAK

Bezeroei bidalitako jakinarazpenetan, komisioaren azalpena, tasa eta kalkulu-oinarria, eta zenbatekoa adierazi behar dira, eta, hala badagokio, likidazioari dagokion aldia. Eskurapen finkoak badira, banan-banan kontsignatu behako dira, eta horien azalpen zehatza egin beharko da.

Ordejarritako gastuak kargatzen direnean, ahalik eta argien adierazi behar da horien azalpena eta horien zenbatekoa. Hala badagokio, zerga-atxikipean ere adierazi beharko dira, zerga-tasa eta kalkulu-oinarria eta guzti.

7.7. URTEKO TASA BALIOKIDEA (UTB)

Finantza-erakundeek eskainitako banku-eragiketetan badago oso kontuan hartu beharreko faktore bat: URTEKO TASA BALIOKIDEA (UTB). Tasa horrek eragiketaren kostu (mailegu edo kredituetan) edo errentagarritasun efektiboa (aurrezki- edo inbertsio-eragiketetan) adierazten du.

UTBa Espainiako Bankuak ezarritako arauen arabera kalkulatu da. Kalkulu hori egiteko, komisioen zenbatekoari eta karguen eta abonuen aldizkakotasunari begiratzen zaio.

Kreditu-eragiketetan, honako hauek sartzen dira UTBan: mailegua eman aurreko ikerketa- eta irekitze-kostuak, eta mailegu-emaileak eskaturiko amortizazio-aseguruen polizak (hartzailearen heriotza, ezintasuna, gaixotasuna edo langabezia kasuetarako). Dena den, banku-erakundeak UTBan sartzen ez diren kargak zehazteko obligazioa du. Normalean, honako kontzeptu hauek ez dira aintzat hartzen UTBa kalkulatzeko: notarioaren ordainsariak, tramiteak, egiaztapenak, Erregistroan inskribatzea eta zergak.

UTBa urteko ehuneko-tasa gisa –epe amaitu baliokidean ordaintzekoa– adierazten da. Horri esker, antzeko ezaugarriko

produktu/zerbitzuak –baina modu ezberdinean adierazitakoak– alderatzeko aukera dago. Adibidez, demagun kontsumorako bi mailegu-eskaintza eskatzen ditugula, interes-tasa finkokoak eta epe berekoak; baliteke eskaintza horietan aldea izatea interes-tasa nominalean, aplikatuko diren komisio eta gastuetan, eta maileguaren itzultze-kuotak eta interesak abonatzeko epean. Horrelako kasuetan, UTB txikieneko mailegua da onuragarriena, eta hori interes-tasa nominal txikienekoa izan daiteke ala ez.

Hala ere, ezaugarri ezberdineko produktuak alderatzen baditugu, kontuz ibili behar da UTBak alderatzean. Esaterako, ezin da alderatu interes finkoko maileguen UTBa interes aldakorreko maileguen UTBarekin, horiek kalkulatzeko oinarria ezberdina baita. Interes finkoko maileguetan, UTBak maileguaren kostu erreala adierazten du, horren iraupen osorako. Interes aldakorreko maileguetan, berriz, UTBa kalkulatzeko, hasierako erreferentzia-tasa hori maileguaren iraupen osoan aldatu gabe iraungo balu bezala egiten dira kalkuluak, baina, benetan, indize horrek aldaketak izango ditu, gorantz nahiz beherantz.

8 - ERREKLAMAZIOAK

8. ERREKLAMAZIOAK

- 8.1. Aurretiko erreklamazioa, erakundeari egindakoa
- 8.2. Kontsumitzaileen eta erabiltzaileen defentsa orokorrerako erakundeak
- 8.3. Finantza-zerbitzu gaietarako berariazko defentsa-erakundeak

8.1. AURRETIKO ERREKLAMAZIOA, ERAKUNDEARI EGINDAKOA

Kontsumitzaileak, erreklamazioren bat egin nahi badu, lehenik eta behin, **finantza-erakundera jo behar du**, jasotako zerbitzuarekin edo arretarekin **ados ez dagoela adierazteko. Adierazpen hori zuzena eta arrazoitua izan beharko du.** Erreklamazio-egileak azaldu egin beharko du zergatik egiten duen erreklamazioa.

Prozesua behar baino ez luzatzeko, komeni da **adiskidantzako akordioa** lortzen saiatzea.

Akordio hori lortzea ezinezkoa balitz, erreklamazio-bide bat baino gehiago aukera ditzakegu.

8.2. KONTSUMITZAILEEN ETA ERABILTZAILEEN DEFENTSA OROKORRERAKO ERAKUNDEAK

— Euskal Autonomia Erkideagoak kontsumo-gaietarako eskumen eskusiboa du (Eusko Jaurlaritzako Kontsumo Zuzendaritza).

- **Industria, Merkataritza eta Turismo Saileko lurralde-bulegoak** (Bilbon, Donostian eta Gasteizen). Organo horien egitekoa kontsumitzaile eta erabiltzaileei informazioa, laguntza eta orientazioa ematea da, bai eta bitartekaritza-lanak egitea ere, beren lurralde-esparruko erreklamazioetan.
- **Kontsumitzaileen Informaziorako Udal Bulegoak, KIUB/OMIC.** Bulego horiek udalen edo mankomunitateen menpekoak dira, eta horien egitekoa kontsumoarekin loturiko arazoei buruzko orientazioa eta informazioa ematea da. Normalean udalerriko bertako kontsumitzaileekin eta enpresekin jarduten

badute ere, praktikan, informazio- eta aholkularitza-funtzio orokorrak ere egiten dituzte.

- **Kontsumitzaileen elkarte/erakundeen** egiteko nagusia beren kideei aholkua ematea da. Dena den, elkarte/erakunde horietako kide egitea oso erraza da, eta, praktikan, aholkularitza- eta informazio-lan orokorrak egiten dituzte.

Horiek aukera onak dira geure arazoari buruzko eta jarraitu beharreko prozedurari buruzko informazio lortzeko. Bestalde, kontsumitzaileak, edozein unetan, erreklamazioa aurkeztu dezake dagokion administrazio-organoan (normalean, Eusko Jaurlaritzako Kontsumo Zuzendaritzan, edo Bilboko, Donostiako edo Gasteizko lurralde-bulegoetan, baina baita ere KIUB/OMICetan eta kontsumitzaileen elkarteetan). Erreklamazioa aurkeztean, zenbait datu adierazi behar dira: nortasuna eta datu pertsonalak, gertaeren kontakizun xehatua eta zehatza, gertakizunaren data, gertakizunaren erantzulearen nortasuna (ahal bada), eta erreklamazioa egiten duenaren sinadura. Idazkiarekin batera, beste froga batzuk ere aurkez daitezke (agiriak eta abar).

8.3. FINANTZA-ZERBITZU GAIETARAKO BERARIAZKO DEFENTSA-ERAKUNDEAK

Bezeroen interesei eta legez onartutako eskubideei dagokienez, finantza-erakundeek bezeroek aurkeztutako kexak jasotzeko eta erabakitzeko obligazioa dute. Alde horretatik, kreditu-erakundeek, inbertsio-zerbitzuetako enpresek eta aseguru-etxeek **Bezeroaren Arretarako Saila edo Zerbitzua** izan behar dute. Enpresa eta finantza-erakundeak talde ekonomiko berekoak izanez gero, nahikoa da Bezeroaren Arretarako Sail edo Zerbitzu bakar bat izatea talde osoarentzat.

Bestalde, **Bezeroaren Defendatzailea** –erakunde edo aditu independenteren bat, hain zuzen– izendatu dezakete. Defendatzailearen ardurak honako hauek izango dira: berari egokituriko erreklamazioak jasotzea eta ebaztea, gardentasunari eta bezeroen babesari buruzko legedia betetzen dela sustatzea, eta finantza-ohitura eta -jardunbide egokiak bultzatzea. **Defendatzaileak**

bezeroek aurkezturiko erreklamazioak erabakiko dira banku-erakundearentzat.

Zenbait finantza-erakunde defendatzaile bakar bat izendatu dezakete, eta, horrelakoetan, defendatzaileak erakunde horien guztien bezeroen erreklamazioak jaso eta erabakiko ditu. Defendatzaile izendatutakoek zintzotasun komertzial eta profesionaleko pertsonak izan behar dute, eta beren eginkizunak betetzeko ezagutza eta esperientzia egokia izan behar dute.

Bestetik, badago duela gutxi sorturiko figura bat: **Finantza-zerbitzuetako bezeroaren defentsarako komisarioak.**

Komisario horiek hiru organo ofizial dira, autonomoak eta independenteak, eta Espainiako Bankura, Balore Merkatuko Komisio Nazionalera eta Aseguru eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Orokorra atxikita daude, hurrenez hurren:

- **Banku-zerbitzuetako bezeroaren defentsarako komisarioa** (Espainiako Bankua). Kreditu-erakundeek, tasazio-sozietateek eta moneta-trukerako establezimendu baimenduek emandako zerbitzuei buruzko kekek eta erreklamazioak ebatziko ditu.
- **Inbertitzailearen defentsarako komisarioa** (Balore Merkatuko Komisio Nazionala/CNMV). Inbertsio-zerbitzuen erabiltzaileen, inbertsio-funtsen partaideen eta inbertsio-sozietateen akziodunen kekek, erreklamazioak eta kontsultak jasoko ditu, beren inbertsioen kudeaketa sozietate kudeatzaile baten –inbertsio kolektiboko erakundeak kudeatzen dituen– esku utzita badute.
- **Aseguratuen eta pentsio-planen partaideen defentsarako komisarioa** (Aseguru eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Orokorra). Aseguru-etxeen (arrisku handietarako kontratuak izan ezik) eta pentsio-funtsen erakunde kudeatzaileen erabiltzaileen kekek, erreklamazioak eta kontsultak jasoko ditu. Aseguru-bitartekariei dagokienez, babes-lana egiteaz arduratuko da.

Horiatarako izendatutakoak ekonomia- edo finantza-arloko pertsona ezagunak izan behar dira, eta, gutxienez, 10 urteko esperientzia profesionala izan behar dute. Agintaldia bost urterako da, eta ez dago epe hori luzatzeko aukerarik.

Kexak eta erreklamazioak norberak aurkez ditzake, edo ordezkariaren baten bidez. Hainbat euskarri erabil daitezke (papera, informatika-, elektronika- edo telematika-baliabideak), baldin eta irakurtzeko, inprimatzeko eta gordetzeko aukera ematen badute. Kexa edo erreklamazio gisa aurkezturiko dokumentuan honako alderdi hauek adierazi behar dira:

- Interesatuaren eta, hala badagokio, horren ordezkariaren izena, abizenak eta helbidea, behar bezala egiaztatuta; nortasun agiri nazionalaren zenbakia (pertsona fisikoak) eta erregistro publikoko datuak (pertsona juridikoak).
- Kexa edo erreklamazioaren arrazoia. Zer arazo erabaki nahi diren ere zehatz-mehatz adierazi behar dira.
- Kexa edo erreklamazioa eragiten duten gertaerak non izan diren (bulego, sail edo zerbitzu).
- Erreklamazio-egileak honako hau ere adierazi behar du: ez duela berririk kexa edo erreklamazio hori administrazio-, arbitraje-, edo epai-prozeduraren baten bidez tramitatzen ari direnik.
- Lekua, data eta sinadura.

Aurreko informazioaz osaturiko dokumentu bat aurkezteaz gain, erreklamazio-egileak kexa edo erreklamazioa oinarritzeko izan ditzakeen agiriak aurkeztu behar ditu..

Erreklamazioa finantza-zerbitzuetako bezeroaren babeserako komisarioak onartu eta bidera dezan, **nahitaezkoa da horiek aldeztatik, idatziz, Bezeroaren Arretarako Sailean edo Zerbitzuan** (edo, bestela, **Bezeroaren Defendatzailearen** aurrean) **aurkeztu direla egiaztatzea**, bai eta horiek ebatzi edo ukatu egin dituztela, idatzizko erantzun arrazoitu baten bidez. Hala ez bada, erreklamazio-egileak erreklamazioa aurkeztu zuenetik bi hilabete igaro direla egiaztatu behar du, eta epe horretan ez dela erreklamazioaren onarpenari buruz ebatzi edota hura ukatu, eta ez dela, halaber, erreklamazio-eskaria atzera botatu.

Erreklamazioa jasotzean, finantza-zerbitzuetako bezeroaren defentsarako komisario eskudunak hamar lanegun izango ditu aurretik adierazitako baldintzak betetzen direla egiaztatzeko. Hala

badagokio, espediente bat irekiko du erreklamazio bakoitzeko, eta bertan sartuko dira horrekin lotutako eginbide guztiak.

Kexak edo erreklamazioak edozein komisarioaren aurrean aurkez daitezke, edukiak direnak direla. Halaber, erreklamazioak zuzenean aurkez daitezke Espainiako Bankuko, Balore Merkatuko Komisio Nazionaleko, eta Aseguru eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Orokorreko erreklamazio-zerbitzuetako egoitza nagusietan edo ordezkaritzetan.

Finantza-zerbitzuen erabiltzaileek komisarioengana jo dezakete kexak edo erreklamazioak aurkezteko, baina horrek ez dio kalterik egiten indarrean dagoen legediko edozein babes-sistema erabiltzeari (batik bat, arbitraje- edo kontsumo-legedian aurreikusitakoak). Komisarioek ezingo dituzte finantza-zerbitzuei buruzko kontsulta, kexa edo erreklamazioak ezagutu, horiek arbitraje-, administrazio- edo epai-instantziaren bati aurkeztu bazaizkio edo horietako instantziaren batek ezagutu baditu.

HELBIDE BALIAGARRIAK

Euskal Autonomia Erkidegoko Kontsumo Zuzendaritza

ARABA

DONOSTIA KALEA, 1
01010 VITORIA-GASTEIZ
Telefonoa: 945/01 99 23
Faxa: 945/01 99 31 ; 47
consumo@ej-gv.es
www.euskadi.net/consumo
www.kontsumo.net

Industria, Merkataritza eta Turismo Saileko Lurralde Bulegoak

ARABA

SAMANIEGO, 2
01008 VITORIA-GASTEIZ
Telefonoa: 945/01 77 70
e-araba@ej.gv.es

Industria, Merkataritza eta Turismo Saileko Lurralde Bulegoak

BIZKAIA

CONCHA JENERALAREN KALEA, 23

48010 BILBAO

Telefonoa: 94/403 14 10

e-bizkaia@ej.gv.es

GIPUZKOA

EASO, 10

20006 DONOSTIA-SAN SEBASTIÁN

Telefonoa: 943/02 25 05

e-gipuzkoa@ej.gv.es

Industria, Merkataritza eta Turismo Saileko Lurralde Bulegoak

ARABA

